

Jakin^{•eus} 239

herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua
2020

Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

MARIO ZUBIAGA GARATE
ARANTZA ETXEBERRIA AGIRIANO
JOSEBA AZKARRAGA ETXAGIBEL
IRATI ZUBIA LANDA
JOSEBA GABILONDO

Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)

HARKAITZ CANO

EGUNEN GURPILEAN
ITZIAR UGARTE IRIZAR
JAIME ALTUNA RAMIREZ
ALBA GARMENDIA CASTAÑOS

Jakin^{•eus}**239**
herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua
2020



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

9

GAI NAGUSIA Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

13

Politika biluzik birusaren garaian

Mario Zubiaga Garate

Birusaren agerraldia aurreikusia genuen hainbat saiakera eta filmetan. Gertatuko zela jakinda ere, gure errutina guztiak hautsi ditu. Pandemiaren ondorio politikoak aztertzen dira artikuluan, eta birusak errealitatearen azpian dagoen errealitatea desmaskartzeko izan duen gaitasuna azpimarratzen da.

33

Mikro-bioa, gaitza eta natura

Arantza Etxeberria Agiriano

Gaitzaren alderdi indibidual eta orokorraren (komunitatea, gizartea, natura) arteko loturak aztertzen dira, osasun eta gaitxotasun kontzeptuen eztabaida filosofikoaren harira. Tartean daude birusen izaera, gaitz infekziosoen historia, biologia eta gizartearen eragina eta gaitzaren alderdi ekologikoa.

49

Ekodistopia prospektiban, EHkopia perspektiban

Joseba Azkarraga Etxagibel

Pandemia naufragio ekosozial orokorraren baitan kokatzen da. Prospektibari helduz, iragartzen da etorkizunak konplexutasunaren gaitze (kolapso) are biziagoa dakarkigula. Kapitalismo are basatiagoa gailen ez dadin, emantzipaziorako egitasmoa berrasmatzeko aldarria egiten da, eta bide horretarako zenbait oinarri aipatu.

75 Egia-ostea ziurgabetasun garaian
Irati Zubia Landa

Egia-osteak ziurgabetasun-egoeretan dituen inplikazioak aztertzen dira. Defendatzen den hipotesi nagusia hau da: ziurgabetasun-egoeretan egia-ostearen arrisku zein dinamikak areagotu egiten dira.

95 Pandemiaren arrazoiak: konspirazioaren,
paranoiaren eta negazionismoaren defentsan
Joseba Gabilondo

Konspirazionismoa, paranoia eta negazionismoa (konspiranoi-negazionismoa) era edo forma politiko emankor, aktibo eta populistak direla eta, beraz, beren 'politikotasun' konplexuan ulertu eta analizatu behar direla defendatzen da, ezkerraren kontrajartze eta kondena razionalistek azkenean gutxiengo ilustratu eta arranditsu baten erantzun efektugabe eta indargabea izaten amaitu baitute, berriro ere ezkerraren politika talde gutxituen dinamikara murriztuz eta jende gehiengoaren babesa galduz.

113 Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)
Harkaitz Cano

EGUNEN GURPILEAN

121 Kultura
Itziar Ugarte Irizar

126 Soziolinguistika
Jaime Altuna Ramirez

131 Glokalia
Alba Garmendia Castaños

KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Uztailaren 16an, *Pandemiak, distopiak eta mundu berriak* Jardunaldia antolatu zuen JAKINEk Usurbilen, UEU eta Usurbilgo Udalarekin batera. Jardunaldi horretako hitzaldiak bildu dira zenbaki honetan. Saio horien bideoak Jakin.eus webgunean daude ikusgai:



Usurbilgo Udala

Zenbaki honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du

PANDEMICS, DYSTOPIAS AND NEW WORLDS

Politics laid bare in times of virus

The outbreak of the virus was foreseen in numerous essays and films, although, despite the fact that we had been warned, it has still smashed all our routines. The sociologist and political expert, Mario Zubiaga Garate, analyses the political consequences of the pandemic, and highlights the virus's capacity to expose what is real – what lies beneath the reality.

[Mario Zubiaga Garate](#)

Micro-bio, disease and nature

The Philosophy of Biology lecturer, Arantza Etxeberria Agiriano, analyses the links existing between individual and general (community, society, nature) aspects of the disease, based on the philosophical debate about the concepts of health and disease, in which the nature of the virus, the history of infectious diseases, the influence of biology and society and the ecological aspect of the disease are intertwined.

[Arantza Etxeberria Agiriano](#)

Ecodystopia in prospective, Ehcotopia in perspective

The Sociology lecturer, Joseba Azkarraga Etxagibel, pinpoints the pandemic within the general context of eco-social failure. He predicts that the future will bring about a greater loss of complexity (collapse), and in order to prevent the triumph of capitalism in its most brutal form, he proclaims the reinvention of an emancipation project, providing some fundamentals about the subject.

[Joseba Azkarraga Etxagibel](#)

Post-truths in times of uncertainty

The graduate in Philosophy, Irati Zubia Landa, analyses the implications of post-truths in situations of uncertainty. She defends the hypothesis that the risks and dynamics attached to post-truths become aggravated in times of uncertainty.

[Irati Zubia Landa](#)

About the reason for the pandemic: in defence of conspiracy, paranoia and denialism

The writer, lecturer and literary critic, Joseba Gabilondo, maintains that conspiracy, paranoia and denialism (*conspiranoidenialism*) are political methods or means that can be considered fruitful, active and populist and that, therefore, need to be understood and analysed within their complex *politicity*. This is because rationalist comparisons and condemnation from the left end up ultimately proving to be the ineffective, weak response of an enlightened and arrogant minority, once again reducing left-wing politics to the dynamics of minority groups that loses the support of the majority. [Joseba Gabilondo](#)

Report following the third wave (2024)

The writer Harkaitz Cano presents us with dystopian fiction that takes us to 2024, experiencing the consequences of the pandemic's third wave. [Harkaitz Cano](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte Irizar, Jaime Altuna Ramirez and Alba Garmendia Castaños. [Various authors](#)

Joan Mari Torrealdai gabeko JAKIN aldizkariaren lehenengo zenbakia da honako hau azken berrogeita hamazazpi urteetan. Torrealdai joan zaigu. Eta haren itzala handitzen eta luzatzen ikusi dugu heriotza osteko erreakzio uholdean. Nork ez zuen ezagutzen. Nor ez zuen berak ezagutzen. Zenbat eremutan ez ote zuen jardun harremanak josten, ikerketan sakontzen, egitasmoak ontzen, egiturak sortzen, estrategiak eta bideak zedarritzen. Eta, bereziki, iparra markatzen. Misioa eta bisioa. Biak zituen argi.

Denok geratu gara umezurtz, leku askotakoak. Zer esan, Jakinekook. Azken unera arte aktibo izan dugu Torrealdai, eta berandu baino lehen ikusiko ditugu argitaratuta idatzi zituen azkenak. Horren aurretik, baina, JAKINEN hurrengo zenbaki monografikoa eskainiko diogu, eta saiatuko gara hark egindako lana eta utzitako ondarea merezi duen lekuan jartzen.

Torrealdai uztailaren 31n joan zitzaigun, zenbaki honek biltzen duen Jakin Jardunaldia egin eta bi astera. Pandemiaren erdian eta isolamendutik irten berritan. Eta, ezinbestean, horixe bera izan dugu aurtengo Jakin Jardunaldiaren gaia. Gainera etorri zaigun pandemiari eta ekarri duen distopiari leku egitea sahiestezina zitzaigun, mundu berriak –eta ahal bada bizigarriak– bilatzen hasteko. Horregatik, *Pandemiak, distopiak eta mundu berriak* izenburuko jardunaldia egin genuen Usurbilen, UEUren eta Usurbilgo Udalaren lankidetzarekin. Usurbilen eta aurrez aurre, fisikoki elkarrengana biltzea inoiz baino garrantzitsuagoa dela pentsatuta. Bertako hitzaldi guztien ikus-entzunezkoak Jakinen atari digitalean dituzue.

Eskuetan dugun zenbakian, Usurbilen emandako hitzaldien artikuluak eta gehiago daude. Mario Zubiagak zabaldu zuen saioa eta zabaltzen du zenbaki hau ere, pandemiak agerian jarri duen errealitatea eta ekarri dituen ondorio politikoak aztertuz. Medikuntzaren filosofiatik segi dio Arantza Etxeberriak pandemiaren azterketari, gaitzaren eta osasunaren eta banakoaren eta kolektiboaren arteko harremanak aletzen. Eko-soziologiaren talaiatik begiratzen dio Joseba Azkarraga Etxagibelek pandemiari, gertagarri zelakoan, eta aurrera egiteko atzera egin beharko dugula arrazoituz. Gezurra ere libre dabil pandemiaren haize nahasietan, eta egia-ostearen

arriskuez dihardu Irati Zubiak. Azken artikulua Joseba Gabilondorena da. Konplexutasunaren aldarri eginez, negazionismoaren defentsa bat dakar forma politiko emankor bat izan daitekeelakoan.

Distopia batera etorriak garela-eta, Harkaitz Canori eskatu diogu etorkizuna begitandu dezan, eta *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)* fikzio distopikoa sortu du Jakinentzat. Unai Iturriagak, zientzia fikziozko komiki klasikoan estiloan, kontrazalera ekarri du Canok proposatzen digun mundu berria.

Bestelakoan, ohikoa denez, *Egunen gurgpilean* sailean, Itziar Ugarte, Jaime Altuna eta Alba Garmendia, hurrenez hurren, kulturaz, hizkuntzaz eta pentsamenduaz ari zaizkigu.

PANDEMIAK, DISTOPIAK ETA MUNDU BERRIAK

- 13** Politika biluzik birusaren garaian
Mario Zubiaga Garate
- 33** Mikro-bioa, gaitza eta natura
Arantza Etxeberria Agiriano
- 49** Ekodistopia prospektiban, EHkopia
perspektiban
Joseba Azkarraga Etxagibel
- 75** Egia-ostea ziurgabetasun garaian
Irati Zubia Landa
- 95** Pandemiaren arrazoiak:
konspirazioaren, paranoiaren
eta negazionismoaren defentsan
Joseba Gabilondo
- 113** Hirugarren oldearen osteko
txostena (2024)
Harkaitz Cano

Politika biluzik birusaren garaian

Mario Zubiaga Garate

UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea

Nor da erruduna?

Honako hauxe da bizi dugun apokalipsiaren erruduna: SARS-CoV-2 birusa, koronabirus familia zabalaren kide azkarra, are maltzurra. Hobeto zabaltze aldera eragingo dituen sintomak ezkutatzen dituen ARN birusa. Mutatzeko gaitasun handia duena, alegia, txerto eraginkorra zailduz. Ziurrenik saguzarren artean gozo bizi zen birusa eta beste espezie batera, gurera, jauzi egin duena, osatu ugari eta abegikorragoaren bila (Quammen 2020). 'Giza Sistema' osoa, letra larriz, goitik behera, Txinatik Brasilera, astindu duen etsai nanometrikoa.

Krisiaren ezaugarritzea

Kanpo/barne krisia

Kanpotiko etsai hau... kanpotikoa al da? Batetik, kanpo/barne muga hori bereiztea zaila da birusen aurrean gaudela. Izan ere, gure genomak birus askoren kode genetikoa daude bilduta, eta, hortaz, gu ere, neurri batean, birusak ere bagara.¹ Bestetik, zer krisi mota bizi dugu? 2008koa barne-krisia zen, sistema kapitalistaren logika ekonomikoak berak aldiro-aldiro sortzen

dituen horietakoa. Hau, berriz, ‘naturatik’ dator, ‘sistematik’ kanpo, edo sistemaren muinetik. Azpiegituraren azpiegituretik dator, usu ‘esternalitate’ gisa definitu izan den eremutik.

Modernitateak azpiegitura ekonomikoaren arabera ulertu ditu ‘gainegitura’ guztiak –politika, kultura, gizartea...–, baina lehen solairu horren azpian ‘beste’ solairu bat zegoen estalita, benetako azpiegitura fisikoa. Denaren eta ez denaren muga gaindiezina. Birusaren agerraldiak ezkutuko geruza hori azaleratu du. Horregatik, inozokeria litzateke –edo maltzurkeria interesatua– pandemia hau krisi ekologikotik bereiztuko bagenu, indarrean dagoen sistema ekonomiko xahutzaileak eragindako egoeratik. Ekosistema basatien suntsitzea, errentagarritasuna irizpide bakartzat duen elikagaien ekoizpen eredu zoroa eta klima-aldaketaren ondorioak lapiko beldurgarrian batu dira. Quammenek (2020) maisuki erakutsi duen bezala, epe ertainean helduko zaizkigun beste pandemia globalen aitzindaria izan da koronabirusarena.²

‘Gaia hipotesi’ apokaliptikoari keinu bat besterik ez. ‘Mundua gu gabe’ edota ‘gu mundurik gabe’ pentsatzeko aukera eman digu pandemiak (Danowsky eta Viveiros de Castro 2019). Antropozenoaren amaieraz pentsatzeko aukera, alegia. Munduaren amaieraren mitoa ez da inoiz desagertu, baina, gure bizirautearen baldintza material oinarrizkoak eztabaidagai nagusi bilakatzen direnean, froga enpirikotik harago dauden mitoak edo narratibak nagusitzen dira. Narratiba horien izaerak –gezur edo egia enpiriko izateak– ez du garrantzirik: baldin eta lasaigarria bada, kaosean ordena ezarriko badu –edozein ordena–, balekoa da.

Gaiaren –Lurra izaki etiko gisa– irauteak gizakia desager dadin eskatzen du jada? Bere autodefentsarako bitartekoa ote da birusa? Konfinamenduak iraun duen bitartean naturak berreskuratu duen lekua ikusi besterik ez dago ‘gu’-rik gabeko munduak lehengora itzultzeko arazorik ez duela ulertzeko... Eta etxekotuta egon garen tarte horretan ere, ‘mundu fisikoa’ galdua, esperientzia birtualen eskutik gizarteak iraun duela ikusita, *Matrix* filmak erakutsitako etorkizun distopikoaren

zantzuak sumatzeko modua izan dugu: egoera plazentarioan bizi izan baikara, energia (datuak) ekoizten eta kontsumitzen, mundutik at. Mundurik gabe iraun dugu.

Ustekabea izan al da?

Birusak gainditu egin gaitu. Gure osasun zerbitzuak, gure jarduera ekonomiko osoa, hezkuntza, aisia eta gure ohiko jendarte harremanak hankaz gora utzi ditu pandemiak... Ustekabea izan dela esatea erraza litzateke, baina bizi duguna nekez definienezake tupusteko 'akontezimendu' edo gertakizun gisa. Hainbat eleberri eta saiakeratan idatzia eta filmetan ikusia genuen jada izurrite hau.

Kapitalismoa akabatu ez ezik, birus honek produktibitatea areagotu egin du arlo akademikoan: Googlen sartu besterik ez dago konfinamendu garaian eta hortik aurrera gaiaren inguruan idatzitako artikulu zientifikoen ugaltzeaz jabetzeko. Baina harritzekoa ez da gaurko ekoizpena, ez. Aitzitik, koronabirusaren zantzurik ez zegoenean³ ere, gaurko eztabaidagaiak –ia guztiak– presente egon dira hainbat autore esanguratsuren lanetan, gertukoak eta urrun daudenak, klasikoak eta horien irakaspena jarraitzen dutenak: Agamben, Gabilondo, Brown, Eposito, Foucault, Arendt, Sadin, Beck, Fischer, Zizek, Byung-Chul Han...

Alabaina, filosofia jasoak bainoago, masa-kulturak eraitkitzen ditu gaur mundu garaikidean ziurgabetasunari aurre egiteko behar ditugun narratiba edo mitoak. Zentzu horretan, zineman bizi izan ditugu jada gaurko atsekabeak: *The Andromeda Strain* (1971) klasikotik hasita, gutxi batzuk aipatzearen: *Contagion* (2011), *12 Monkeys* (1995) *Outbreak*

Inozokeria litzateke –edo maltzurkeria interesatua– pandemia hau krisi ekologikotik bereiztuko bagenu, indarrean dagoen sistema ekonomiko xahutzaileak eragindako egoeratik

(1995), *I Am Legende* (2007), *Train to Busan* (2016), *28 Days/Weeks Later* (2002/2007), *Cargo* (2013), *Virus* (2013), *96 Days* (2016)... Eta, noski, zombien saga luzea eta azkenaldian eman-korra, George A. Romeroren klasikoetatik hasita...⁴ Guztietan: gaixotasun infekziosoa, kutsadura, izurritea, bat-batean 'ezaguna' duguna oso 'beste' bilakatzen denari beldurra... filmok gure kosmobisioarekin, izuarekin eta izuaren aurreko itxiturarekin elikatu dute, harresi handiak –*World War Z* (2013) filmean, esaterako– edo txikiak, gure etxeetako hormak –'panikoaren gelak'– ugalduz.

Apokalipsia aurreikusita eta aurrez idatzita baldin baze- goen, orduan... zein da giza agentziaren lekua? Fikzioan eta pentsamenduan 'gertatu' bada jada bizi dugun egoera, non dago 'gertakizunak' berez ekarri beharko lukeen sorpre- sa, ezustekoa? Gizakiok historia egitera ala betetzera gatoz mundura? Ez dugu orain Hegel edo Kojève lapikoan sartze- ko asmorik. Ur sakonak dira, sakonegiak. Hemen agentzia, giza egintza edo eragiletzaren errebindikazioa egingo dugu. Ekintza kolektiboak (eta istripuak) dira, Arendten hitzetan,⁵ aurreikuspen sistemiko guztiak bertan behera botatzen di- tuztenak. Zorionez, dio berak. Zorionez, diogu.

Esan ohi da akontezimenduak *a posteriori* eraikitzen dituela bere kausak; oraingoan, birusak bere etorrera aldeztu aurre- tik erakutsi digu, fikzioaren eta pentsamenduaren bitartez deskribatu du bere burua. Baina birusa 'denboraren lerroan' baldin badago ere, gizakion ekintza askeak lerro horretatik at topatu dezake bere burua (Zapiain 2006). Dena jada aurrei- kusita dagoela/zegoela onartuta ere, filmetan –ia guztietan– narratibak amaiera desberdinak izaten ditu, baikorra gehie- netan, gazi-gozoa askotan, ezkorra gutxitan. Hiru aukera, hortaz. Pandemiaren amaiera ez dago idatzita, edo, bederen, uste horrek ekintza askerako bidea zabaltzen du. Alabaina, ekintza askerako eremua denbora-lerro desorekatuan ko- katzen da: batetik, normaltasunaren inertziak duen indarra eta 1918an bezala 'betikoa' errepikatzen garamatzen logika,⁶ eta, bestetik, etorkizunari buruzko pentsamendu estrategikoa

zailtzen duen sistemaren epe laburreko berezko logika. Hain zuzen ere, mundu-sistemak epe luzera begirako 'ekintza askeak' beharko lituzkeen unean. Denbora-lerrotik irten ezean, akaso, gizakion lerroak gertu izango baitu amaiera.

Birus desmaskaratzaila: 'erreal' eta errealitatea

Oso bizkorrak izan al dira pentsalariak edota gidoigileak? Bai, noski. Artistek eta pentsalariak aurrez ikusi edo marrazten al dute etorkizuna? Ez. Agian, 'errealaren' mundu gordina begiztatzeko gaitasuna dute, ez dira leize-zuloko itzalekin konformatzen... Izan ere, birus hau, gauza guztiez gaindi, maskarak inposatzen dituen birus hau, desmaskaratzaila izan da; errutina hautsita, normaltasuna desagertuta, errealitatearen atzean dagoen 'erreal' biluztu du, artea eta pentsamendua aspalditik, betidanik erakusten saiatu direna. Baina zertan datza 'erreal' hori? Modernizazio kapitalistak al diro-al diro bizkortze aldiak izan ohi ditu, eta XX. mendearen amaieran hasitako bizkortze iraultzailean gaude murgilduta. Horixe da bizi dugun abagune sistemikoa, garaiko espiritua edo *Zeitgeist*-a: iraultza. Modernizazioaren uhin garaikidea jauzi teknologikoaren eta eredu energetikoaren esparruko aldaketaren eskutik dator –lurrina, argindarra, petrolio eta deskarbonizazioaren hastapena–, eta azkartze horiek beti datoz inperio aldaketarekin, ziurgabetasunarekin eta, ondorioz, nolabaiteko jendarte-diziplinatzea eskatzen duen emergentziarekin... Ez dugu ikuspegi konspiranoikoarekin bat egiteko asmorik, baina, akaso, birusak erakutsi digu zein den mundu osoa diziplinatzeke tresna egokiena, hondamen-dira eramango gintuzkeen gerraren ordezkoko proposa.

Politikaren jomuga pandemia garaian: bizitza ala bizitza ona

Biopolitika/nekropolitika eta bioboterea

Pandemia honek –guztion bizitza biologikoa arriskuan jarri duen neurrian– politikaren muinean, erroan dauden

Biopolitika, nekropolitika
eta bioboterea
kontzeptuetan bil
genezakeen eztabaidak
gaurkotasun erabatekoa
erdietsi du: bizitza
biologikoa edota
bizitza duina? Zein dira
duintasunaren gakoak?

eztabaidak ekarri dizkigu. Besteak beste, biopolitika, nekropolitika eta biobotere kontzeptuetan bil genezakeen eztabaidak gaurkotasun erabatekoa erdietsi du: bizitza biologikoa edota bizitza duina? Zein dira duintasunaren gakoak? Agambenek (2010) *Homo sacer* gisa definitzen duen figura horrek –gizaki sakratua eta erabat sakrifikagarria denak– biopolitika eta nekropolitika (Mbembe 2011) elkartzen ditu, txanpon beraren bi alde gisa. Egungo gobernamentalitateak (Foucault 1978) –bizitzaren eta gorputzen gobernu biopoliti-

koak– gauza guztien gainetik jartzen omen du herritarron bizitza biologikoa babestea, baina, aldi berean, estatuak (edo preseski, merkatuak) erabakitzen du zein baldintzatan eta nor den sakrifikagarria... Hil edo hiltzen utz daitekeena, ‘balio gorenekoagoren’ baten mesedetan.

Krisi honetan bizitza zen gauza guztien gainetik jarri behar zena, baina merkatuak erabaki du zein zen heriotzaren prezioa... Ezagunak dira hipokrisia bio/nekropolitiko horren ondorioak: jendearen ziurgabetasuna eta horrekin lotuta dauden zaurgarritasuna eta beldurra, izua, izu urtean.

Noski, zaurgarritasun horren aurrean eta, batez ere, merkatuak agindutako nekropolitikaren kontra –fabrikak edota tabernak edozein modutan zabaltzea lehentasuntzat jotzen duen kapitalak–, bizitza biologikoa eta konfinamendua errebindikatu du jendarteak, osasun partikular eta kolektiboaren izenean. Alabaina, aldi berean, *vita nuda* defendatzearen, batzuetan bizitzaren duintasun politikoa –*vita activa*, duintasun bakarra, esango nuke– arriskuan jarri da. *Zoon politikon-a bios* hutsaren aldarean sakrifikatzeiko arriskua ezin gutxietsi genezake. Bizia –banakoa– eta bizitza –kolektiboa– bereiztea komeni.

Horrela, birusak ekarritako konfinamenduaren baldintzen kritika alde desberdinetatik etor daiteke, teilakatze eta artikulazio ideologiko bitxiak sortuz: neoliberalismo hutsetik, bana-koak erabaki behar duelakoan ekonomiari erabateko lehentasuna eman dion jarrera –Barrio de Salamancako morroiak–; ikuspegi libertario anarkistatik, inposaketa sistemiko hipokritaren aurka askatasunaren izenean desobedientzia aldarrikatzen duena; edo ikuspegi demokratiko erradikal batetik:

Eztabaida dezagun zein diren osasun kolektiboaren izenean guztion mesedetan –epe labur eta luzean– mugatu behar ditugun eskubideak, zein den onar dezakegun arrisku eta isolatze maila, nola banatu pandemiaren kalteak eta laguntzak, eta hori guztia herritarrei eta eragileei behar duten lekua eman, bio/nekro politikaren binomio maltzurra arbuaiatuz, Negrik aipatu duen biobotere erresistentearen izenean.⁷

Izan ere, bizitzaren duintasunaren ikuspegitik, eztabaida politikoaren ukapena da arazo nagusia –espazio publikoaren ezabapena, alegia–, ez horrenbeste erabaki politiko baten edo bestearen edukia... Datu argirik ez dagoenean, ez baitago edukiari buruz eztabaidaezina den ezer esaterik. Argi dago sektore ekonomiko batzuk martxan mantendu behar direla –inork ez du hori ukatzen–, arazoa da oinarritzko sektore ekonomiko horien definizioa nork egingo duen ez dagoela argi, askotan langileen baldintzak ez direla sindikatuekin adosten, edota, oro har, herritarron konfinamenduaren baldintzak eztabaida politikatik at daudela, eremu publikotik at.

Banakoaren bizitza biologikoaren izenean, beti ere merkatuaren edo lobbyen presiopean, dena sakrifikatzen denean, ongizate publikoaren izaera eta mugak ez ditugunean denon artean erabakitzen, autoritarismoari bide ematen ari gaitzaizkio. Kontrara, politikaren jomuga ez da bizitza fisiko hutsa zaintzea, bizitza ona, duina zaintzea baizik, nahiz eta nekropolitikaren aurrean bizitza fisikoaren zaintza izan, gurpila itxiz, bizitza duinaren ardatzetako bat, ez bakarra. Politikak, alegia, polisak erabaki behar du duintasun hori, ez banakoak, ez estatuak –kontrolrik gabe–, ez merkatuak.

Eremu publikoaren desagerpena, politikaren ukazioa

Horixe da krisi honek ekarri duen benetako ‘berrikuntza’: polisaren bat-bateko desagerpena, etxekotzea.⁸ Zein zintzo eta otzan sartu garen gure etxeetan... Harritzekoa da jendartearen diziplina. Nolatan? Freudek aztertu zuen ‘heriotza-pultsioa’ hor egongo da nonbait, edo estoizismoa, La Boétieren borondatezko morrontza, gaixotasunari beldurra edo isunari, kontzientzia kolektiboa, komunitatearen eta gertuko zaintza... Hain izan da bortitza etxekotzea, ezen euskal herri indigenaren espiritu dionisiakoa bera ere (Martinez Lizarduikoa 1998) ezbaian jarri duela.

Festak amaitu dira. Gure bizitza kolektiboaren muinean dauden festak egutegitik desagertu dira, urteroko errutinak apurtuz. Jaien izaera publikoa, pribatua eta herritarraren arteko tentsioa nabarmena izan da azken hamarkadotan. Apurka-apurka, ekimen herritarrak tartea utzi behar izan dio ekimen instituzionalari edota pribatuari, eta jaia –berez ordenaren apurketa dena– plangintza ordenatuaren edota merkantilizatuaren menpe geratu da hein batean. Pandemiak lehia horretan ere eragin nabarmena izan du: kasu batzuetan, erakundeek ofizialki bertan behera utzi dituzte jaiak, bestetan ‘ez-jai’ mugatuak ametitu dituzte, ekimen herritarrak berak askotan jaia bertan behera uztea erabaki du, eta, batzuetan, herritarrek legez kanpoko jai klandestinoak egin dituzte, kallean edo etxeetan. Modu batera edo bestera, aisia banan-banakoa bilakatu da, eremu domestiko pribatura ekarri da.⁹ Berrero ere, politikotasunaren eta gizarteak ezinbestekoak dituen erritual komuneren ukazioa (Byung-Chul Han 2020): etxeko bizitza etxekotua.

Eta, festekin batera, protestak eta kaleko errebindikazioak ere zaildu edo oztopatu dizkigu birusak. Nor da kalearen jabea? Manuel Fragaren paradisuan bizi izan gara... Kalea nirea da! Segurtasun indar guztien pagotxa izan da konfinamendua, supermerkatuko zinpekotik hasi eta Espainiako armadara... Alabaina, hori ere ez da ‘berria’. *Mozal legea*¹⁰ indarrean jarri zenetik, edo lehenago, ekintza kolektiboari lotutako eskubide

eta askatasunen eremua asko murriztu da. Birusaren kariaz, kalerik gabe egon gara hiru hilabetez, eta oraindik kalearen erabilera mugatua da oso. Mobilizazio modu berri horiek asko baldintzatzen dute 'kopurua' biltzea, indarra adieraztea (Tilly eta Wood 2010). Konfinamenduak iraun duen bitartean, eremu pribatua bilakatu da ekintza politikorako gune bakar: balkoia eta bakoitzak bere etxetik egin zezakeen bi-deokonferentzia, hori ere eremu pribatuan, bakarka, ikusiko dena. Balkoiak, Twitter eta Zoom... zein neurritan dira ekintza politikorako eremu eraginkorrak? Diskurtso aldetik bai agian, eta hori ez da nolana hiko jomuga –eskuineko populismoak eta bere ideologo Stephen K. Bannonek ondo dakite hori–; baina, Morlinok (1988) erakusten duen moduan, aldaketarako gakoak hiru dira: diskurtsoa, mobilizazioa eta aldatu nahi den sistemaren eraginkortasuna ezbaian jartzea. Eta ez dirudi 'elkarrekin' aritu gabe hiru aldagai horiek aktibatzeke modurik dagoenik, Arendtek (2015) ongi esan bezala. Ekintza kolektiboa 'kutsatze' prozesu bat besterik ez da, finean, orain debekatuta dugun harreman fisikoa behar duen kutsatze bizigarria.

Nolakoak izango dira mobilizazio arautuak –manifestazioak edo kontzentrazioak– hemendik aurrera? Eta arautu gabeak? Desobedientzia zibilak hartuko du ziurrenik indarra... Baina ez al da desobedientzia zibila neoliberalen tresna izango, publikotasunaren kaltetan? Mobilizazio apalena ezinezkoa bada, protesta arautu gabea bihurtu daiteke eremu publikoaren defentsarako leku ia bakarra. Protestaren gaiaz edo moduaren egokitasun politikoaz harago, protestarako eskubidearen errebindikazioa bera bihurtuko da ekintzaileen lehentasuna. Azkenean, birusak berpiztu besterik ez baitu egin gizarte eragileen artean aspaldi zabaldutako eztabaida.

Urrezko kaiola digitala: diziplina eta errendimendua

Etxekotze honek klase arrakala zaharrak areagotu ditu: lan ziburra edo zuzenean kaltetutako sektoreetan egiten dena,

telelanaren aukera duena eta kutsatzeko arrisku fisikoa daka-
rrena, adinduen edo umeen gutxiestea, zaintzaren banaketa bi-
degabea... Eta berriak, arlo pribatuari dagozkionak, txikikeriak
diruditenak baina konfinamendu garaian ez nolanhikoak:
balkoirik bai/ez, iparrera begira edo hegoaldera, ume txikiak
edo zakurra bai/ez, bikotea etxean bai/ez, etxe txikia/handia,
hirian/landa giroan, bistak mendira/patiora... Eta, noski, etxe-
kotzeak digitalizazioa bizkortu duen aldetik, arrakala digitala.

Pandemiaren kudeaketa digitalak Foucaulten gizarte dizi-
plinarioa –negatibitatea: «ezin zara irten»–, eta Byung-Chul
Hanen errendimenduaren gizartea –positibitatea: «lehen
bezala lan egin ahal duzu, yes you can»– uztartu ditu. Go-
bernantalitate digital honetan, itxitura, izua eta Sebastian
Friedrichen (2018) aipatzen duen gure buruaren optimizazio
biopolitikoak lapiko diaboliko berean bildu dira, etorkizuneko
mundu distopikoaren aurrekari gisa. Izan ere, kapitalismo
kognitiboari dagokion produktibitatea izugarri areagotu da.
Merkantzia nagusia, datuak, biderkatu egin dira hilabeteotan:
online lana, hitzaldiak, ikastaroak, sare sozialen erabilera,
kontrol telematikoak... Eta dena etxetik irten gabe. Fisherrek
(2016) «negozioen ontologia» salatu du «estres postfordis-
taren» kausa legez, digitalizazioak jauzi kualitatiboa dakar
«errealismo kapitalista» honetan.

Matrix (1999) filma datorkigu gogora –gizakiok erlaun-
tzean lotuta, energia ekoizten esperientzia birtualak bizi-
tzen ditugun bitartean–, baina, aldi berean, sare digitalen
trinkotzeak inteligentzia kolektiboari bide eman diezaioke.
Aukera biak zabalik daude. Sadinek (2020) deskribatu duen
posthumanismora eraman gaitu: teknologia ez da jada era-
bakian ‘laguntzeko’ protesia, ‘egiaren’ eroalea baizik, giza-
kiok kudeatu ezin dugun datu andanatik eratorritako egia
ukaezina. Baina, aldi berean, sare telematikoak giza harre-
manak mantentzeko tresnak dira: eremu publiko berria. Zer
izango zen itxialdia sarerik, Internetik gabe? Hemen koka-
tzen da sare telematikoaren anibalentzia: erabateko kontrol
sozialerako eta errendimendu-diziplinaren arteko uztardura

arriskutsuenari bide emateko tresna eta, aldi berean, eremu komuna/publikoa mantentzeko eta garatzeko tresna... itxialdi pandemikoak beste modurik baimentzen ez duenean. Kontuan har dezagun ez dela izango gure azken konfinamendua.

Politikaren nolakotasuna pandemia garaian

Gobernantza: eraso globalak, tokiko kudeaketa

Politikagintzan ere, zaharrak berri. Krisi pandemikoak ez dakar, berez, berri askorik. Lehendik ezagunak ziren arazoak, joerak, arriskuak, eztabaidak eta konponbideak dira orain esku artean ditugunak. Hori bai, agerian, biluzik daude eta zirt edo zart egiteko tenorean. Maila guztietan sumatzen da bi muturren arteko hautua egin beharra:

a) Munduan, maila globalean, inperio berria ate joka dugu –Txina–, eta ezaguna da inperio aldaketak beti izan ohi direla gatatzeko. Bi aukera: Mendebaldeko eta Ekialdeko aginte globalen arteko lehia eta gerra logika kapitalista teknoautoritariopean, ala elkarlanean oinarritutako gobernu globala. Ez naiz oso baikorra; erdibidean geratuko bagina, gaitz erdi.

b) Europan, nabarmena izan da pandemiari aurre egiteko erabaki partekatuak hartzeko gaitasun eza. Europako nazio-estatuak izan dira krisiaren kudeaketarako hobetsi diren ohiko eremuak, eta erakunde europarren lidergoa ahula izan da oso. Birusak abagune zailan topatu du Europa. Halere, esparru honetan baikorragoak izateko arrazoiak baditugu:

hasierako austeritateak lekua utzi dio laguntza ekonomikoen zama partekatzeari, Europako federalizazioaren mesedetan.

Munduan, bi aukera:
Mendebaldeko eta
Ekialdeko aginte
globalen arteko lehia eta
gerra logika kapitalista
teknoautoritariopean, ala
elkarlanean oinarritutako
gobernu globala. Ez naiz
oso baikorra

c) Espainiako Estatuan, berriz, lehendik zetozen joera zentralizatuak edota eskubide eta askatasunen murrizketak ez dira eten, 'musika' zertxobait aldatu den arren. Ikusteko dago gobernu berriak zekarren aldaketarako itxaropena, errenta eta lurralde boterearen banaketari dagokionean, zapuzten den edo benetan estatuak behar duen erreformari ekiten zaion.

d) Euskal Herrian ere, paradigma aldaketa prozesu sakon baten erdian harrapatu gaitu birusak: Elkargoaren bigarren agintaldiak eskatzen duen hausnarketa estrategikoan murgilduta dago Iparralde; Nafarroan 'erregimenaren' aldaketa egonkortze fasean, eta Autonomia Erkidegora une kritikoa heldu zen birusa: legebiltzarra deseginda, hauteskudeen zain... Alabaina, unean uneko eta lekuan lekuko abaguneaz aparte, euskal politikagintzan gai sakonagoak ditugu esku artean, pandemiak modu askoz ere gordinagoan mahaigaineratu dizkigunak:

- Hegoaldeko autogobernuaren mugak eta ezinak nabarmendu dira; entitate administratibo deszentralizatu hutsa izatetik gertu, bertan behera geratu da gure autogobernu estatuan alarma egoera aldarrikatu denean. Birusak erakutsi digu gordinki zer eta nor garen, eta ahulezia horrek zirt edo zart egiteko unean: lehengo autogobernu mugatura itzuli ala benetako buruz buruko harreman bati bidea eman. EAEn estatus berriaren eztabaidari ekingo dio legebiltzarrak datozen hilabeteetan, eta erabakitzeko gaitasunaren inguruko eztabaida nekez bereizi ahalko da birusaren ondorio sozioekonomikoen kudeaketatik.
- Hegoaldean bereziki politika egiteko modua bera ere krisian zegoen birusa heldu zenean. Azken berrogei urteotan indarrean egon den gobernantza ereduak oraindik ez du digeritu ETaren amaierak eta ezker abertzalearen erabateko instituzionalizatzeko ekarritako aldaketa. Orain arteko botere-sareen logika eta elkarlanean oinarritu beharreko gobernantza ez dira erraz uztartuko. Lankidetzan oinarritutako gobernantza hizpide zen lehendik ere, baina pandemiak gaia lehenetsi du, ez bairik gabe.

- Gobernantzarekin zuzenki lotuta dago ‘publiko/pribatu/herritar’ hirukiaren baitako oreka. Merkatuak gabezia nabarmenak erakutsi ditu pandemian, erakunde publikoak ere ahul aritu dira, erabakimen eskasari lidergo falta gehitu baitzaio zenbait arlotan. Hutsune horiek betetzera etorri da, mugak muga, herritarren eta eragileen ekimena. Euskal gizarte zibil antolatuaren eta udal erakundeen gaitasuna, kalera ateratzeko ezintasuna kontuan hartuta ere, azpimarratzekoa izan da konfinamendu garaian. Erabakimen politikoa ez da, hortaz, gure erakunde publikoena soilik, herritarren antolatzeko eta erabakitze gaitasuna ere ekuazioan sartu beharko litzateke: demokrazia ulertzeko modu eraberritua dago jokoan. Noren esku gaude? Zer dago gure esku? Galdera horiek maiz errepikatu dira hilabeteotan. Arlo publikoaren defentsa egitea eskatu da, baina ‘publikoa’ interes pribatuetara begira egon daiteke, edo komunera. Orain arte, bederen, gobernantza publiko hutsa –erakundeen artekoa– edo publiko/pribatua nagusitu dira batik bat, herri mailan lankidetzeta publiko/komuna eredugarria izan den arren.

Salbuespenaren kudeaketa demokratikoa posible al da?

Horrelako krisien kudeaketa ez da inoiz erraza. Salbuespen egoerak gainditu ahal izateko, diktadura komisarioa ezartzen zuten Erroman. Senatuak *dictator* baten esku uzten zuen Errepublikako botere guztia, aldi batez eta atzera itzultzeko aginduarekin. Garai hartako barbaroei aurre egiteko, argi zuten gure erakunde juridiko garrantzitsuenen sortzaile bizkor haiek agintea erabakigune bakarrera ekarri behar zela eraginkortasunaren mesedetan. Kalkulua logikoa zen erabat: albo kalteak eta sakrifizioak ekarriko dituzten erabaki zailak azkar hartu behar badira, ezin gara galdu senatarien arteko eztabaida politiko luze eta korapilatsuetan. Erasoari zirt edo zart erantzuteko, agora baino, milizia behar dugu.

Carl Schmittek ondo deskribatutako ikuspegia alboratuz, posible al da horrelako krisiak demokratikoki kudeatzea? Bai, noski.¹¹

Lehenik, hasieran agian ulergarria izan daiteke agintearen kontzentrazioa, epe oso laburrean hartu behar direlako neurriak. Birusa ez dago inoren zain, eta salbuespen egoeran ezin dira erabakiak modu deliberatzaile zabal eta luze baten bitartez hartu. Alabaina, lehen une kritikoak gaindituta, erabat bideragarria da erabakiak hartzeko modua aldatzea, mahaiaren bueltan ahots guztiak bilduz.¹² Gizarte helduan bizi gara,

Hasieran agian ulergarria izan daiteke agintearen kontzentrazioa. Alabaina, lehen une kritikoak gaindituta, erabat bideragarria da erabakiak hartzeko modua aldatzea, mahaiaren bueltan ahots guztiak bilduz

eta herritar heldu gisa ordezkatu beharko gintuzkete guk hautatutako erakundeek. Izan ere, preseski horrelako krisietan hartu behar diren neurrien eraginkortasuna haien legitimitasunaren menpe dago.

Bigarrenik, 'mahai-inguru' eredu hori gurean jada indarrean dagoen arren, bertaritzen diren eta agintzen duten interesak gutxi dira, merkatuak agindutako logika ekonomikoarekin erabat uztartuta

dagoen kudeaketa teknokratikoa baita nagusi. Eta batetik gabezia dena, bestetik gehiegizkoa bilakatu da. Izan ere, aldi berean, informazioaren edo jakituria teknikoaren oligarkiatik 'oilogarkiara' pasatu baikara, oilo eta oilar *influencer* apokaliptikoak batu baitira mahaira, krisien kudeaketa zentzuduna asko zailduz. Gezurra beti baita egia baino dibertigarriagoa.

Hirugarrenik, krisi guztiak ez dira berdinak. Sistemikoa izanda ere, Zaldibarko tokiko krisian lankidetzaren ereduari ekitea bideragarriagoa da koronabirusak eragindako arazo globalean baino. Azken kasu horretan 'mahai politikoan' bildu beharreko ahotsak zenbatezinak dira. Bestalde, arrisku biologikoen kasuan –birusak eragindako gaixotasuna, oraingoan–,

gizartearen ulerkera immunitarioa edo organizista hedatuko da, mahai-inguru horren politikotasuna ahulduz. Despolitizazioa areagotzeko kanpo etsai ideala baita birusa: kalte ‘demokratikoak’ eragiten ditu –ministroak eta pentsionistak berdin gaixotzen dira–, inork ez du ukatuko gupidarik gabe garaitu behar dela, inork ez du ezbaian jarriko etsaiaren kontra erabili beharreko bitartekoen legitimotasuna eta ez ditu inortxok justifikatuko birusak eragindako heriotzak. Politikotasunaren muina den gatazka desager daiteke, ondorioz, Zizekek (2001) aipatzen duen ‘arkipolitika’ komunitarioaren izenean. Alabaina, aldi berean, espiritu komunitarioa –zaintza partekatua, hitz larriz– sendotu egin daiteke horrelako krisietan, politikaren alderik etikoena hauspotuz. Horretan ere, anbibalentzia, edo bi irteera dituen ataka.

Amaitzeko, arestian esandakora itzuliz, krisiaren kudeaketa demokratikoaren azken oztopoak balioen ulermen garaikidearekin du zerikusia. Byung-Chul Han filosofoaren lana gogora ekarriz, bizirik irautea gure gizartearen balio nagusia bilakatu da; alegia, bizitza biologikoaren aldarean sakrifikatzen ari gara bizitza politikoa. Eta superbibentzia bera ardura guztien gaintetik jartzen badugu –seguritate indibiduala–, eztabaida politiko demokratikoak ez zaizkigu lehentasunezko gaiak irudituko. Alabaina, aldi berean, errutina sistemiko guztien erabateko suntsipena dakar pandemia honek; eta, bizitza fisiko soilak zentzua galduz gero –gimnasio, kontzertu, sagardotegi edo futbolik gabe ez baitago bizitza duinik–, bizitza duinaren nahia piztuko zaigu, bizitza fisikoa bera arriskuan jartzeko prestasuna erakusteraino: auzolana kutsakorra bezain gozagarria baita.

Zein dira eskura ditugun erantzunak?

Nihil novum sub sole, bai, akaso halaxe da, politikaren izaera lampedusatarrak inertzia izugarria baitu: ‘errealitate’ alda dezagun –guztiz behar bada– ‘errealak’ lehen bezala jarrai dezan, errealitate antza ‘eraberrituaren’ estalpean.

Kapitalismoak badaki estatuaren esku hartzea ezinbestekoa duela krisi ziklikoak gaingaitzeko, metaketari jarraipena emateko. Estatuaren interbentzionismo keynestarrak benetako errenta banaketa noraino bermatuko duen ikusteko dago, finean gizartearen mobilizaziorako grinak emango baitu banaketaren neurria. Grina hori kontrolpean edukitzeko, sistemak beldurraren, izuaren administrazio zorrotza egingo du segur aski, aldaketa sakonegia izan ez dadin. Izurria, izurritea, izua... pentsamenduaren suspentsioa –Arendten hitzetan–, gaixotasunaren, pobreziaren edota errepresioaren mehatxua erabilia. Ondorioa ezaguna da: ultraeskuindarren agenda politikoa. Alegia, kaosa elikatzea ordenaren inposaketa bortitza ezartzeko. Narrastien garuna.

Erantzunak ez dira inoiz teknologikoak, izan biomedikoak, izan ekonomikoak. Ideologikoak dira beti. Erantzuna ez baitzaio soilik birusari eman behar, berak biluztu duen erreal sakonari baizik. Erantzunetan ere, zaharrak berri: Erdi Aroko izurrite guztiei gizateriak emandako erantzunak –ezkorrak eta baikorrak– gutxi-asko errepikatzen ari dira eta:¹³

- Nihilista pasiboa. Bi motatakoa: bata, eremitikoa, gizartetik aldentuz bizitza indibidual osasuntsua, austeritatea eta autolaguntza hobesten duena; hedonista, bestea, *carpe diem* esamoldean laburbiltzen den jarrera: «gutxirako gaudede, bizitza hauskorra da; arriskuak arrisku, goza dezagun».
- Nihilista aktiboa. Ikuspegi apokaliptikoari men egiten diona. Komunitate idealizatu baten bila, gizartearen eredu immunitarioa (Esposito 2009) hobesten duena, berdin ezkerretik edo eskuinetik, erlijiotik edo naziotik pentsatutako erantzuna. Mundua zerotik hasteko tentazioa. Penitentzia, martiriak eta garbikeria kolektiboa eskatzen duen eredua. Finean, negatibitate abstraktuarekiko zaletasuna... Nerabe heldugabearen pentsamendua, Trump edo Abascalena... Gu *first!*
- Komunitario baikorra. ‘Gu’-a (t)artekotasunean sortzen dela defendatzen duena. ‘Gure arteko tartean’ eraikitzen da immunitarioa ez den komunitatea. Humanismo

ilustratuaren jarraipen gisa uler daitekeen baikortasun antropologikoa: Zizekek dioen moduan, lortuko ez den helburuaren bilaketa zapuztuan ez da agortzen bultzada etikoa; aitzitik, ahaleginean gauzatzen da. ‘Gintza’ bihurtzen den ‘kuntza’ (Zubiaga 2014). Praxi kolektibo leku-tuaren bitartez mundua aldatzeko/hobetzeko ahalegin etengabea, konpromiso aseezina eskatzen duen injustizia egoera baten aurreko praxi etikoa eta goitik ezarri nahi den edozein ordena behetik eztabaidatuko duen erantzuna. Mobilizazio edo protesta etikoa zein den edo ez den etengabe eztabaidatzen ari garen honetan, guztien azpitik dagoen etika mobilizatailea... Elkarrekin ekin, Arendten leloari jarraituz.

Ziurrenik, protestan bezainbeste autoantolaketa jarriko ditu jendeak indarrak, egin (ez) dezaten ekin edo zuzenean ekin, zaintza komunitarioaren logikan, agian, gurean horrek badu-eta ibilbide oparoa. Ekimen pribatua ukatu gabe, lankidetzaren publiko-komuna izan daiteke jarduera kolektibo horren marko proposa.¹⁴

Aldagai kontraesankor horien baitan ebatsiko da krisi biral honen ostekoa. Subirano bilakatu zen diktadura komisario batek eraitsi zuen Errepublika erromatarra. Agambenek esan bezala, ikusteko dago gurean aspaldian ezarri zen diktadura subiranoa koronabirusaren pandemiak berretsiko ote duen. Beraz, krisia gainditzeko ordaindu beharreko prezioa erabakita duen kapitalaren diktaduraren jarraipena izango dugun, eta, behin gaindituta, ‘negozioak betikoan’ jarraituko duen, ala, kontrara, egoera apokaliptikoari atea zabalduko ote dion pandemiak. Alegia, mundua berriro, zerotik berrabiatzeko aukera emango ote duen krisi honek, utopiaren esperantza saltzen diguten distopia biopolitikoek erakusten diguten moduan. Aukeran, *The Book of Eli* (2010), edo diktadura monoteista eraberritu sortzez garbia; *The Road* (2009) filmaren hondamendiaren osteko grina humanistikoa ala Fritz Langek *Metropolis*-en (1927) iradokitzen digun klaseen arteko elkartasun askea. Gogora dezagun 2008ko krisian ere

sistema osoa eraldatzeko ilusio utopikoa zabaldu zela... Alferrik. Ea oraingoan.

Amaitzeko, JAKINEN azken zenbaki bikoitzean jasotako Joxe Azurmendiren hitzak gogoratuko ditugu: gure mitoetan –auzolanean, besteak beste– oinarritutako utopia apal bat behar dugu. Eta, ildo beretik, Forsten (2015) irakaspenari jarraituz, distopiaren mamua bere baitan ezkutatzen ez duen utopia txiki horietako bat. 🌱

Oharrak

1. Erretrovirus batek ekarritako kode genetikoak egin gaitu ugaztun (ikus Zimmer 2011).
2. Euskal akademiako profesionalak berriki –konfinamendu garaian– bultzatutako manifestuak argi asko kokatu du pandemia hau maila globalean bizi dugun krisi ekologikoaren baitan, eta ‘ekonomia ekologikoaren’ aldeko aldarria plazaratu du (ikus <https://euskalherriapost-covid19.eus>).
3. Aduentzat koronabirus honen familia aski ezaguna zen. Ikus Quammenen (2020) lan zirraragarria.
4. Zonbien narratibaren azterketa zorrotza Itoitz R. Jusue ikertzaileak (2017) egin du.
5. «Akontezimenduak, definizioz, errutinazko prozedurak eta prozesuak eteten dituzten gertakizunak dira; garrantzizko ezer gertatuko ez zen munduan soilik izango lirateke egiazkoak futurologoen aurreikuspenak. Etorkizunera begirako aurreikuspenak oraingo prozedura eta prozesu automatikoen proiektzioak besterik ez dira, gertagarriak liratekeenak baldin eta gizakion ekimenik edo ustekabekorik ez balego; ekintza edo istripu orok, onerako edo txarrerako, aurreikuspena mugitzen eta frogatzen deneko markoaren egitura guztiz suntsitzen du. Proudhonen gain-gainetiko oharrak –ustekabearen oparotasunak aise gainditzen du estatu-politikariaren zuhurtzia–, zorionez, egia izaten jarraitzen du» (Young-Bruehl 2020).
6. 1918ko gripeari lotutako pandemia garaian ere, ‘normalitateari’ eusteko ahaleginak ondorio larriak izan zituen (ikus Dicke 2014).
7. Toni Negriren ekarpena ongi jaso du Gloria Seoanek (2015).

8. 'Itxi' eta 'etxe' hitzek jatorri etimologiko berbera omen dute. Itxituraren logika politikoaz lan interesgarria: Brown (2015).
9. Pribatizazioa egungo joera sistemikoa da, arlo guztietan sumatzen dena, Jule Goikoetxeak (2017) deskribatu duen moduan.
10. Herritarren Segurtasun Legea (2015/4 LO) eta Kode Penalaren aldaketa, 2015ean indarrean jarri zirenak.
11. Gai horren inguruan tesia osatzen ari da Oier Zeberio ikertzaile gaztea (www.eulixe.com/articulo/reportajes/seguridad-vs-democracia-tiempos-coronavirus-parte-i/20200525173017019546.html).
12. Ulrich Beckek (2002) aspaldian proposatutako ereduari jarraituz.
13. Simon Critchleyren (2010) jatorrizko eskema bat zabaldu eta egokitu dugu hemen.
14. Jakin Jardunaldi honetan Errenteriako eta Usurbilgo udalen esperimentzia aberatsa ezagutuko dugu, bi alkateen eskutik: Aizpea Otaegi eta Agurtzane Solaberrieta, hurrenez hurren.

Bibliografia

- Agamben, Giorgio (2010): *Homo Sacer. El poder soberano y la nuda vida*, Valentzia, Pre-Textos.
- Arendt, Hannah (2015): *La promesa de la política*, Bartzelona, Planeta.
- Beck, Ulrich (2002): *La sociedad del riesgo global*, Madril, Siglo XXI.
- Brown, Wendy (2015): *Estados amurallados. Soberanías en declive*, Bartzelona, Herder.
- Byung-Chul Han (2020): *La desaparición de los rituales*, Bartzelona, Herder.
- Critchley, Simon (2010): *La demanda infinita. La ética del compromiso y la política de la resistencia*, Bartzelona, Marbot.
- Danowsky, Deborah; Viveiros de Castro, Eduardo (2019): *¿Hay un mundo por venir? Ensayo sobre los miedos y los fines*, Buenos Aires, Caja Negra.
- Dicke, Tom (2014): 'Waiting for the Flu. Cognitive Inertia and the Spanish Influenza Pandemic of 1918-19', *Journal of the History of Medicine and Allied Sciences* 70(2).
- Esposito, Roberto (2009): *Comunidad, inmunidad y biopolítica*, Bartzelona, Herder.
- Fisher, Mark (2016): *Realismo capitalista. ¿No hay alternativa?*, Buenos Aires, Caja Negra.
- Forst, Rainer (2015): *Justificación y crítica. Perspectivas de una teoría crítica de la política*, Madril, Katz.

- Friedrich, Sebastian *et al.* (2018): *La sociedad del rendimiento. Cómo el neoliberalismo impregna nuestras vidas*, Iruñea, Katakarak.
- Goikoetxea, Jule (2017): *Demokraziaren pribatizazioa*, Donostia, Elkar.
- Jusue, Itoitz R. (2017): *The Politics of the Zombie in World War Z. Discourses on Invasion, Security and Heteronormative Resilience in Neoliberalism* (www.academia.edu/34596646/The_Politics_of_the_Zombie_in_World_War_Z_Discourses_on_Invasion_Security_and_Heteronormative_Resilience_in_Neoliberalism).
- Martinez Lizarduikoa, Alfonso (1998): *Euskal zibilizazioa*, Donostia, Gaiak.
- Mbembe, Achille (2011): *Necropolítica*, Bartzelona, Melusina.
- Morlino, Leonardo (1988): *Cómo cambian los regímenes políticos*, Madrid, CES.
- Quammen, David (2020): *Contagio. La evolución de las pandemias*, Bartzelona, Debate.
- Sadin, Éric (2020): *La inteligencia artificial o el desafío del siglo. Anatomía de un antihumanismo radical*, Buenos Aires, Caja Negra.
- Seoane, Gloria (2015): 'El acontecimiento biopolítico como forma de resistencia', *Astrolabio* 17, 53-60.
- Tilly, Charles; Wood, Lesley J. (2010): *Los movimientos sociales, 1768-2008. Desde sus orígenes hasta Facebook*, Bartzelona, Crítica.
- Young-Bruehl, Elizabeth (2020): *Arendt. Una biografía*, Bartzelona, Paidós.
- Zapiain, Markos (2006): *Ja guztiaren funtsa. Kojève globalizatzaile*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 33.
- Zimmer, Carl (2011): *Un planeta de virus*, Madrid, Capitán Swing.
- Zizek, Slavoj (2001): *El espinoso sujeto. El centro ausente de la ontología política*, Bartzelona, Paidós.
- Zubiaga, Mario (2014): "Kuntza'-tik 'gintza'-ra", *Naiz*, 2014-11-30 (www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/kuntza-tik-gintza-ra).

Mikro-bioa, gaitza eta natura

Arantza Etxeberria Agiriano

UPV/EHUko Filosofia Saileko irakaslea eta IAS-Research Group on Life, Mind and Society taldeko ikertzailea

Asko naiz, multitudeak ditut nigan. (Walt Whitman, 1855)

Nork begiratu dezake ezer berriro –ate heldulekua, kartoizko kaxa, barazki poltsa– imajinatu gabe zipriztindurik dagoela ikusezinak, hilgabeak, bizigabeak diren tantaz, euren xurgatze-kuxinak gure birikei itsasteko zain? (Arundhati Roy, 2020)

Birusak gogorarazi digu, azken batean, hain sutsuki ukatu dugun hori: sorkari gaixoberak garela, materia hauskorenarekin egindakoak. Hiltzen garela –hilkorrak garela–. Gure ‘humanitateak’ ez gaituela besteengandik bereizten, ez garela salbuespen, baizik eta mundua sare itzel modukoa izanik bertan gaudela, beste izakiekin korapilatuturik eta elkaturik dependentziatzko eta eraginezko hari ikusezinez. Gure jatorrizko herriak zeinen urrun dauden kontuan izan gabe, edo zein hizkuntza egiten dugun, edo zein koloreko den gure azala, gaixotasun berberekin etortzen garela, beldur berberak partekatzen ditugula, heriotza berbera hiltzen dugula. (Olga Tokarczuk, 2020)

SARS-CoV-2 birusaren hedakuntzak sortu duen pandemiak *osasun* eta *gaixotasun* kontzeptuen inguruko azterketa filosofikoa fintzera behartzen du. Medikuntzaren filosofian *zer da gaixo egotea?* galderak erantzun ezberdinak izan ditu, bi intuizio nagusiei jarraikita, naturalista eta normatibista. Lehenarentzat, gaixotasuna gertakari naturala da

eta, beste gertakari naturalak bezala, zientziak ikertzen du. Ikuspegi horretan, medikuntza zientzia gisa ulertzen da (eta ez artea), zientzia ekintza objektiboa izanik. Bigarrean, aldiz, egoera edo gertakari bati gaixotasun deitzean ebaluaketa negatibo bat egiten da, zerbaiti buruz txarra edo kaltea dela esaten da, eta naturan ez dago berez negatiboa den ezer.

Eztabaida nagusi horren barnean, badaude beste hainbat azpigai ere, esaterako: gaitzaren kausa indibiduala eta berezkoa den edo sozial/ekologikoa, zer den gaixotzen dena, eta ea biologiaren arabera definitu daitekeen beti kaltea. COVID-19 gaixotasunaren kasuan, birusa bera ez da gaitzaren sinonimoa, eta ezin da gaixotasuna murriztu gorputz indibidualetan sortzen dituen kalteetara. Artikulu honetan, gaitzaren alderdi indibidual eta orokorragoaren (komunitatea, gizartea, natura) arteko ikuspegi nahastuak aztertzen dira.

Birusa = gaitza?

Birusari zooma hurbilduz gero, egin beharreko lehen aitortpena da zein konplexua den bere izaera, eta zein ulergaitza biologiaren ohizko eredu zelularretatik abiatuta. Izan ere, birusak zer diren ezin irudikatze horrek ezinegona sortzen du. Pandemia garaian birusari deitu zaio 'bitxo', sute, uholde, tsunami... Dударик gabe, izaki *frikia* da; Arundhati Royk dioen bezala (ikus hasierako aipua), *bizigabea* baina *hilgabea*. Biologiaren baitan ere ezin da erraz definitu, bere jatorria zein den ez dago adostuta (Wessner 2010). Mikrobioen artean izaera berezia dute birusek; entitate ez-zelularrak izanik, bakterioak baino askoz sinpleago dira, txikiegiak mikroskopio arruntaz ikusi ahal izateko. Ugaltzeko, zelula batean egon behar dute; oso txikiak, oso ugariak eta era askotakoak dira.

Medikuntzan eta biologian mikrobio guztien, baita tartean dauden birusen, izaera kaltegarria edo patogenoa azpimarraztu da. Ezaguna da medawartarrek esandakoa: birusa «berri txarra da, proteinaz bildurik» (Medawar eta Medawar 1983). Eta esaldi horren txantxan uztartzen dira orduko hainbat

uste: azido nukleikoz (ADN ala ARN) eginik dagoenez informazio dela, informazio horren eragina kaltegarria dela birusaren kasuan, proteinaz bildurik datorren fardel formatua duela, eta ez duela berezko metabolismorik. Gaur egun birusaren ikuspegi neutroagoa dago, pixka bat zehatzagoa: «zelularrak ez diren izaki ebolutiboak dira, ugaltzeko zelulak erabiltzen dituztenak» (O'Malley 2014).

Zientzian oraindik ez da argitu birusak izaki bizidunak diren. Ezetz askok erantzun dute, bizitza independentea eta burujabea ez dutelako, ez baitira zelulak edo zelulez eginak. Birusen jatorri ebolutibo genealogikoa aztertzerik ez da lortu oraindik. Baiezko erantzunak, aldiz, birusek biziaren eboluzioan eta antolakuntzan duten eragina azpimarratzen du, tartean euren rol erregulatzaileria Lurraren biogeokimikan (nitrogenoaren, karbonoaren eta beste hainbat zikloetan) edo gorputz zelulaniztunen erakuntzan (plazentaren eboluzioan jokatu duten rola aipatzen da, kasu). Bestalde, birusen arteko elkarrekintzak ere esanguratsuak dira, baita bakterioekin dituztenak; ikerketa batzuen arabera, lor daiteke hiesaren edo beste birus patogeno baten eragina neutralizatzea birusen bitartez (Brives eta Pourraz 2020).

Historikoki birusaren lehen ezagutzak balorazio negatiboa izateak adierazten du beraien ezagutza jendearen beharren ikuspegitik hasten zela. Askotan balioak deskribapen objektiboen aurretik datoz zientzian: gaitz kaltegarriaren zergatia ikertzeak eta sendabideak aurkitzeak lehentasuna du ezagutza objektiboaren bilaketaren aurrean. Bestalde, birusen izaera objektiboagoa garatu den heinean, nabarmentzen da birusak ez direla patogeno hutsak, eta zilegi dela esatea birusak izan direla kolaboratzaile Lurreko biziaren eboluzioan

Birusari zooma hurbilduz gero, egin beharreko lehen aitorpena da zein konplexua den bere izaera, eta zein ulergaitza biologiaren ohizko eredu zelularretatik abiatuta

eta antolakuntzan. Medawartarren garaikoak oker zeuden baieztatzen zutenean birusetatik ezin dela ezer onik eratorri: «Ongia egiten duen birusik ez da ezagutzen» (Medawar eta Medawar 1983: 275). Gaur egun ikuspegi horren ukitu normatiboa ez zaigu egokia iruditzen, talka egiten duelako zientziak dakienarekin.

Birusak patogeno huts moduan ikustean, biziaren kide diren mikrobioekin elkarrekintza ezin da ondo azaldu. Horrek badu eragina gaixotasuna azaltzerakoan: naturaren ikuspegitik ez dago gaitzik; gaitza banakoaren, organismoaren edo espezie baten ikuspegitik juzgatu behar da. Birus honek gizakiari eraso egiten dio eta zentzu horretan da kaltegarria; naturaren ikuspegitik, aldiz, neutroa da.

Birusaren kalteak jatorri soziala du

Medikuntzak osasuna eta gaixotasuna beti planteatu baditu ere indibiduoari buruz (gizakia zein animaliak edo landareak), gaitz infekziosoen biologia azaltzeko nahitaez espeziearteko eta gizarte mailako erlazioei eta ingurumenari erreparatu behar die, eta ikuspegi komunitarioak garatu.

Gizakiaren gaitz infekziosoak Neolitoan hasi ziren; aurretik, Paleolitoan, infekzio puntualak egon arren zauri bat egin ostean edo egoera txarrean dagoen janariaren eraginez, ez ziren transmititzen, garaiko gizakiek ez zuten katarrorik edo elgorririk (Porter 1999). Medikuntzaren historiak dio gizateria orain dela 12-15 mila urte hasi zela gaixotasun infekziosoak izaten, talde ehiztari-biltzaileek bizitza ibiltariari utzi eta toki berean finkatu zirenean, populazio ugariagoan eta abereekin lotura estuan. Ordutik, nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenarekin, gizakiak eta beste animalia eta landare espezie etxekotuek epidemia ugari jasan dute, bakterioek (izurri beltza, kolera edo antraxa) zein birusek (baztanga, gripea edo hiesa) eraginik.

Hori dela eta, epidemien jatorria espezie bereko eta espeziearteko kideekiko erlazioen eraldatzean dago, eta guztiek

izan dituzte ondorio sozial handiak, batez ere pobrezia baldintzen (pilaketa, gosea, higiene eskasa) eta baita aurreiritzien eraginez. Paul B. Preciadok (2020) azpimarratu duen bezala, gaitzaren irtenbidea aurkitu denean zientzia eta teknologiaren eskutik etorri bada ere, imaginario sozialak erruak eta biktimak bilatu izan ditu: sifilisa, adibidez, prostituzioarekin lotu zen, hiesa homosexualitatearekin lotu zen bezala.

COVID-19 gaixotasunaren kasuan ere, birusak kalte egiteko egoera sozial eta ekologiko endredatuak behar izan ditu; adituek egoera hori biziera azeleratuari, kapitalismoari eta globalizazioari lotu diete.

Mikrobioen aurkako gerra

Medikuntzak ez zekien mikrobioek gaitzak eragin eta kutsatu zitzaketela XIX. mendera arte. Esanguratsua da Ignaz Semmelweisen kasua: bera baino hamarkada bat beranduago Pasteur eta Koch bezalako ikertzaileek mikrobioen munduak gaixotasunetan duen eragina nabarmendu zuten arren, ezin izan zituen mediku kideak esku-garbiketaren beharraz konbentzitu (Hempel 1973). XIX. mendetik aurrera, mikrobioen aurkako 'gerrak' dira medikuntzaren helburu nagusia. Txertoak eta antibiotikoak garatu ziren mikrobioekin hartu-emanen sortutako gaitzei aurre egiteko. Alde batetik, organismoaren sistema immunea bizkortzea da helburua, parasitoekin erlazio kaltegarriarik egon ez dadin; bestetik, mikrobioen eraginari aurre egingo dioten botika espezifikokoak edo *bala magikoak* garatzea. Osasun publikoaren garrantzia ere azpimarratzen da garai horretan, elikagaien inspektzioak, antiseptikak neurriak eta txertaketa programak eginez. Garai hori medikuntzaren urrezko arotzat hartu zen eta osasungintzaren aurrerabidea baikortasun handiz agurtu zen, Europako populazioaren bizi-itxaropena bikoiztu egin zela esanez, adibidez.

Medikuntza soziala garatu dutenen artean, halere, batzuk kritiko agertu dira gehiegizko baikortasun horren aurrean, uste baitute ez zirela izan medikuntzaren aurrerapenak

hobekuntza sozial horien eragile, eta benetako kausak beste hobekuntza sozial eta demografikoak izan zirela (McKeown 1990, Porter 1999). Izan ere, aurreko mendearen erdialdetik aurrera euforia apur batekin uste da Abdel Omranek *trantsizio epidemiologiko* deritzon aldaketa horren emaitza dela gizakiak gaixotasun infekziosoak gainditu izana.

Orokorrean hartuta, hiru gaixotasun mota nagusi bereizten dira: 1) *jaiotzetako gaitzak*, konstitutiboak edo berezkoak; 2) *gaitz infekziosoak*, mikrobio edo parasitoek eragindakoak; eta, azkenik, 3) *gaitz degeneratiboak edo gizakiak eragindakoak*, ‘aberatsen’ gaixotasunak (tabakoak, gehiegi jateak, gehiegizko sedentarismoak eta antzekoek eragindakoak).

Horren arabera, *lehenengo trantsizioa* nekazaritzaren sorrerarekin markatuta dago, eta bertan infekzioek eta elikadura eskasak eragindako gaitzak nabarmentzen dira. Pobreziarekin lotzen zituen Abdel Omranek: «pestilentzia eta gosete aroa» da, bere esanetan. *Bigarren trantsizioa* orain dela bi mende gertatu zena da; horren ondorioz, populazio batzuetan gaitz infekzioso gutxiago dago, eta gizakien heriotzak gaixotasun

degeneratiboen eraginez gertatzen dira. Aro horretan ‘gerra’ irabazia zegoela sinisten zen, eta, ondorioz, adibidez, beste espezializazio batzuetan sakontzeko gomendioa egiten diete medikuntza fakultateek euren ikasleei, garaiko gaixotasun berrietan, alegia (esaterako, minbizian edo bihotzeko gaitzetan). Lewontin eta Levins (2007) biologo marxistek trantsizioen eredu hori gogor kritikatu dute, besteak beste

Birusetik zoma
urrunduz gero,
biziaren baitako erlazio
korapilatsuak ikusi ahal
dira; gerra sutsuan ibili
ordez, birusek mota
askotako rolak dituzte
bizi prozesuetan, eta
denak ez dira negatiboak

gaitzen historia nahikoa ezagutu gabe egin delako; gainera, ez delako aintzat hartzen gizakiak animalia eta landareekin duen harreman estua, eta ikuspegi horretan baztertu egiten

direlako pobreziak, desberdintasunak edo kapitalismoak gaitzen bilakaeran duten eragin ezinbestekoa.

Horregatik, gaur egun trantsizioen doktrinarekin aurrera egiten dutenek hirugarren *trantsizio* bat ere kontuan hartu behar dela uste dute, non gaitz ezagunak berpizten diren eta gaixotasun berriak ere sortzen, horiek azkar zabaltzeko gaitasuna dutelarik globalizazioa dela-eta (Harper eta Armelagos 2010). Egile horiek azaltzen dute hirugarren aroan gaitz infekziosoek gora egin dutela nabarmen (tuberkulosia, hiesa...) eta trantsizioaren teoriak kale egin duela. COVID-19 gaitzaren harira ere honela dio aditu batek: «Uste zuten pandemiak soilik herrialde pobreetan zutela eragina... eta berandu iritsi ziren» (López-Goñi 2020). Hirugarren trantsizioaren ikuspegitik, aldiz, gaitz infekziosoek orain ikusten diren ezaugarri itzelak dituzte: antibiotikoekiko erresistentziaren hedakuntzaren eta globalizazio orokorraren eraginez, garraio sistema masiboa tarteko, zabaldu eta egonkortu dira. 1998ko lan batean dagoeneko aipatzen da garraioaren bidez «birusen superautopista» eraiki dela (Harper eta Armelagos 2010).

Mikrobioekin gerraosteko aroa

Jakina, txertoen eta beste sendagai batzuen lorpena espero da gaur egun, jende asko gaixo baitago eta pandemia latza bizi baitugu. Baina ez da ahaztu behar, birusetik zooma urrunduz gero, biziaren baitako erlazio korapilatsuak ikusi ahal direla; gerra sutsuan ibili ordez, birusek mota askotako rolak dituztela bizi prozesuetan, eta denak ez direla negatiboak (gizakia-erentzat kaltegarriak). Are gehiago, mikrobiorik gabe ez legoke (ezagutzen dugun) bizitzarik Lur planetan.

Nekazaritzak eta laborantza kudeaketak bioaniztasuna galarazi du. Gaixotasun infekziosoak gehitu egin dira basoen galeraren eta habitaten zatiketaren ondorioz. Mikrobioak aldatu egin dira, antibiotikoek, desinfektatzaileek eta metal astunek eragin dituzten presio selektiboen aldaketa dela-eta, eta baldintza egokiak bultzatu dituztelako mikrobioen aldaera

arraroak eta berriak sortzeko, ezagutzen diren botikekiko erresistenteak direnak. Gainera, erresistentzia espero zena baino askoz azkarrago zabaldu da. Beharrezkoa da, hortaz, medikuntzak eta osasun publikoak mentalitate aldaketa bultzatzea gizakiak eta beste animalia eta landare zelulaniztunek mikrobioekin (birusekin) duten erlazioari buruz.

Azken mendean egindako higiene bidezko programa sozialak arazoak ere sortu ditu: «Mendebaldeak gero eta antzuegoko den ingurumena ekoiztu du, planifikatu ez den eta ezin den natura ezabatzean datzana» (Sariola eta Gilbert 2020: 746). Medikuek, erizainek, dentistek, petrikiloek... testuinguru ezberdinetan erabili dituzte antibiotikoak, eta erabilera horren ondorio latzak agertzen ari dira.

Gaur egun medikuntzak bizi duen arazo bat antibiotikoekiko erresistentzia da. Ospitaletan gero eta gaixo gehiago daude zeinentzat antibiotikoek ez duten eraginik izaten, gero eta erresistenteagoak bihurtzen ari diren bakterio (*Clostridium difficile*, kasu) eta beste mikrobioen eraginez. Proposamen batzuen irteera bat izan daiteke mikrobioen beraien laguntza izatea; adibidez, ikerketa batzuk probatzen ari dira bakteriofagoak (bakterioak infektatzen dituzten birusak) erabiltzea bakterioen kontra (Brives eta Pourraz 2020). Tratamenduen artean, muturreko irtenbidea diruditen transplante fekalak ere badaude. Bata zein bestea teknika berriak dira, mikrobioekin dugun erlazioetan oinarritzen direnak.

Pasteurren osteko garaia deitu zaio oraingo egoerari: orain gerra garaia amaitu da eta zientziak eta medikuntzak ondo ikertu behar ditu mikrobioen eta animalia eta landare zelulaniztunen artean dauden, zein eraiki daitezkeen, elkarlanak. Praktika eta logika 'higienistak' gairatuz eta mikrobioen izaera modu positiboan begiraturaz, ez etsai edo izaki kaltegarri huts moduan; adibidez, 'antibiotiko' hitzak adierazten duen aurkakotzaren harira (Brives 2020). Etsai gisa baino, aliatu edo lagun modura ikusteko proposamena egiten da, izan ekosistema kalteuak berriztatzeko, izan hainbat esparrutan erabilgarri izan daitezkeen teknika berriak sortzeko, baita medikuntzan ere.

Nola sortu kaltegarriak ez diren erlazioak mikrobioekin

Bizidunak ezin dira ingurumenetik bereizi, organismo-ingurumen sistemak direlako, eta besteekin dituzten erlazioak berezko izaeraren atal baitira (Etxeberria 2020). Gizakia ez da sistema isolatua; aitzitik, beste bizidunekin erlazioan ulertu behar da bere izaera. Zentzu horretan, ez dago muga ontologiko zehatzik gizakiaren eta naturaren artean. Gizakiak pilaturik bizi badira beren habitatetan, animalien eta beste landareen habitat guztiak inbadituta, animaliekin kontaktu estuan, eta ematen diren desorekak garraio masiboaren bitartez aplikatu eta zabaltzen badira, sortzen diren gaixotasun berriak erlazio ekologiko estresatuen emaitza gisa ikus daitezke.

COVID-19 gaixotasunak maila indibidualean eragin duen kaltea nabaria da: gaitza, ezgaitasuna, mina, arnasa hartzeko zailtasunak eta beste hainbat sintoma, eta baita heriotza ere. Ezberdintasunak ere badaude indibiduen artean, batzuk berezko ezaugarri biologikoak dira (adinaren arabera: zaharragoak dira zaurgarriago; sexuaren arabera: gizonenak dira zaurgarriago), eta beste batzuk sozialak (eremu pobreetan, zahar etxeetan edo ikasle egoitzetan bizi direnek arrisku handiagoa dutela ematen du).

Maila indibidualetik harago, galde dezakegu ea osasun eta gaixotasun nozioek esanahi kolektiborik ere baduten. Horrela ikusi dute arazoa hainbat zientzialaririk. Ulertu dute antolakuntza sozialean gertatu diren aldaketek –antibiotikoak, higiene neurriak, desinfekzioak...– izan dutela eragina Lur planetaren baitan dauden erlazioak desorekatzekoan, eta horren aurrean ere hartu behar direla neurriak osasuna berreskuratzea bermatzeko. Adibidez, Fernando Valladares CSICeko ikertzaileak hainbat elkarrizketetan azpimarratu duenez, pandemia honen eta beste gaixotasun zoonotikoen aurka egiteko ezinbestekoa da gizakiak naturarekin duen harremana errotik birplanteatzea. Azaldu bezala, naturaren ontologiak kontuan hartu behar ditu ez bakarrik indibiduoak edo espezie isolatuak, baizik eta baita ingurumen eta erlazio

ekologiko konplexuagoak ere. Txertoak, kortikoideak, tratamendu antibiralak... denak ongietorriak dira, baina garrantzitsua da mikrobioak eta birusak hautemateko modua ere aldatzea, naturaren atal izanik (eta, askotan, gizaki, animalia eta landareen gorputzenak ere).

Osasun publikoa bultzatzeko, zientziaren aldetik, zeresana duten gertakariak ez dira bakarrik natur zientzietan lantzen direnak; gizarte zientziek, antropologiak, humanitateek eta filosofiak egindako ekarpena ere beharrezkoa da. Jendearen bizi baldintzak (determinatzaile sozialak) eta naturaren egoera orokorrak (ingurumenezko determinatzaileak) eragina dute osasunean.

Medikuntzak gizartearekin duen erlazioa ez datza huts-hutsean sendatzeko gaitasunean, botere ekonomiko eta politikotzela du. Arau sozialek (maskara erabiltzeko betebeharra, edo akaso laster txertoak jartzekoa, mugikorren bidezko kontrolak, etxeko konfinamendua...), neurri batean, birusekin eta beste mikrobioekin dagoen harremana artikulatzen dutela ulertu behar da.

Osasuna maila indibidual eta orokorrean

Osasunaren inguruko ikuspegi naturalistek zientziaren irudi deskribatzailea defendatzen dute eta ez normatiboa, zientzia ez delako balioetan oinarritzen ezagutza objektiboa eskuratzeko. Ideia horren oinarrian, osotasun independente gisako naturaren irudikapena dago. Antropozeno aroko zientziak, aldiz, beste irudi bat eskatzen du, sistema gehienak aldi berean direlako naturalak eta sozialak, eta balioekin zerikusia duten galderak etengabe planteatzen direlako, batez ere zer eta nola ikertu behar den erabakitzeko orduan, eta ezagutza diziplinartekoa izatea behar delako (Inkpen eta DesRoches 2019). Era berean, garai honetako zientzia erlazionala da, erronka nagusia bizidunen arteko eta ingurumenarekiko erlazioek sortzen dituzten fenomenoak ulertzea delako. Eredu erlazionalak galderak eraldatu egiten ditu, eta, izakien ezaugarri esentzialak

edo berezkoak ikertzeaz gain, euren arteko erlazioak nabarmentzen ditu. Ikuspegi berri horretatik, osasuna ez da soilik indibiduala; interdependentzia konplexuak nabarmentzen dira maila anitzeko entitate ezberdinen artean, eta horiek guztiak zerikusia dute osasunean.

Donna Haraway eta Bruno Latour antropologoen modu ezberdinetan azpimarratu dute interdependentzia erlazio horien garrantzia (Haraway eta Segarra 2020). Espazioan gertatzen dira, dena estu konektatuta dagoelako, eta baita denboran ere. Aurretik bizi izan diren guztiekin dagoen loturaz jabetzeko ahalegina egiten dute, ez ginatkeela hemen biziko aurreko bizidunak ez balira hemen izan eta ingurumen osoa aldatu ez balute. Euren esanetan: lurreko kideak gara (*terrestrians*), eta Lurrean lur hartu beharra dugu (Latour eta Weibel 2020). Lurreko kide moduan bizitzeak hilkortasunaren hausnarketa sakona eskatzen du, gainera. Gizakiaren bizitza, landare eta animaliena bezala, gorputzean bizi diren mikrobioek baldintzatzen dutenez, Harawayk azpimarratzen du horrek antropozentrikoa ez den zaintza eskatzen duela, Lur planetaren zaintzaren beharra (ekologia hitzak adierazten duen bezala: etxea zaintzea), indibiduen zaintza eta beste guztiena uztartuz, izaki espezieaniztun garen honetan.

Ikuspegi holistak sor dezakeen kezka izan daiteke ea indibiduoengan errotutako ardura filosofikoa guztiz desagertuko den. Riechmannek (2018) esaten du, ontologikoki osotasunaren garrantzia azpimarratu behar bada ere, balioen mailan bizidun indibidualak aintzat hartu behar direla. Biziarekin lotutako balioek dimentsio indibidual murriztezina dute, pertsona gaixotzen denean subjektiboki nabarmentzen dira; baina baita globala ere, Lurreko bizidun guztien balioekin edo osasunarekin lotua.

Garai honetako zientzia erlazonala da, erronka nagusia bizidunen arteko eta ingurumenarekiko erlazioek sortzen dituzten fenomenoak ulertzea delako

Interdependentzia itzel horrek medikuntzaren alderdi baztuetan ere sortu du kezka, eta gero eta zabalduago dago Lurreko izaki guztien –gizaki, animalia zein landare– osasunaz kezkatuko den ikuspegi bat garatzearen aldarrikapena, ‘osasun bakarra’ edo ‘osasun planetarioa’ deritzen ekimen ezberdinen bidez (Lerner 2019).

Komeni da ardura eta lan filosofikoak bideratzea gizakiaren erlaziozko burujabetza ekologiko hori zertan datzan ulertze-
ra, eta hortik ondorioztatzen diren lezioak praktikan jartzera. Horien artean nagusia da gerra ez dela planteatu behar mikrobioen aurka, ez maila indibidualan ez kolektiboan, baizik eta prekaritatea areagotu dezaketen neurri politikoen aurka.

Bide horretatik, balio indibidualak eta kolektiboak uztartzen dira osasuna aztertzean. Orain arte osasunaren inguruko eztabaida filosofikoak ikuspegi indibidual batetik garatu dira. Azaldu dugunez, aldiz, gaitz infekziosoen erlazioak ere kontuan hartzeko beharra mahaigaineratzen dute. Izan ere, zooma urrundu eta organismoek ingurumenarekin eta beste izaki bizidun edo biziekin dituzten erlazioek ere baldintzatzen dute osasuna eta gaixotasuna.

Garai bateko medikuntzak ulertzen du organismoak berezko indarra duela sendatzeko, *vis medicatrix naturae* delakoa, eta horren mende egin behar duela lan. Aldiz, medikuntza zientifikoaren ezaugarri nagusia prozesuaren esku-hartzea da, teknika ugarien (botikak, kirurgiak, bizimolde aldaketak) bitartekotzaren bidez. Gaur egun, eztabaidaren muinean, ingurumenaren eta beste izakien eragina dago. Emergentzia garai honetan, osasuna zaintzea ez da hainbeste okerrerako prestatzea (pandemiaren emergentziari erantzunak planteatu behar bazaizkio ere), baizik eta elkarrekin bizitzeak eta etorkizun partekatuak planteatzen dituzten ondorioak zein diren ohartu eta ikastea (Brives 2020). Canguilhem (1982) filosofoaren esanetan, normatibitate bitala zer den ezin da normaltasunaren kontra azaldu. Krisi kontzeptuak garrantzi berezia du osasunaren gaineko bere ikuspegian, uste baitu gaixotasunak egonkortasuna edo ‘homeostasia’ apurtzen duenean

ahal dela gero berria eraiki, normatibitate edo osasun egoera berria ezarriz, gaitasunen arabera eratzen den ingurumenarekiko erlazio berri batean. Aipatu diren medikuntzaren hiru alderdietan behar dira ahaleginak: bizimodu osasuntsuaren bitartez gorputza zaintzean, baliabide teknikoan laguntzan eta ingurumenaren eta bizitza komunitarioaren arduraren.

Ondorioak

Olga Tokarczuk idazleak hasierako aipuan dioen bezala, gaitzak erakutsi digu izaki gaixobera eta zaurgarriak garela eta, era berean, beste izakiekin elkaturik bizi garela. Bestalde, birusak, eta orokorrean mikrobioak, etsai moduan ulertu dira, baina egiten duten kaltea gizakiaren bizimodu sozialarekin eta ingurumenarekin dituzten erlazioekin loturik ulertzea komeni zaigu. Gizakion izaera naturari lotua da, eta naturak berak gizartearen eragina du. Biologiak eta medikuntzak hori kontuan izan behar dute, bereziki pandemian, konfinamenduan eta ondorio sozialetan pentsatzeko orduan. Horren orroigarriak behar dira, eta ez metafora belikoak.

Gizakiak badu mundua baloratzeko eta egoera batzuk beste batzuen aurrean hobetsi ahal izateko gaitasuna. Baldin eta burujabetza maila askotan gertatzen diren erlazioen arteko autoantolakuntzan sortzen den erregulazioa bada –eta osasuna hori ere bada–, badago horrelako dinamikarik natura edo planeta mailan? Canguilhemek zioen osasuna organoen isiltasunean bizitzea dela (Lericheren esanetan), eta ez dela ezagutzen galtzen den arte. Horrela bada, pandemia honek natura mailako krisialdi sakona erakutsi du. 🌿

Aipamenak

Ikerketa hau egiteko izan diren diru-laguntzei esker ona: Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Taldeei Laguntza [IT 1228-19] eta Espainiako MICINN Ministerioak *OUTONOMY* Ikerketa proiektuari [PID2019-104576GB-I00].

Bibliografia

- Boorse, C. (1977): 'Health as a Theoretical Concept', *Philosophy of Science* 44(4), 542-573.
- Brives, C. (2020): 'The politics of Amphibiosis: the war against viruses will not take place', *Somatosphere. Science, Medicine, and Anthropology*, 2020-04-19.
- Brives, C.; Pourraz, J. (2020): 'Phage therapy as a potential solution in the fight against AMR: obstacles and possible futures', *Palgrave Communications* 6(1), 1-11.
- Canguilhem, G. (1982): *Lo normal y lo patológico*, Madril, Siglo XXI.
- Cooper, R. (2002): 'Disease', *Studies in History and Philosophy of Science Part C: Studies in History and Philosophy of Biological and Biomedical Sciences* 33(2), 263-282.
- Etxeberría, A. (2020): 'Regulation, milieu, and norms: Georges Canguilhem's individual organisms as relations', in Pierre-Olivier Methot eta Jonathan Sholl (argk.): *Vital Norms. Canguilhem's The Normal and the Pathological in the Twenty-First Century*, Paris, Hermann, 291-328.
- Galarraga Aiestaran, A. (2020): 'Elkarrizketa: Amaia Bacigalupe de la Hera', *Elhuyar* 339, 36-41.
- Haraway, D.; Segarra, M. (2020): *El mundo que necesitamos*, Bartzelona, Icaria.
- Harper, K.; Armelagos, G. (2010): 'The Changing Disease-Scape in the Third Epidemiological Transition', *International Journal of Environmental Research and Public Health* 7, 675-697.
- Hempel, C. G. (1973): *Filosofía de la Ciencia Natural*, Madril, Alianza Universidad.
- Inkpen, S. A.; DesRoches, C. T. (2019): 'Revamping the Image of Science for the Anthropocene', *Philosophy, Theory and Practice in Biology* 11(3).
- Latour, B.; Weibel, P. (argk.) (2020): *Critical Zones. The Science and Politics of Landing on Earth*, Cambridge, MIT Press.
- Lerner, H. (2019): 'A critical analysis of definitions of health as balance in a One Health perspective', *Medicine, Health Care and Philosophy* 22(3), 453-461.

- Lewontin, R.; Levins, R. (2007): 'The Return of Old Diseases and the Appearance of New Ones', in *Biology Under the Influence: Dialectical Essays on Ecology, Agriculture, and Health*, New York, Monthly Review Press, 17-22.
- López-Goñi, I. (2020): 'COVID-19: ¿Cómo responde la ciencia al desafío de un virus silencioso y una pandemia en plena aceleración?', *The Conversation*, 27-07-2020.
- McKeown, T. (1990): *Los orígenes de las enfermedades humanas*, Barcelona, Crítica.
- Medawar, P.; Medawar, J. S. (1983): *Aristotle to Zoos. A Philosophical Dictionary of Biology*, Cambridge, Harvard University Press.
- O'Malley, M. (2014): *Philosophy of Microbiology*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Porter, R. (1999): *The Greatest Benefit to Mankind. A Medical History of Humanity*, New York eta Londres, W. W. Norton & Company.
- Preciado, P. B. (2020): 'Aprendiendo del virus', *El País*, 2020-03-28.
- Riechmann, J. (2018): 'Una utopía ética desmadrada: la intervención animalista positiva en la naturaleza', *Revista de Bioética y Derecho* 44, 19-40.
- Roy, A. (2020): 'The pandemic is a portal', *Financial Times*, 2020-04-03.
- Sariola, S.; Gilbert, S. F. (2020): 'Toward a Symbiotic Perspective on Public Health: Recognizing the Ambivalence of Microbes in the Anthropocene', *Microorganisms* 8(5).
- Tanaka, M.; Godfrey-Smith, P.; Kerr, B. (2020): 'The Dual Landscape Model of Adaptation and Niche Construction', *Philosophy of Science* 87, 478-498.
- Tokarczuk, O. (2020): 'A New World Through My Window', *The New Yorker*, 2020-04-09.
- Wessner, D. R. (2010): 'The Origins of Viruses', *Nature Education* 3(9):37.
- Whitman, W. (1855): *Leaves of Grass* ('Song of Myself', 51). Edizio ugariak.

Ekodistopia prospektiban, EHkotopia perspektiban

Joseba Azkarraga Etxagibel

*UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko
irakaslea eta ikertzailea*

Aurkikuntza pertsonal batez

Izan ohi dira betirako markatzen zaituzten bat-bateko gertaerak, baina nago aldaketa oinarritzekoak, gertatzekotan, maizago su geldoan egosi ohi direla. Halaxe gertatu zait ikergai dudan garapen-ereduarekin. Inpugnazioaren lurraldetik mugitu barik, suertatu zitzaidan bidaia kognitibo funtsezkoa egitea: ikuspegi kritiko-eraikitzailetik labaindu nintzen, geldo baina geldiezin, ikuspegi tragiko-eraikitzaileira. 2005 inguruan amaitu zen bidaia. Inpresio desatseginok 2008ko krisiaren beroaldian idatzi nituen, eta 2011n argitaratu ziren *Euskal harriak* liburuan.¹

Arrasateko kooperatibetan, kooperatibekin eta kooperatibentzat ikertzen ari nintzela jabetu nintzen, funtsean, kolapsoa ez zela zerbait gertagarria, ezta arrisku erreala ere. Destino saihestezina zen (gauzatu ezik inondik ikusten ez zen aldaketa berehalakoa eta erradikala).² Jabetu nintzen txosten zientifiko lehor ugaritan murgildu ostean, begiak erre ondoren datuekin eta datuon bilakaera historikoarekin, bereziki energiaz, klimaz eta ekosistemez.³ Nabarmendu zitzaidan oso luze iraun lezakeen konplexutasun galtze (kolapso) nabarmenera gindoazela. Tokatzen zen den-dena pentsatzea parametro berriotatik.

Bidaia kognitibo-intelektualak emozio sorta konplexua eratu zuen bere bueltan, hori ere ezagutzaren parte da. Tartean dolua, dagoeneko lekurik ez zegoelako emantzipazio egitasmo baikor eta ideal baterako. Alegia, auziak dagoeneko ez duelako soluziorik zentzu gogorrean. Muga biofisikoen aurkako danbatekoa edozein kasutan izango da gogorra oso (hortik ikuspegi tragikoa).

Naufragio batean gaude, gizartea antolatzeke modu bat hondoratzen ari da. Talka ezin biolentoagoa gertatzen ari da mugatua den biosferaren eta etengabe haztea berezkoa duen metabolismo sozioekonomikoaren artean. Lau hamarraldi daramatzagu gainezkatzeko ekologikoko egoeran, gure posibilitate ekologikoen ginetik bizitzen.⁴

Lau koloso dira kolapsoaren eragile: ekonomia/finantzak, energia/materialak, klima eta bioaniztasuna.⁵ Laukoteko bakoitzak bere kabuz du ezagutzen dugun mundua zartzeko ahala, baina beste zerbait da ikusgai dagoena: zertarako gai diren *elkarrekin* eta, batez ere, *elkar elikatuz*. Zertakoak gertatzen ari dira dagoeneko, ez da profetia bat, baina efektuak askoz nabarmenagoak izango dira datozen urte eta hamarkadetan.

Aurkikuntza pertsonalak ez du meritu gehiegirik. Pronostikoak bete dira, besterik ez.⁶ Ñabardurak ñabardura, katastrofikoak da azken hamarkadetako erreformismoaren balantzea. Anputazioei tiritak jartzeko politikekin, kontua ez da galga jarri ez zaionik (auto)suntsipenari; kontua da azeleratu egin dela, amildegirako bidea azkar eta ziztuaz egiteko irrika batek sakatuta balego bezala kapitalista jiteko zibilizazioa. Nekez txikiagotuko da biosferaren gaineko presioa, txikiagotzen ez bada ekonomiaren eskala fisiko-materiala. Datu finak ditugu gertatzen ari denaz, baina ezin finago segitzen dugu kapitalaren beharrak asetzen dituen antolamenduetarekin.⁷

2005 hartan nire baitan gauzatu zen mugimenduaz mintzo naiz nagusiki zera aitortzeko: nahita ere, ezingo nuke mundua irakurri kapitalaren eta biosferaren arteko talka ardatz nagusi hartzen duen *software* interpretatibotik kanpo.

Urteotako gertakari ugarik baieztatu eta sofistikatu egin didate marko hori, baina muga ere izan daiteke. Itzulinguruka ibili barik: inork ez luke, beste barik, kolapsoaren hipotesia sinetsi behar. Orakulu oro baztertuz –budistek esan ohi duten bezala, «Buda aurkitzen baduzu, akaba ezazu»–, herritar orok har dezala tartea datuak aztertzeke, eta bakoitzaren esku aurkitutakoari egoki zaion kolapso bezalako kalifikatzaile hitsa.

Pandemiaren ondoan eta hondoan

Jakina da pandemiak duen hurkotasuna aipatutako markoaren: izurritea, azken buruan, habitat naturalak suntsitzearen ondorio da, bioaniztasuna masiboki galtzearen kolosoa ate joka.⁸ Leziorik garrantzitsuena behar luke: bioaniztasuna zaintzea ez da (soilik) «salba ditzagun baleak» oihukatzea, inorentzako aldarri morala bailitzan; aberastasun handiko ekosistemak *gure* txertorik onenak dira.⁹

Birusak ez du kolapsorik inauguratu, azeleratu bai. Gauzak azkartu, anplifikatu eta gaiztotu ditu. Batetik, birusak arnasbideak moztu dizkio aurrez oso gaixo zegoen ekonomiarri. Bestetik, izurritearekin hondatze ekologikoa heldu da gure gorputz estresatuen materialtasun intimoa zultzera, eskala handian. Narriadura ekologikoa haragitu egin zaigu, hezur-haragitan egiaztatuz garapenkeria. Beharbada inoiz ez bezala nabarmendu da –munduko populazio erdia itxialdian– garapen eredu jakin batek dakarkigun arrisku itzela, masiboa, hiltzailea. Eta pandemiak hautsi du kognitiboa ere bazen burbuila, jende gehiago instalatuz sistemaren hauskortasuna seinalatzen duen marko kognitiboan: «Titanic hau hondora daiteke». Hamarkadak eman ditugu esanez

Naufragio batean gaude, gizartea antolatzeke modu bat hondoratzen ari da. Lau koloso dira kolapsoaren eragile: ekonomia/finantzak, energia/materialak, klima eta bioaniztasuna

norabidez aldatu behar zela, bizi baldintzak berrikusi, gehienetan guztiok buruarekin baietz egin eta atoan bestaldera begiratu. Erakundeek klimaren larrialdia deklaratu bai, baina politika publikoak bere horretan, eredu produktiboa ere bai, herritarron bizierak beste horrenbeste. Finean, hementxe dugu (eko)distopia, gehiagora joango den kolapso ekologiko-sozialaren ohararazpen garbia.

Pandemiak aurrez aurre jarri gaitu mende honetako dilema zinez korapilatsuarekin: kapitalismoaren geldialdiak sufrimendua tonaka barreiatu(ko) du, baina bere jardura osasuntsuak –hazkunde esponentzial etengabearen logika gidari– lotzen gaitu are sufrimendu handiagoa dakarren bide ekozida, genozida eta suizidara (hurrenez hurren). Kapitalismoa da distopiarik handiena, bizitzaren kontrako inoizko eraso antolaturik handiena.¹⁰

Pandemiaren ondoan ondorioak daude: osasun krisia, zerbizu publikoen garrantzia, telebizi, ekonomiaren suntsipena, zaintza lanen garrantzia, behekoen hauskortasun handiagoa, ezberdintasunen areagotzea, genero arrakalak... Hondoan dago, aldiz, hondatze ekologikoa eta gure izaera eko-menpeko (eta elkar-menpeko) erradikala. Hondoan dago disputatu beharreko garrantzitsuena: bataila ez da patogenoaren aurka, zibilizazio patriaren aurka baizik. Auzia ez da biomedikoa; politiko-ekonomiko-kulturala da. «Arazoa ez da zer egingo dugun birusarekin, baizik eta zer egingo dugun gure buruekin», zioen Riechmannek.¹¹ Ondorioak ez, kausak. Inoizko analisirik materialistenak behar ditugu (materialismo historikoa eta biofisikoa): pandemiak eta bere inpaktuak jatorria dute garapen kapitalistan eta berorrek azpiegitura ekologikoa suntsitzeko duen joera naturalean. Besterik da hedabide sistemikoez nola desitxuratu duten hondoko auzia, otzanduz pertzepzio potentzialki haustura zaleak.¹²

Hondoan dugu, beraz, ekologia ez dela aldarrikapen bat gehiago, ez dela pentsioak eta genero politikak aipatu ostean zerrendan erantsi beharreko hurrengoa. Gainontzeko guztiaren premisa da, beste ezer baino lehenago dator,

aurrebaldintza hori gabe ezer ez baita. Bistakoa da oso, baina modernitate industrial garailearen akats epistemologiko eta praktikorik larriena izango da: bistatik galdu du ehunka mila urtetan egia hautsezina zena gizaki aurreindustrialarentzat, giza komunitateak ez direla hutsarte ekologikoan bizi, ez dutela lebitatzen, ezin direla ulertu sistema naturaletatik bereizirik. Oinarri biofisikorik gabeko gizartea nola gizakia ameskeria antropozentrikoa baino ez direla. Eko-analfabetismo zakar hori areagotu baino ez da egin espazio birtualarekin, puztu baita deskonexioaren ilusioa (mundu urbano-industrialak landa eremuari gaina hartu zionean bezalaxe). Gure antropozentrismoa absurdoraino eramanez, heldu gara pentsatzera posible dela mundurik gabeko gizakia.

Finean, gau eta egun egon beharko genuke biodibertsitatearen garrantziaz hitz egiten, obsesioz, biziraupen-senak soilik eman dezakeen irrikaz. Baina ekosistemen suntsipena ez gelditzeaz gain, azeleratu egin da. Palmondo-laboreak ez dira gelditu Indonesian eta Malaysian; eta Amazonian deforestazioak errekor berriak ezarri ditu: 2020ko apirilean bertan, mundu erdia itxialdian zegoenean, %63 handitu da deforestazio-tasa aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.¹³ Pandemiaren ondokoak erdigunean, hondoa lauso dugu. Enegarrenez.¹⁴

Tokatzen da prospektiba lantzea gauzak horrela daudela; alegia, baldintza politiko eta kulturalak mingarriki urruti daudela ekologiaren ikuspegitik beharrezkoa litzatekeen zaintzatik.

Prospektiba traumatikoa

Hiru modu egon daitezke deskribatzeko non gauden. Bat, bizi duguna «oso larria da»: osasun arazoaz gain, ekonomia produktiboarentzat egundoko kolpea izango da pandemia. Bi, «oso-oso larria da»: ekonomia produktiboaren krisiak eztandaraziko du dagoeneko lehertzeaz zen burbuila finantzarioa, asko handituz krisi ekonomikoaren uhin hedakorra. Hiru, «oso-oso-oso larria da», aurreko biei (ekonomia erreala eta finantzak) gehitu behar zaizkielako gainontzeko hiru

kolosoak (energia, klima eta bioaniztasuna), eta, adi honi, denen arteko elkarreraginak. Gure hipotesia hiru aldiz larria da.

Hasia da eliteen ahalegina, beste behin, baliabide publikoak esku pribatuetara masiboki mugiarazteko, gehiengo sozialak gehiago prekarizatuz. Erdi epeak (prospektibak), ordea, askoz panorama kezkarriagoa dakarkigu.

Batetik, ohartarazi baitigute pandemia gehiago eta larriagoak etorriko direla.¹⁵ Bestetik, gero eta ozenagoa da energia beheraldiaren burrunba.¹⁶ Balio-kate globalak modu estruktural eta are sendoagoan moztuko ditu, auzitan jarriz globalizazioaren muina den mugikortasun horizontal masiboa (pertsonea eta merkantzia). Kapitalismo fosilistaren amaierak ahalmena du eragiteko desgloalizazio askoz harroagoa, txiki uzteraino pandemiak ekarri duen uzkurdua.¹⁷

Arrasateko kooperatibetan –kooperatibekin, kooperatibentzat– nabilen garaian nabarmendu zitzaizkidan betaurerako

Prospektibak aspalditik
dio datorrenak erraz
gaindituko dituela
orain arteko lurrikarak.
Laukote kolosalaren
ostikadak pilatzen
joango zaizkigu, eta
horrek instalatuko
gaitu larrialdi egoera
iraunkorren

bifokalen garrantzia. Gerturako kristaletatik garbi ikusten zen, ñabardurak ñabardura, enpresa eta egitura produktiboen nazioarteratzea zela logika sistemikoak inposatzen zuena (lehiakorak izatekotan, ziraunaren maila etiko-moraleko eragilez osaturiko merkatu globalean). Urrutirako kristaletik, ordea, ekonomia globalarekiko irekiegi egotea zen hauskortasunaren eta zaugarritasunaren iturri, luzerako izango ez zen energia

ugari eta merkean oinarrituriko eredia baitzen.¹⁸ Urrutirago begiratuta, barreiatuta baino hobe bilduta. Pandemiak, desgloalizazio desordenatua ekarriz, berretsi du lurraldeek behar dutela maskarak eta arnagailuak *hemen* fabrikatzeko ahalmena; esanguratsua izan da Macron bezalako

hiperliberala ikustea Frantziako enpresei eskatuz ekoizpen azpiegiturak berriro etxera ekartzeko (diru-laguntza publikoak jaso nahi izanez gero).

Kapitalismo fosilistaren amaierak (gizadiaren historian inflexio puntu handia) are nabarmenago utziko du lurralde orok arlo estrategikoetan beharko duen burujabetza edo autohornikuntza ahalmena (energia eta elikadura arloetan, esaterako). Alegia, desglobalizatzea behar dugu, modu ordenatuan: behar ditugu indartu hornikuntza-, ekoizpen-, balio- eta merkatu-kate gertuagokoak, eta, beraz, inpaktu ekologiko gutxiagokoak. Erresilientzia, hein handi batean, kate globalekiko deskonexioan dago. Segurtasuna bermatu nahi izanez gero, jendartearen birtokikotzea da programa oinarrizkoa, ahaldunduz lurraldeak, eskala txikiagoan ekoitziz funtsezkoa zaiguna. Autoritarismo neoliberalari kontrajarriz herri-burujabetza, menpekotasun globalari kontrajarriz tokiko elkarrekiko menpekotasuna.¹⁹

Beraz, prospektibak aspalditik dio datorrenak erraz gaindituko dituela orain arteko lurrikarak.²⁰ Laukote kolosalaren ostikadak pilatzen joango zaizkigu, eta horrek instalatuko gaitu larrialdi egoera iraunkorrean, uzkurtze mugimendu handian arlo funtsezkoetan: energia eta materialak, ekoizpena, kontsumoa, mugikortasuna... Zerra-hortzaren irudiak balio lezake etorkizuna irudikatzeko (halaxe genioen *Euskal harriak* lanean). Kolpe bakoitzak –izan ekonomia, energia, klima eta bioaniztasuna, edo euron arteko elkarreagina– jendartearen atal/funtzio bat higatu edo desegingo luke. Ondoren, nolabaiteko susperraldia letorke, baina heldu barik lehenagoko egoerara. Kolpez kolpe beherantz, beharbada susperraldi txikiekin gora eginez, baina beherako bide orokor luzean. Noizbait giza sistemak meseta moduko batean instalatuko direlakoan, nolabaiteko egonkortasunean.²¹

Emankorra zait traumaren ideia, Robert Stolorow psikoa-nalistak aztertu duen bidetik.²² Trauma emozionala gertatzen da *eguneroko bizitzaren absolutismoa* hausten denean. Alegia, eguneroko bizitza bete ohi dugu zalantzarik gabeko

baieztapenez: lagun batek agurtu gaitu «bihar deituko dizut» esanez, edo aita batek alabatxoari esan dio «gaur iluntzean ikusiko zaitut». Esaldi horietan badago halako errealismo eta baikortasun inozo bat, dio psikoanalistak, munduan funtzionatzea ahalbidetzen diguna, mundua bizi dezakegularako zerbait egonkorra eta aurreikusgarria bailitzan. Trauma gertatzen da birrinduta geratu denean absolutismo hori; inozentziaren galera katastrofiko gertatu ohi da orduan, erabat aldatuz subjektuaren kokapena munduan. Nabarmentzen da mundua, izan, ez dela (hain) segurua, ez aurreikusgarria, baizik eta kontingentea eta gorabeheratsua.

Burbuila kognitiboa hautsi zaigu: hazkundearen absolutismoa eten da. Gero eta gehiago dira etorkizuna dagoeneko irudikatzen ez dutenak ohiko horren (hazkundearen) luzapen betiereko gisa. Gero eta nabarmenagoa da iraungitzen ari dela ekoizpenaren eta kontsumoaren *Belle Époque* era (gogoratu azkenari Lehen Mundu Gerrak jarraitu ziola). Zerra-hortz dinamikaren eraginez, egoera traumatiko eta postraumatikoen hurrenkera datorkigu (ikus behar geopolitikaren plaka tektonikoak zein intentsitateko gatazketarantz mugitzen diren).

Koronabirusak badu alderdi on bat, hainbatek azpimarratu du: esperientzia kolektibo traumatiko gisa, entrenamendua da datorkigun etorkizunerako. Entsegu moduko bat da. Hazkunde-osteko partiturarekin trebatzeko berotze ariketa, garapen-ereduaren *requiem* osoa interpretatzeko atarikoa. Pandemia oin-ohartxo bat da idatzi askoz luzeagoan.

Dekadentzia eta deskonposizio egoerak luzatzen direnean (estres iraunkorreko egoerak), biolentzia nabarmendu ohi da hanka bikoongan, agertuz kanpora jaurtitako oldarkortasun gisa ala barrura zuzendutako depresioa modura (arantzak barrurantz itzuliak dituen sagarroiak, Sarrionandiari hitzak lapurtuz). Traumak izan daitezten ahalik eta leunenak, al bait baketsuenak, beharko ditugu elkartasun eta enpatia tonak, jendartegintza eramanez honako hiruko santura: (bir)banatu, sozializatu, desmerkantilizatu.²³

Gauza adostua da konplexutasunaren galtzea ez dela une berean eta berdin gertatuko munduko txoko guztietan, auzoka joango dela nolabait; zein baliabide duen lurralde bakoitzak, noiz nola heldu dion ganorazko trantsizio ekosozialari, hiruko santua zenbateraino inplementatu den, eta abar. Euskal lurraldeak oro har ongi kokatuta egon dira «modernitatearen balioetan», oasitik urruti baina emaitza on samarrekin hainbat adierazletan (BPGa, ongizatea, genero politikak...). Ordea, kokapena ez da batere ona Antropozenoaren funtsezko gaikoetan: aztarna ekologikoa, energia/klima binomioa, bioaniztasuna, lurraren egoera, elikadura edo ekonomia zirkularra.²⁴ Finean, gure garapen-eredua eta bizi-maila altua bete-betean oinarritzen dira energia fluxu ugari eta merkeari esker osatu den industrian, teknologian eta zerbitzuetan.²⁵ Hobe genuke autokontzeptu idealizatuak desinstalatzeari.

Alternatiba ekosozial irabazlea

Kapitalismoak noski asimila dezakeela krisi sistemiko eta askotarikoa, jakina berreraiki dezakeela bere burua askoz bertsio autoritarioago, basatiago eta distopikoagoan.²⁶ Erraz ikus liteke historiaren bihurtune distopiko hori, gutako askoren beldurrik handiena da, baina inon ez dago halabehar gisa idatzita. Ez gaude distopiarako kimikoki prestatuta. Bestalde, sarri saihestezinak ez du biderik egiten, gaina hartu diolako ezinezkoak edo inork espero ez zuenak.

Kolapsatzen ari garela esatea ez da fatalismoa besarkatzea. Airean jartzen ari dira –eta are gehiago jarriko dira– orain arteko baldintza material eta kulturalak, eta inoizko irekien dago piezen hurrengo kristalizatzea. Auzi irekia da jendar-teak zer forma hartuko duen, aspaldiko irekien dago etorkizuna, gutxienez teorian.²⁷ Tanuroren hitzak erabiltzearen, dagoeneko beranduegi da ezkorrak izateko.²⁸

Traumak askoz leunagoak izango dira asmatuz gero *eman-tzipazio sinplifikatzailea* gauzatzen. ‘Gehiago’ nahitaez desinstalatu behar da programa emantzipatzailearen kategoria

zentral gisa, betiere justizian oinarrituriko emantzipazioaz ari bagara (justizia bere adiera guztietan: soziala, generokoa, nazioartekoa, jaio gabekoekin eta beste bizidun batzuekin). Esan beharrik ez dago zenbateraino den berria 'gutxiagora eta hohera' uztarri berean jartzearen aldeko egitasmo emantzipatzailea, historiako hoherako jauzi guztiak izan baitira gehiagorako jauziak.²⁹ Aurreko mendeko pentsalari profetikoenetakoa izan zen Walter Benjaminek 1940an aurreratu zuen iraultza akaso ez zela progresuaren, garapenaren eta modernizazioaren trenera igotzea, Marxek iradoki bezala, ezpada tren horren larrialdi frenotik tira egitea. Automata hutsa baita makinista, trena ziztuan doa, ezin da gelditu, ezta norabidez aldatu ere. Abiadurak janda, errailetatik atera beste destinorik ez du.³⁰

Hazkundera hartzen duenak helburu gisa baliabide gero eta eskasagoko aroan, bestea akabatu beharko du, edo kolapso zakarrera eroan. Biolentzia estrukturala asko handitzeko gaitasuna beharko litzateke egitasmo horretarako (labainduz energia eta aberastasuna klase sozialetik klase sozialera herrialdearen barruan, eta herrialdetik herrialdera geopolitikaren alorrean). Hazkunderaren egitasmoak zuzen eroango gintuzke kolapsoaren azeleraziora, lau kolosoen areagotzera, eta, bereziki klimaren aldaketa kaotikoaren hipotesitik ikusita, autoiraungitzearen aukera errealerak.³¹ Ez dirudi segurtasun emaile denik. Gogoratu dezagun hori, azpimarratzen dugun bakoitzean zenbat eta zein handiak diren sinplifikatze planifikatua antolatzeke eragozpenak.³²

Bestela esanda, dilema ez da Hayek edo Keynes, nork gidatuko hazkundera.³³ Eta dilema denean desazkunde ondo antolatua ala kaotikoa, dagoeneko emantzipazioa ezin da planteatu ideal utopiko prometeiko gisa.³⁴ Umila da, hala-beharrez, programa emantzipatzailea, eta irudi luke zerikusia duela jendea mobilizatzearekin Churchillrek 1940an britainiarrei esandako hitzekin, aliatuek nazien aurkako batailak galtzen ari zirenean: «I have nothing to offer but blood, toil, tears and sweat».³⁵ Ondo kolapsatzean datza gakoa, esango

luke Riechmannek. Kolapsoa ez bihurtzea basakeria. Eta hala izanik ere, ez da manifestu lakrimogeno bat, ez da jarrera negartia, ez da fatalismoa, are gutxiago nihilismoa.

Amaitu zen hazkundearen normaltasuna, eta kontua da normaltasun berriak ekarriko ote duen alternatiba emantzipatzailea ala kapitalismo are basatiagoa. *Nork noiz zenbat botere lo(r)tzen duen*. Desafioa da Benjamin handiaren intuizioa bihurtzea mende honetarako imajinario lotesle, estrategia arrakastatsu eta programa egingarri. Alde handia suma daiteke zertxobait hobeto ala zertxobait okerrago kolapsa-

tzearen artean (giza sufrimenduaren ikuspegitik eta, oro har, bizitzari eusteko gaitasunetik begiratuta). Alde handia dago bizitza zailaren –ba al dago errazik?– eta txarraren artean.

Batek pentsa lezake emantzipazio sinplifikatzailea ezinduta dagoela hegemonia eskuratzeko, zentzu komun bihurtzeko, gehiengoari ez diola sekula amets bustirik sortuko. Zelan artikulatu gehiengoak bizitza gogorraren alde, bizitza oso txarrak saihestearren? Zailtasunak zailtasun, ez dago inon idatzita gehiengoak erotizatu ez daitezkeenik justizia soziala eta nahikotasuna ardatz hartuta (bizitza ona, den-denontzat, muga biofisikoen barruan), saihestuz horrela basakeria.

Auzi konplexua bezain estrategikoa da bide horretarako zein narratiba eta praxi eraiki. Orriotan soilik lau lerro, hiru kontzeptuz: eliteak (aurkariaz), metabolismoa (helburuaz), eta estrategia bitarikoa (bideaz).

Eliteak desjabetu

Kalte ekologiko gehien sortzen dutenak izateaz gain,³⁶ azken urteotan hainbat autorek azpimarratu dute joera esanguratsua:

Amaitu zen hazkundearen normaltasuna, eta kontua da normaltasun berriak ekarriko ote duen alternatiba emantzipatzailea ala kapitalismo are basatiagoa

eliteak deslotzen ari dira gainontzeko hilkorrongandik. Bruno Latour frantsesa izan da berriki ikuspegi hori plazaratu duena: «Laurogeiko urteetatik, klase gidariak dagoeneko ez dute gidatzea asmo, baizik eta salbu jartzea mundutik kanpo». ³⁷ Alegia, eliteak *malthusiar* jarri zaizkigu, ulertu dute ez dagoela guztiontzako tokirik (toki materialki erosorik), eta beraien ongizatea, dirutza eta ondasunak salbatzeko zereginan ari dira.

Berrartu dezagun *Titanic*-en metafora higitua: klase gidariak ulertzen ari dira naufragioa saihestezina dela; salbamendu txalupez jabetzen ari dira eta orkestrari eskatu diote jotzen segi deza-tela gauaz goxatzeko, gehiegizko asaldurak gainontzeko klaseak erne jarri aurretik. ³⁸

Aspalditik da gakoa goikoak nola desjabetu, atsekabea orientatuz gorantz, behekoak jarri beharrean beheragokoei begira. Horixe litzateke gako funtsezkoa sinplifikazioaren lehen estadioan; pauso ezinbestekoa, ondoren autodesjabetzen joateko (gehiégizko aztarna ekologikoa ez baita soilik aberatsenen kontua). Oligarkia korporatiboa irabazle ateraz gero, bizitza oso txarrera kondenatuko dituzte gehiengoak noski (desjabetze ez soilik ekonomikoaren bidez, baita sozial, politiko, kultural eta psikikoaren bidez ere).

Ekonomia ekologikoa gehiengoentzat segurtasun iturri bihurtzeko, besteak beste beharko da birbanaketan ardaztutako egitasmo inoizko erradikalena. Politika antioligarkiko horretan bada potentzialki mobilizatzailea den heldulekurik. ³⁹

Metabolismoa aldatzea helburu

Debatea ez da Hayek edo Keynes, hazkundera nork gidatuko, baina dagoeneko badakigu kontua ezin dela planteatu 'pobretze material' txatxu gisa. Azken ikerketen emaitzak argiak bezain latzak dira: jendarte aberatsetan, diru-sarrera gutxiagoko familiek –hilero mila eurotik beherakoek– inpaktu ekologiko txikiagoa dute, baina apenas dagoen alde-rik beharko litzatekeen planeta kopuruari dagokionez (2,15

planeta, euren kontsumoaren inpaktua orokortuko balitz). Besteak beste, herri sektore horietan ere ez dagoelako mugikortasun eta elikadura jasangarririk. Kontuak garrantzi handia du: pentsa zitekeenaren kontra, pobrezia –pobretzea– ez da iraunkortasun ekologikoaren berme, *aldatzen ez bada erregimen metabolikoa*.⁴⁰

Badakigu zer egin, baina boterea behar da azkar transformatzeko jendarteko errail metabolikoak: ekonomia birtokiratu, arinduz eredu globalarekiko menpekotasunak; jarduera ekonomikoak berrantolatu, bideratuz giza premia funtsezkoak asetzera (ez etekin pribatura); funtsezko arloak sozializatu edo nazionalizatu; zerbitzu publikoak zaindu; planifikazioaren logika demokratikoa berreskuratu (errazionamenduak beharko dira); berriztagarrien aldeko politika ausartak; zerga-politika ekologikoak; iraultza agroekologikoa sustatu; eta abar. Badakigu zer egin, bai egin beharreko orokorrari dagokionez (sinplifikazio sistemiko ordenatua), bai horren itzulpen praktiko-politikoari dagokionez.⁴¹ Gaitasun koertzitibo handia bildu behar, gaina hartzeko kapitalaren botere –finantzario, industrial, politiko, militar, semiotiko, psikiko– erraldoiari. Krisi ekologikoaren ukatzaile biribila den eskuin muturra aparte, ukazio molde finagoa da areio nagusia: berdez jantzi nahi lukeen kapitalismoa (bertsio neoliberal edo sozialdemokratan).⁴²

Errail metabolikoak aldatzearekin batera, errai psiko-kulturalak aldatu behar ditugu, hankaz gora jarriz geure *desioaren norabide ultrakapitalista*: prest egon behar dugu bizitza sinpletzeko, bestela helburu jarri beharko dugu bestea akabatzea.⁴³

Kontua da segurtasuna eraikitzea jendartea argaldu bitartean, boterea dagoelako beheraldia justiziaz antolatzeko. Eta prestutasuna dagoelako elkar zaintzeko eta urritasun duin bati lotzeko. Azkar ibiliz gero (zentzu bietan, abiadura eta inteligentzia), antola daiteke txikiagorantz, gutxiagorantz eta hoherantz doan bidea, zailtasunak zailtasun. Gogoratu ez dagoela kapitalismoa baino distopia handiagorik. Alde dugu honakoa: COVID-19arekin deskubritu dugu hain aldaezin

agertzen zen ordena sozialak uste baino plastikotasun handiagoa duela. Jendartea alda daiteke, baita sakon aldatu ere, eta jendea mobiliza daiteke modu masiboan. Boterea behar.

Estrategia bitarikoa

Jendarte antolatuen logika, ala erakunde politiko-instituzionalak disputazera zuzendutako ahalegina? Dilema faltsua da. Lurraldeak eta jendarteak boteretzeko bidean, hanka biak behar ditu –elkar hauspotuz– globalizazio neo-

liberalaren antagonistarik garbiena den egitasmo subiranistak.⁴⁴ Behetik eta goitik jardun behar, nolabait.⁴⁵

Trantsizio ekologikorako praxi instituzionalari dagokionez, *Green New Deal* deiturikoa dugu proposamen pragmatiko interesgarria, estatu sozial-ekologikoa egikaritzen

Bestelako azpiegitura politiko-kulturala behar dugu, hala herrigintza komunitariorako nola politika instituzional eraldatzailerako

hasteko.⁴⁶ Bertuterik handiena du iparrorratz emankorra izan daitekeela politika instituzionalarentzat, eta helduleku on gehiengoak biltzen saiatzeko (ekonomiaren deskarbonizaziorako, enpleguak sortuz eta industrian inbertituz). Baina ia edozer sartzan da GND kontzeptuaren baitan, eta bere arriskurik handiena da gailentzea hazkunde berdearen ilusioan erori eta kapitalismo-ostea antolatzeari uko egin dion aldaera, ahaztuz gako funtsezkoa: ekologia eta kapitalismoa bateraezinak dira.⁴⁷ Halere, uneotan aukerarik pragmatikoen dirudi hazkunde-osterako bidaia izan behar lukeenari ekiteko, kolapsoa eramaten hasteko sinplifikazio sistemiko al bait justuenerantz.⁴⁸

Lehen estadio historiko honetan, euskal lurraldeetan handia da disputa politiko-ekonomikoa inbertitzen ari den energia kolektiboa (oraingoz, soilik udalgintza da erabil daitekeen eremua).⁴⁹ Nago txikiegia dela, ordea, herrigintza

komunitarioaren aldeko apustu estrategikoa. Auzolanari hautsa kendu, geure mitologiatik desinstalatu, mende berriko gakoetara ekarri eta jauzi kualitatibo eta kuantitatiboak prestatu beharko genituzke datorren aldi historikorako.

Bestelako azpiegitura politiko-kulturala behar dugu, hala herrigintza komunitariorako nola politika instituzional eraldatzailerako. Uneren batean, Euskal Herrian ere ezkertiar jatorraren dekalogoan eskubideak aldarrikatzea jarri zen besteekiko betebeharren gainetik, baina ez digu balio progresismo kultural ezkertiarrek ekarri duen eskubideen lengoaiak. Galdetu kooperatibetan, ikastoletan, euskalgintzan, autoeraketa ardatz izan duen edozein esperientziatan (praxi politiko eraldatzailean, oro har): betebeharren nozio indartsuan oinarritu dira. Kapitalismoaren proposamen antropologikoa da txakalez osaturiko ez-gizartea, eta erabat funtzionalak zaizkio eskubide indibidualen lengoia eta autointeresean oinarrituriko kultura.⁵⁰ Are, Ernest Garciak dioen moduan, krisi ekologiko egundokoan *eskubide gehiago eta baliabide gutxiago* ekuazioa problematikoa da oso.⁵¹

Estrategia bitarikoarekin –gizarte antolatuaren txalupa komunitarioak txirikordatuz instituzioetako neurriekin– nekez saihestuko da kolapsoa, ez da hori. Egitura burujabe(ago)okin erresilientziaz eta arnagunez hornituko gara. *Airbag*-ak dira. Desordena sistemiko hazkorrak harrapa gaitzala saretuta eta antolatuta, bioeskualde eskalako egitura zenbait dagoeneko finkatuta (energia eta elikadura arloan, esaterako). Bizitza zailaren eta txarraren arteko aldea –alde sekulakoa– da kontua. 🌱

Oharrak

1. *Berandu baino lehen* (2009) liburuan aurreratu nituen hainbat go-goeta, baina *Euskal harriak* (2011) saiakeran heldu nion modu sistematikoan. Gerora, lan laburragoak etorri dira euskaraz: ‘Harrigintza’ berria. Apunteak hazkunde-osteko euskal herrigintzaz’ (*Jakin* 202, 2014) eta ‘Trantsizio ekosoziala helburu: ondo bizi, denok, muga

- biofisikoen barruan' (EHU-Hegoa, 2017, <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/369>).
2. Gaurko ikuspegitik –hau da, erantsiz 2008ko krisia eta egungo izurrittea eta bere ondorioak–, esan liteke dagoeneko hasia dela kolapsoaren prozesu historikoa (2015eko Parisko klimaren akordioak leheritu egin zituen esperantza ugari hain auzi garrantzitsuan; ikus Joseba Azkarraga, 'Izan zirelako gara, eta garelako... izango al dira', *Hemen* 50, 2016, 21-35, www.invire.net/nuevasfotos/Hemen_50_j.azkarraga.pdf). Edozein kasutan, definizioa da gako garrantzitsua. Ez dugu kolapsoa ulertuko indarrean den sistemaren erortze zakar eta bat-bateko gisa (nahitaez), ezpada konplexutasunaren galera gisa (graduala ere izan liteke, eta hein batean borondatez planifikatua ere bai). Tainterrekin esango lukeen bezala –nahiz sistema baten erortze zakarraz hitz egiten duen–, kolapsora heldu den jendarteak txikiagora eta sinpleagora egiten du, informazio fluxuak murriztu ohi dira, interakzioak gutxitzen dira (bereziki urrutikoak), eta jarduera ekonomikoa behera dator (Joseph A. Tainter, *The Collapse of Complex Societies*, Cambridge, Cambridge University Press, 1995, 193. or.).
 3. Bereziki egin zitzaizkan esanguratsua 2005ean Nazio Batuen Erakundeak abiatutako Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa nazioarteko programa zientifikoa (www.millenniumassessment.org/en/index.html). Bertan aztertzen ziren munduko ekosistemetan gertatzen ari ziren aldaketak eta horiek giza ongizatean zituzten ondorioak.
 4. Nbardura garrantzitsua, ordea: munduko populazioaren %25 gara gainezkatzearen praktikazaileak; %75en bizi-maila unibertsalizatuz gero, nahikoa litzateke planeta bakarrarekin.
 5. Ikus Luis González Reyesen sintesi mamitsua: 'Kapitalismo globalaren kolapsoa eta gizarte ekomunitarioetaranzko trantsizioak', Manu Robles Arangiz Fundazioa, 2020ko apirila. Euskal irakurleak sintesi oso baliotsua aurkituko du Ecologistas en Acción taldeak 2019an eginiko txostenean: 'Mugen amildegian oinez ibiltzea' (www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/2019/09/informe-caminar-sobre-el-abismo-euskera.pdf).
 6. Pentsamendu ekologistak aspaldi iragarri zuen. Eta badira ohartarazpen garrantzitsuak egin dituzten lan zientifikoak. Esaterako, duela ia 50 urte MITeko ikertzaileek Erromako Klubaren eskariz idatzi zuten *Hazkundearen mugak* lan sonatua (1972). Kapitalismo liberal inteligenteenaren erraietatik etorri zen ohartarazpen oinarrikoa: biosfera finituan ezinezkoa da hazkunde mugagabea. Berandu baino lehen arriskuan jarriko zen garapen eredu industrial modernoa, *input* gehiegi kontsumitzeagatik (baliabideen kontsumoa laster helduko zen gainezkatze-erara lurrak baliabideok berriztatze-erara daukan gaitasuna), *output* gehiegi

sortzeagatik (hondakinen sorkuntza laster helduko zen gainezkatzera lurrak hondakinok xurgatzeko duen gaitasuna) eta presio demografiakoagatik. Bide beretik jarraituz gero, zioten, munduko ekonomiaren hazkundea moteldu egingo da, eta ondoren kolapsatu. Proposatu zuten ‘zero hazkunde’ gisa formulatu zen paradigma berria (*zero economic growth*). Alegia, ez handitzea *per capita* errenta edota barne produktu gordina. Lanak zalaparta eta gutxiespen handia eragin zuen, baina funtsean denborak arrazoa eman dio. Bost hamarkada galdu dira.

7. Kontu konplexua da zergatik den horrela, dominazioak ertz ugari ditu. Halere, nago tartean dagoela George Lakoff hizkuntzalari kognitiboak aspaldi ohartarazi zuen joera ezin gizatiarragoa: gertakariak (datuak) ez direnean ondo doitzen jendearen marko kognitiboetara, jendea markoekin geratuko da eta gertakariak (datuak) ukatuko.
8. Giza sistemak gehiegi hedatzen ari dira, eta, animalia basatietatik gertuegi jarriz, patogenoek askoz errazago egiten dute jauzi giza organismoetara. Gainera, patogenoak erraz bihurtzen dira epidemia eta ondoren pandemia horrenbeste hazten denean giza populazioaren dentsitatea (megaurbeak) eta sustatzen denean mugikortasuna (globalizazioa, komertzio libreko tratatuak, eta batez beste 10 mila hegazkin uneoro airean). Pandemia nekez deslotu daiteke deforestaziotik edota abeltzaintza agroindustrialetik.
9. Nazio Batuen Ingurumen Programaren arabera, hanka bikoon gaixotasunen %75 zoonotikoak dira. Zenbat eta espezie gehiago ostalari gisa eritasunen transmisio katean (zenbat eta ekosistema aberatsagoak), hainbat eta mugatuagoa da gaixotasunen transmisioa, diluitzen baita eragina eta arintzen baitira ondorioak.
10. Frantziako Les Parasites taldekoek eginiko *L'Effondrement* (Kolapsoa) miniserie distopiko arrakastatsuan –hainbatentzat 2020ko telebistako serierik onena–, kolapso aukeraz ohartarazi nahi duen zientzialariak zera dio telebistako eztabaida batean, gainontzekoen gaitzespen eta mespretxu keinuen aurrean (atzera begirakoa proposatzen duen serieko azken kapituluan): «Hazkunde honekin jarraitzen badugu, kolapsatuko dugu, eta hazkundea geldiarazten badugu, kolapsatuko dugu».
11. *Viento Sur* aldizkarian (2020ko ekaina): Jorge Riechmann, ‘La crisis del coronavirus como momento del colapso ecosocial’ (<https://viento.sur.info/spip.php?article16051>).
12. Giza ekologian aditua den Andreas Malmek zioen hedabide bote-retsuenek tratatu dutela pandemia gure ekonomiekin zerikusirik ez lukeen *shock* bat bailitzan; gaitzaren sustraiak leudeke giza eragine-*tik* kanpo dauden zenbait prozesu naturaletan, edota herrialde jakin baten (Txina) zenbait ohitura partikularretan. Ikus *Viento Sur* aldizkarian egin zioten elkarrizketa, 2020ko uztailen: ‘Para frenar

- el cambio climático, necesitamos un leninismo ecologista' (<https://vientosur.info/?p=16120>).
13. Ikus Lorea Flores Greenpeaceko Hego Euskal Herriko koordinatzailearen gogoeta *Berria*-n, 2020ko ekainaren 19an: 'Benetan arnasa hartu du biodibertsitateak?' (www.berria.eus/paperekoa/1984/007/001/2020-06-19/benetan-arnasa-hartu-al-du-biodibertsitateak.htm).
 14. Egoera ekonomiko hondagarriak behartuko du berehalako arazoetan zentratzera, eta handia da epe luzeagoko konponbideak geroratzeko arriskua. Lan zientifiko batek ezagutarazi berri du %90ekoa dela hurrengo hamarkadetan kolapso ekosozialerako probabilitateen estimazioa (deforestazioarekin eta hazkunde demografikoarekin oso lotuta). Ikus Mauro Bologna eta Gerardo Aquino, 'Deforestation and world population sustainability: a quantitative analysis' (www.nature.com/articles/s41598-020-63657-6.pdf); eta Nafeez Ahmed, 'Theoretical Physicists Say 90% Chance of Societal Collapse Within Several Decades' (www.vice.com/en_us/article/akzn5a/theoretical-physicists-say-90-chance-of-societal-collapse-within-several-decades).
 15. Esaterako, klima aldatzearen eraginez permafrosta desizozten ari da, eta askatzen ari omen dira izoztuta zeuden hamaika bakteria eta birus. Berotze globalagatik, gainera, animaliak mugitzen ari dira, areagotuz patogenoen transmisio arriskuak. Edozein utziko luke arnas arazoekin Mike Davis soziologo eta aktibista estatubatuarrek 2020an argitaratutako liburuak: apokalipsi biralaz ohartarazten du, askoz larriagoak izan daitezkeen pandemiez, hilgarritasun askoz handiagoarekin (Mike Davis, *The Monster Enters. COVID-19, Avian Flu and the Plagues of Capitalism*; gazteleraz kaleratu da 2020an: *Llega el monstruo. COVID-19, gripe aviario y las plagas del capitalismo*). Badirudi eskerteruta egon beharko genukeela COVID-19arekin, bere oldarkortasun epel eta hilkortasun onberagatik. Davisek azpimarratzen du, esaterako, Asiako hegaztien artean endemikoa den H5N1 birusak ahala duela hiru gizakitik bi hiltzeko, eta zientzialarien artean berotze globala gizakiok eragindakoa dela bezain adostua da berehalakoa dela birus hori zabaltzeko arriskua. Atzealdean, garapenkeria: agronegozinoa, janari lasterra eta horiek laguntzen dituzten gobernu ustelak, horiexek jotzen ditu pandemia berrien kausa izango diren baldintza ekologikoen sortzaile. Gauzak horrela, nago ez dela inondik ere baztertzekoa bizitzak makurtu behar izatea egoera pandemiko iraunkorrera.
 16. Hamaika dira energiaren auzi konplexua aztertzen duten idatziak, baina, berrienetara eta dibulgatzaileenetara jota, irakurketa labur bezain argia aurkituko du irakurleak honako prentsa artikuluan: Bernardo Pérez, 'La crisis energética que se avecina' (www.laopiniondemercia.es/opinion/2020/05/20/crisis-energetica-avecina/1115134.html).

Ikus, baita ere, *Argia* aldizkariaren 2.695. zenbakiak gaiaz 2020ko uztailearen 19an egindako erreportajea: 'Ekonomiaren urritzearekin datorren ekonomiaren uzkurtzea' (www.argia.eus/argia-astekaria/2695/energia-urritzearekin-datorren-ekonomiaren-uzkurtzea).

17. Energia berriztagarriak dira etorkizuna, baina hobe genuke fantasia kolektiborik ez sortzea: (a) argindarra besterik ez dute sortzen (ez dituzte transatlantikoak eta ohiko hegazkinak mugitzen); (b) energia berriztagarri gisa ulertzen ditugunak funtsean dira energia berriztagarria kaptatzeko sistema ez-berriztagarriak (esaterako, erreagai fosil asko erre behar da haize errota erraldoi horiek fabrikatzeko, garraiatzeko, instalatzeko, mantentzeko, konpontzeko, eta abar); eta (c) berriztagarrien bidez ezingo zaio gaurko konplexutasunari eutsi, sistemok ezin baitira heldu petrolioaren intentsitate energetikoa ordezkatzera (funtsezko kontzeptua da 'energiaren itzulkin-tasa': lor daitekeen energia netoa). Askok esperantza dute fusio nuklearrean (Marseilla ondoko ITER instalazioa, askorentzat munduko zientzia egitasmorik handiena): hortik etorriko litzateke energia mugagabea, merkea eta garbia. Zientzia esperimentera ondo aterako balitz ere, ordea, beste kontu bat da prozesu industrial bihurtzea, eta ez dirudi garaiz iritsiko litzatekeen inongo kasutan. Luze joko luke behar bezala argudiatzeak, baina sinplifikatzearen: ez dago alternatiba energetikorik gaurko konplexutasunari eusteko.
18. Oro har, galdera zen (da) nola eutsi energia irenslea den industria kooperatiboari (euskal industriari, oro har) energia ugari eta merkerik gabeko sasoian.
19. Ez gara autarkiaz ari, noski, baizik eta irekitasuna eta sustraitzea bestela orekatzeaz. Ezin pentsa liteke euskal ekonomiak biziraun dezakeenik bere baitan itxiz eta mugatuz bere kontsumitzaileen barne-merkatu murriztera; ez eta gaurko esportazio eta irekitasun maila altuari eutsi ahal izango zaionik energia ugari eta merkerik gabeko testuinguru gero eta desgloabizatuagoan. Gainera, itxitura nazionala labur geratzen da globalak diren arriskuei aurre egiteko orduan. Klimarena da adibiderik garbiena, baina izurriteak ere erakusten digu ez dagoela globala ez den konponbiderik. Oro har, nazioz gaindiko arautzeak beharko dira oligarkia ekonomiko-finantzarioa otzantzeko. Kontua litzateke ganoraz txirikordatzea tokikotasuna, truke erregionalak eta lankidetzeta transnazionala. Inoizko internazionalistena izan beharko da burujabetzaren semantika historiko berria.
20. Kolapsoak ugariak izan dira historian zehar. Sarri hitz egiten da Erromako Inperioaz, baina badira beste kasu interesgarri batzuk: esaterako, Brontze Aroko kulturen kolapsoa (K.a. 2500 – K.a. 1000). Izan ere, Brontze Aro berantiarrean globalizatu zen mundua lehen

aldiz (Mediterraneoaren bueltan osatu eta elkarrekin molde ugari-
tan lotu ziren Anatolia, Mizenas, Babilonia, Egipto, Kanaan, Asiria
eta Mesopotamia). Hein handian, bide komertzial eta diplomatikoek
helburu zuten estatuentzat funtsezkoak ziren baliabide naturalak
bermatzea, nagusiki brontzea. Brontzea baitzen garaiko petrolio-
a. Konektibitate eta aurrerapen handiko mundu boteretsua osatu ba-
zen ere, gerrek, goseteek, matxinadek eta hondamendi naturalek
hautsi egin zuten (K.a. 1200. urtean hasi omen zen), eta hainbat hiri
suntsituta geratu ziren (ondoren sortu ziren gure munduaren oina-
rrian dauden kulturak: feniziarrek, israeldarrak, asiriarrak, hitak,
atenastarrak eta espartarrak). Andrew Langley arkeologo eta
ikertzaileari jarraitzen badiogu, kolapso horrek utzi dizkigu zenbait
oinarriko lezio. Batetik, konexio estuak ahalbidetu zuen leku bate-
ko gorabehera politikoei eragin handia izatea milaka kilometrora
zeuden lurraldeetan. Gaurko mundu hiperglobalizatuak ere eraku-
tsi du bere hauskortasuna: hiperkonexioak erraztu egiten ditu krisi
finantzarioak eta patogeno berrien hedapena. Hau da, beste lurral-
deekiko dependentzia areagotzeak hauskortasuna areagotzen du.
Bestetik, deskonexioa datorrenean, lurraldeak behartuta daude no-
labaiteko autarkian edo autoaskitasunean babestera: hiri-estatu txi-
ki eta autoaskiak sortu ziren kolapsotik, eta, brontzea fabrikatzeko
aukera galdua, burdina erabili behar izan zuten (teknologia lokala-
goa eta kaskarragoa). Hau da, desglobalizazioak ekarri ohi du eko-
nomiak antolatuta behar izatea komertzio-bide lokal eta gertukoagoen
bidez. Hirugarrenik, kolapsoek ez dute izaten gertaera-segida aurrei-
kusgarria, eta gertaera bakar batek ez ohi du gizarte konplexu bat
hondoratzen (hainbaten arteko elkarrenergina da gako). Gaur ere,
hainbat gertakari larri nahasten ari zaizkigu (ezberdintasun ikara-
garriak, zor publiko eta pribatu handia, klimaren aldaketa, pande-
mia, erregai fosilen krisia, lurraren erosioa, eta abar). Ikus honakoa
(gaztelarazko bertsioa emango dugu): Andrew Langley, '¿Qué po-
demos aprender del colapso de las culturas de la Edad de Bronce?'
([www.15-15-15.org/webzine/2020/07/24/que-podemos-aprender-
del-colapso-de-las-culturas-de-la-edad-del-bronce](http://www.15-15-15.org/webzine/2020/07/24/que-podemos-aprender-del-colapso-de-las-culturas-de-la-edad-del-bronce)).

21. «Seneka efektuaz» ohartarazi du Ugo Bardik: progresiboa eta gra-
duala izan zen hazkundea, baina beheraldia askoz maldatsuagoa eta
azkarragoa iragartzen dute eredu gehienek.
22. Robert D. Stolorow, *Trauma and Human Existence. Autobiographical,
Psychoanalytic, and Philosophical Reflections*, New York, Routledge, 2007.
23. Estrategia kolektiboak –ikuspegi material eta kulturaletik– berebizi-
koak izango dira giza existentzietan inpaktu handia izango duten ger-
taera konplexu eta indartsuen elaborazio emozionala ahalbidetzeko.

24. Ikus Fernando Prats eta Jorge Ozcariz, 'Antropozenoa eta lurralde politiken berrikuntza. Araba Erdigunea bioeskualde gisa pentsatzea', *Mugarik gabeko Ekonomialariak Dosierrak* 34, 2019 (https://ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-34_EUSK.pdf).
25. Dentsitate demografiko handia dugu (populazio urbanoaren tasa %80tik gorakoa da), lehen sektorea anekdotiko bihurtu dugu, automozioaren monolaborantza dugu eta gure dependentzia energetikoa izugarria da (baita elikadura arloan ere).
26. Are, izurritea dagoeneko ari da kapitalismoaren ertz basatienak gogortzen: krisi ekonomikoa azeleratu du, eta larriagotu(ko) ditu bizitzaren prekarizazioa, pobrezia eta ezberdintasunak (dagoeneko egin ditu aberats ugari askoz aberatsago); genero arrakalak handitu ditu; hezkuntza desperekotasunak biziagotu ditu; areagotu du autoritarismoa eta baita militarizazioa ere, legitimatuz jendartearen kontrol sozial are estuagoa (kapitalaren erantzuna da bere krisi zibilizatorioaren aurrean); estraktibismoa ere gehiagora doa... Alegia, izurriteak ez gaitu nahitaez eramango begiak zabaltzera. Are, zabalduko digu are egoera dramatikoagorako atea, indarrik egiten ez bada bestelako norabidean. Bitxia zait nola zenbaitek dagoeneko sententziatu duten kapitalismoaren amaiera.
27. Ados gaude hainbatek azpimarratzen duenarekin: ez dago determinismo ekologiko, energetiko edo termodinamikorik. Egia da baldintza biofisikoen mugak ezartzen dituztela, ezinezko bihurtuko dituztela zenbait jendarte molde (esaterako, nekez eutsiko zaie megaur-beei petrolio ugari barik), baina beste kontu bat da zeintzuk izango diren posible diren jendarte ereduak.
28. Daniel Tanuro, *¿Demasiado tarde para ser pesimistas! (La catástrofe ecológica y los medios para detenerla)*, Bartzelona, Sylone, 2020.
29. Gera bedi argi: konputu orokorrak egin beharko luke behera, baina bermatuz materialki gora egiten dutela hainbat gizataldek, sektore ekonomikok eta herrialdek.
30. Hazkunde etengabearen oin hartzen duen kapitalismoaren logika estrukturala ulertu beharko litzateke botere inbertsonal gisa, ez hainbeste erabaki politiko gisa. Delirio produktibistaren bidez, kapitalismoak suntsitzen ditu baita bere berrekoizpenerako beharrezkoak dituen baldintza sozial eta materialak ere. Somnanbulismo auto-suntsitzaila hori ondo azalduta ageri da honako bi lanetan: Santiago Alba Rico, *¿Podemos seguir siendo de izquierdas?*, Bartzelona, Pollen, 2015; eta Emilio Santiago Muiño, 'Los frutos podridos de la economía política. Notas para un posmarxismo ecológicamente fundamentado', in Jorge Riechmann *et al.*, *Ecosocialismo descalzo*, Bartzelona, Icaria, 2018, 215-310).

31. Klimaren auzian, orain arteko erantzun-bideek bateragarri egin nahi izan dituzte hiru helburu nagusi: isurketak murriztu, murrizketok ekitatez egin eta hazkunde ekonomiarekin jarraitu. Ekologia, ekitatea eta hazkundea: zientziarik onenak dio hirurak aldi berean ezin direla txirikordatu. Honty eta Gudynasek dioten moduan, bateragarri egin daitezke hazkunde eta iraunkortasun ekologikoa, baina ekitatearen helburua sakrifikatuz, planetak ez baitu ematen guztiok aberatsak izan gaitezen; bateragarri egin daitezke hazkunde eta ekitatea, baina planeta hondatuz; bateragarri egin daitezke iraunkortasun ekologikoa eta ekitatea, baina horretarako hazkunde gelditu eta aberastasuna banatzeko operazio handia beharko litzateke. Ikus Gerardo Honty eta Eduardo Gudynas, 'Acuerdo de París en cambio climático: aplausos errados' (www.alainet.org/es/articulo/174252#sthash.G6SckLhf.dpuf).
32. Zenbat hobeto ahal izango bagenu ostatu hartu aterabide sozialdemokrataren altzo erosoagoan, defendatuz posible dela bestelako hazkundea. Ezkerreko nostalgiko askorentzat kontua da ongizate estatua berreraikitzea, segurtasuna irabazte aldera. 80ko hamarraldian politika neoliberalek zero-lurrak konkistatu aurreko kapitalismo sozialagoa litzateke lor daitekeen gailurrik garaiena. Hein handi batean, ezkerreko kontserbadorismo horrek idealizazioa du oinarri. Europako herrialde gutxi batzuetan eta epe mugatu baterako garatu den formula horrek arazo ugari ditu hainbat ikuspegiatik: egitasmo koloniala izan da (eraiki da munduko beste lurralde batzuetako baliabide material eta energetikoen fluxu eskergari esker); antiekologikoa izan da (ez dago historian haustura sozioekologiko handiagoko sasoirik, eraiki zen muga biofisikoen batere noziorik gabe); patriarkala da (Bigarren Mundu Gerraren osteko ordena sozioekonomikoa 'familia fordistan' oinarritu zen: gizona fabrikari, etxeandarearen eta umeen hornitzaile); eta, finean, aurrerantzean gauzaezina da (hazkunde ekonomiko etengabea –eta horrek politika publikoetarako utzitako hondarra– izan da bere premisa nagusia, dagoeneko agortuta dagoen oinarria). Desafioa ez da aro postliberalari bide ematea, ezpada aro postkapitalistari. Kapitalismoaren baitan ez dago aterabiderik, eta horrek, noski, asko zailtzen du aterabidea. Hazkunde-osteak eskatzen du asmatzea ekonomia ekologikoa, ekonomia soziala eta ekofeminismoa josiko dituen eredu praktikoa berriratu bat.
33. Gehiegitan desazkondeaz hitz egin da hautu moral desiragarria bailitzan, baina askoz emankorragoa da ikuspegi preskriptibotik ulertzea. Ez da aukera bat, ezpada halabeharra. Horregatik, zentzugabekoak eta kaltegarriak dira zenbait zirkulu politikotan horretaz hitz egiteko oraindik dauden erresistentziak, atzeratu egiten baitute beharaldiaren

- antolaketa ona. Kriminala da normaltasun hazkunderalera bueltatzeko egitasmoa (literalki kriminala: bizitzaren kontra inoizko eraso antolaturik handiena), baina antzua ere bai, uzkurtzea bihurtuko baita iraunkor, eta are sakonago, nahitaez, beheraldi energetikoarekin eta bestelako material eta baliabideen eskasiarekin. Ikus Luis González Reyes, 'Kapitalismo globalaren kolapsoa eta gizarte ekomunitarioetarranzko trantsizioak', Manu Robles Arangiz Fundazioa, 2020ko apirila.
34. Joseba Gabilondok antzekoa dio ondoko lanean: 'Apocalipsis, biopolítica y estado destituyente: la precarización en tiempos de cólera' (<https://lavoragine.net>).
 35. «Odola, esfortzua, malkoak eta izerdia, ez dut eskaintzeko beste ezer».
 36. Hervé Kempf *Le Monde* egunkariko ingurumen kazetariak ederki azaldu zuen nagusiki eliteak direla inpaktu ekologikoaren arduradun, eta oso behera ekarri beharko liratekeenak (Hervé Kempf, *Comment les riches détruisent la planète*, Paris, Seuil, 2007; gazteleraz: *Cómo los ricos destruyen el planeta*, Madril, Clave Intelectual, 2011).
 37. Bruno Latour, *Dónde aterrizar. Cómo orientarse en política*, Barcelona, Taurus, 2018.
 38. *Ibid.*: 35.
 39. Ez da batere baztertzekoa, noski, eliteek baliatu nahi izatea pandemia (eta berorri loturiko shocka) munduko populua materialki behera ekartzeko, desazkundera eraginez ukitu barik botere egiturak eta elitearen pribilegioak. Zentzu horretan, pandemia izan daiteke –eta gerora etorriko diren traumak ere bai– hazkunde etengabearen fikzioarekin amaitzeko behar den pilula irengarri (kolapsoak azalpen 'naturala' luke). Eliteek ekonomiaren eskala materiala ekarriko lukete muga biofisikoetara beren pribilegioei eutsiz.
 40. Ikus Ernest García eta Mercedes Martínez-Iglesias, 'Towards the Post-Carbon Society: Searching for Signs of the Transition and Identifying Obstacles', in Ernest García *et al.* (argk.), *Transition to a Post-Carbon Society. Degrowth, Austerity and Well-being*, Londres, Palgrave, 2016, 57-86.
 41. «Euskal Herria post-COVID19» da, esaterako, bost neurri orokor eta oinarrizko haizatu dituen ekimena (<https://euskalherriapostcovid19.eus>). Beste adibide bat jartzearren, irakurleak Riechmannen honako gogoetan aurkituko ditu hamahiru neurri zehatz, *Viento Sur* aldizkarian (2020ko ekaina): 'La crisis del coronavirus como momento del colapso ecosocial' (<https://vientosur.info/spip.php?article16051>).
 42. Gainazaleko erreformismo bigunek –are gutxiago operazio kosmetikoek– ez dute hautsiko heriotza printzipioarekin. Kolisio bete-betekoan gaude, eta auziak ez du konponbiderik auzitan jarri gabe gaurko gizartearen egitura produktibo, energetiko, azpiegiturazko eta kulturala.

43. Euskal lurraldeak permakulturaz eta agroekologiaz masiboki kolonizatzearekin batera (besteak beste), gaur egin daitekeen ekintzarik iraultzaileenetakoa da norbere dinamika psikikoan egunero txertatzea *honekin nahikoa dut* (izan diru, ospe, aitortza, arrakasta, edertasun, botere edo objektu). Behera egitea *gizabanako desiratzailer* gisa. Antikapitalismoak balioetsi behar luke arlo horretan koherentzia biografikoa. Aterabide zentzuzkoak –*ganoraz* eta *garaiz* erantzuteak– eskatzen du automugatzean oinarrituriko programa kultural eta politiko-ekonomiko erraldoia, «honekin nahikoa dut» esaten berrikasiko duen subjektu kolektiboa eraikitzea (nahikotasunaren nozio aurremodernoa maisuki erakutsi zigun Max Weberrek). Soilik halako programa batekin egin ahal izango da arrakastaz trantsizio ekosoziala, bakean eta nolabaiteko espiritu kooperatiboan. Azken batean, autoesplotazio boluntarioa –eta, ondorioz, depresioa eta antsietate– oinarri duten jendarteentzat, funtsezko gakoa da honakoa: arazoa ez da energia eta material eskasia, baizik eta espektatiba gehiegia.
44. Kolapso prozesuaren episodio ezberdinak gauzatu ahala, litekeena da jendarte gero eta akituagoan zailagoa izatea burujabetzaren egitasmo politiko-instituzional klasikoa (izurriteak, esaterako, gogor kolpatu du dagoeneko estu zebilen Kataluniako prozesua). Baina, bestetik, deskonposizio prozesuarekin nabarmentzen joango da lurraldeak ahalduzaren garrantzia, baita ikuspegi politiko-instituzionaletik ere. Euskal Herrian, nago Iparraldeko Bizi! mugimendu ekologista dela ondoen ulertu duena trantsizio ekosozialaren eta burujabetzaren –kontzeptu zabal gisa ulertuta– arteko aliantza estrategiko eta ideologiko ezinbestekoa, uztartze horretan ainguratuz bere ikuspegi teoriko eta praktikoa.
45. Seguruenera gaindituta behar genuke, baina ez gaude hain urruti Lehen Internazionalerako debate ezagunetik. XIX. mendeko bigarren erdialde hartan, aurrez aurre jarri ziren Marxen sozialismo zientifikoa eta Bakuninen anarkismo kolektibista. Sinple esanda, lehenak estatuaren boterea konkistatzea planteatzen zuen, eta anarkisten eredu iraultzailea lotuago zegoen erakunde kooperatiboak sortzearekin. Sektore bien artean zatiketa gertatu zen. Gaur ere antzeko dilema bueltan ari gara: estrategia libertarioa ala marxismo ekologista, zapatismoa ala bolibarisismoa, estrategia prefiguratiboa (hemen eta orain prefiguraturaz nahi genukeen jendarte postkapitalista) ala erreformismo instituzionala. Boterea barreiatu ala boterea hartu, nolabait.
46. *Green New Deal* proposamenaren inguruko eztabaida AEBetan eta Ingalaterran gertatu da nagusiki, Sanders eta Corbynen hautagaitzek sustaturik; ordea, andrazkoak izan dira proposatzaile nagusiak kasu bietan: Alexandra Ocasio-Cortez eta Ann Pettifor, hurrenez hurren.

- Naomi Kleinek ere egin du ekarpena. Ikus Alexandra Ocasio-Cortez eta Ed Markey, 'Resolution. Recognizing the duty of the Federal Government to create a Green New Deal', 2019; Ann Pettifor, *The Case for the Green New Deal*, Londres, Verso, 2019; eta Naomi Klein, *On Fire. The (Burning) Case for the Green New Deal*, New York, Simon and Schuster, 2019.
47. Ez da batere kontu txikia. Kapitalismoaren txisteratik sarri sortu dira esperantza iturri izan diren formula magiko bezain antzuak ('garpapen jasangarria' izan da azken hamarkadetako iruzur kontzeptual eta praktikoa nabarmenetakoa). Baina, egun narriadura ekologikoa hain da bizia, ezen dagoeneko ez baitago errakuntzarako tarterik, eta GNDaren bertsiio hegemonikoak hazkundean oinarritzen dira, ez diote muinari heltzen. Ezbai handia sortu da desazkundearen eta GNDaren sustatzaileen artean. Desafioa litzateke biak bateragarri egitea. *New Left Review* aldizkarian izan da, esaterako, eztabaida garrantzitsu hori; gaztelera zko bertsiioa argitaratu zen: Hermann Daly *et al.*, *Decrecimiento vs Green New Deal*, New Left Review eta Traficantes de Sueños, 2019 (https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/documentos_nlr_5_web.pdf). Ikus, baita ere, Manuel Casal euskaldun-galiziarrak GND proposamenari egin dion kritika: '20 Razones para preferir el Decrecimiento frente al Green New Deal (como opción política ante el colapso civilizatorio)' (<https://casdeiro.info/textos/2020/06/27/20-razones-para-preferir-el-decrecimiento-frente-al-green-new-deal-como-opcion-politica-ante-el-colapso-civilizatorio>).
48. Gaingiduta behar genuke, baita ere, Bigarren Internazionalari loturiko debate ezaguna: iraultza (Rosa Luxemburg, Lenin edo Trotski) ala erreforma (Bernstein). Honakoa da *Green New Deal* proposamenaren aldaera eraldatzaileaz liburu interesgarria, Gramsciren hegemonia kontzeptuarekin eta kolapsoaren arrisku errealekin bat egiten duten autoreen eskutik: Héctor Tejero eta Emilio Santiago, *¿Qué hacer en caso de incendio? Manifiesto por el Green New Deal*, Madril, Capitán Swing, 2019. Bertan planteatzen da GND dela aukerarik onena trantsizio ekologikoa ahalbidetzeko marko politiko pluralistetan (hauteskundeak irabazi behar diren testuinguruetan, gehiengo sendo eta iraunkorrak eraikiz).
49. Halere, behar dugu ezkerrez gogoeta. Batetik, ezkerreko indarrek –sozialdemokraziaren ezkerretara daudenez ari naiz– botere politikoa hartuz gero, ba ote dute tarte errealik aipatzen ari garen transformaziorako? Ezetz dirudi, jendartean eraikitzen ez bada arranoaren hegaldia –ez oiloarena– ahalbidetuko duen bloke hegemoniko zabal, indartsu eta iraunkorra, ez soilik nazio mailan, nazioz gaindi ere

bai (datu funtsezkoa da nola geratu zen Syriza Europako oligarkia politiko-finantzarioaren botapean). Bestetik, eraldaketarako botere errealik balego ere, gaurko ezkerak ba al du emantzipazio sinplifikatzailearen kontzientziarik, horretarako borondate benetakorik? Bolivarismoak erakutsi du sar daitezkeela Pachamamaren eskubi-deak konstituzioan eta gogotik heldu jardunbide anti-ekologiko eta estraktibistei. Birbanaketa politikek milioika lagun atera dituzte pobreziatik (urdail beteegiek ahaztu ohi dute datu hain garrantzitsua), baina behar da birbanaketaz gain ekoizpena ere pentsatuko duen egitasmoa: zer ekoizti, nork, zelan... Nabarmenak dira Venezuelak agertu dituen mugak bestelako eredu produktiboa sortzeko, petrolioaren errentatik eraiki da marroi koloreko sozialismoa. Ekuadorren Correa presidentek haustura gogorra izan zuen sektore ekologista eta indigenekin, hautatu baitzuen neodesarrollismoa (hidroelektrika handiak, meatzaritza eta petrolio); besteak beste, amaiera eman zion Yasuni proiektuari (etenda zegoen petrolioaren ustiatzea Yasuni izeneko parke nazionalan, berotze globalaren kontrako konpromiso gisa). Evoren Boliviak 2014an inbertsio handia iragarri zuen nuklearraren alde. Nikaraguak 2015ean iragarri zuen ozeano biak lotuko dituen kanala, Panamakoa baino hiru aldiz handiagoa (askorentzat nekez irudika daiteke astakeria ekologiko handiagorik). Alegia, trantsizio ekosozialak nahitaez izango ditu paradoxak, anibalentziak eta kontraesanak –esaterako, erregai fosilak erre beharko dira berriztagarrietarako jautsian, karbono dioxidoa isuriz–, baina aipatutakoak beste kontu bat dira. Alegia, herri proiektu eraldatzaileek behar dute berrikuspen sakona, doinu produktibistekin dantz egitea ez baita aterabide, ezpada arazoaren parte.

50. Beheraldiaren aurrean, prekarioa baino arriskutsuagoa izan daiteke herritar ongi kokatua. Klase ertaineko hanka bikoarentzat –hezkuntza maila txukunarekin, teknolatriara labainduta, ohituta ongizate-ra, bizi-aukera anitzetara eta klikaren berehalakotasunerak– bereziki izan daitezke toleraezinak frustrazioa, mugak, espektatiben erortzea, beldurra. Izan ere, *sky is the limit* eta *impossible is nothing* leloekin kolonizatu zuten bere arima. Euretako askok eskubideen lengoia dute ardatz beren eraikin politiko-kulturalan. Ez dago bere buruaren garrantziaz intoxikatutakoa baino arriskutsuagorik. Beharbada horregatik esan zuen Bertolt Brechtek ez dagoela burges izutua baino faxista okerragorik.
51. Ernest García, 'Los derechos humanos más allá de los límites al crecimiento', *Ambienta* 113, 2015, 28-41 (<https://sites.google.com/gl.miteco.es/ambienta>).

Egia-ostea ziurgabetasun garaian

Irati Zubia Landa

Filosofian graduatua

Krisialdiak eta arrisku egoerak izaten dira sarri aro ezberdinak ezaugarritzeko mugarriak. XXI. mendea ere ez da gutxiago izan: aldaketa klimatikoa, globalizazioa, demografiaren krisialdia eta, noski, COVID-19aren krisialdia. 2020a, dudarik gabe, COVID-19aren urtea izango da etorkizunean. Halaber, bada beste termino bat XXI. mendeko fenomeno nagusien zerrendan pixkanaka tokia egiten ari dena.

Bada fenomeno edo egoera bat gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dena: egia-ostea. Zientziaren, komunikabideen, iritzi publikoaren eraketaren eta, orobat, demokraziaren inguruko eztabaidetan gero eta auzi zentralagoa da. Are, 2016an Oxford Hiztegiak «urteko hitz» izendatu zuen, iritzi publikoa eratzeko garaian gertaera objektiboek baino emozio eta uste pertsonalek eragin handiagoa duten egoerari erreferentzia egiteko (McIntyre 2018: 34). Gure garaia egia-ostearen aroa bada, hori ez da batere berri ona aipatu krisialdiei aurre egiteko.

Egia-ostearen muina egia-egiekiko interesik eza da, eta hori arriskutsua izan daiteke. Egia-osteak egia-egiekiko errespetu falta batekin baitu zerikusia, gezurrarekin baino (McIntyre 2015: 114). Egia-ekin harremanetan jartzeko modu jakin bat seinalatu nahi dut, eta harreman hori egia-egiekiko axolagabetasunean,

hots, interesik ezean datza. Egia ezkutatzearen eta horri kasurik ez egitearen artean badago aldea. Bi jarrerren inplikazioak ere desberdinak dira, eta egia-ostearen aroan bigarren kasua deigarria da oso. Inplikazio horietako batzuek eragin zuzena dute gorago aipatu krisialdien kudeaketan.

Testu honetan defendatuko dut, batetik, egia-osteak zaildu egiten duela krisi horien kudeaketa eta, bestetik, ziurgabetasunaren presentzia gakoa dela horretarako. Zentzu horretan, egia-ostean nagusi diren dinamikak aztertu eta horiek ziurgabetasun egoeretan areagotu egiten direla erakutsiko dut.

Egia-ostea, joera irrazionalak eta ziurgabetasuna

Isuri kognitiboak

Egia-ostearen gakoetako bat zera da: egia parez pare dugunean ere, hari kasurik ez egitea. Joera horren atzean zer egon daitekeen ikertu ahala, arrazoietako bat, agian oinarritzkoena, gure irrazionaltasunari lotzen zaio: egiari ez diogu kasurik egiten, hain zuzen kostatzen egiten zaigulako bestela jokatzeari. Ez garelako uste bezain razionalak.

1970eko hamarkadaren inguruan Kahneman eta Tverskyk abiatutako ikerketa izan da baieztapen hori serioen aztertu duena. Horiek eginiko lanak modu sistematiko batean bildu zituen gure sistema kognitiboan bertan dauden akats eta funtzionamendu eskaseko kasuak. Erakutsi zuten gizakiok judioak egiten ditugunean bi prozesamendu sistema daudela:

- 1. sistema: intuizioa edo ohiko gogamena.
- 2. sistema: arrazoimena edo adi dagoen gogamena.

Eta honela definitu zituen biak:

1. sistemak azkar eta era automatikoan jokatzen du, esfortzu eta kontrol boluntario urriarekin.

2. sistema esfortzu kognitibo altuko jardueretan jarri ohi da abian, alegia, agentzialtasunarekin, esperientzia subjektiboarekin eta kontzentrazioarekin lotzen diren jardueretan. (Kahneman 2012 [2011]: 18; itzulpena nirea da)

Orobat, gure judizioak eskuratzeko prozesuak orokorrean hobeto ezkontzen dira lehen sistema automatikoaren deskribapenarekin. Horren adierazle dira 'isuri kognitibo' deritzenak: sistema kognitiboko akats sistematikoak, hots, gure garuneko prozesamendu sisteman txertaturik dauden joera irrazionalak.

Horien artean, fenomeno nagusietariko bat da 'disonantzia kognitiboa' deritzona. Antza, gure sinesmen, jarrera eta jokabideen arteko harmonia bilatzen dugu, eta, horiek desorekatzten direnean, ezinegon psikiko bat pairatzen dugu. Horren aurrean, gure autoestimua babestu ohi dugu, nolabait oker ez geundelako ustea babestuz erreakzionatzen dugu (Festinger 1957: 12). Horretarako baliatu ohi dugun mekanismo nagusia arrazonamendu motibatua da: gure hasierako tesia berresten duten argudio eta ebidentziei erreparatzeko joera. Horrek eraman gaitzake egiari kasurik ez egitera, deseroso zaizkigun egiekin topo egiten dugunean, bereziki.

Badirudi, ziurgabetasuna jokoan sartzen denean, joera irrazional horiek areagotu egiten direla. Ziurgabetasun egoeretan, arriskuen¹ ebaluaketan modu nabarmenean ikusten da hori. Egoera horiek ebaluatzeko ditugun mekanismoak ikertzeko, hasiera batean teoria razionalistak proposatu ziren. «Esperotako utilitatearen teoria» (EUT laburdurak, ingelesez) da horietan ezagunena, eta defendatzen zuen ebaluazio horietan probabilitatearen eta kaltearen dimentsioen arteko kalkulu utilitario eta razionala egiten dugula, horrela gure kalkuluarekin esperotako utilitatea maximizatzeko asmoz (Schoemaker 1982: 529). Aitzitik, gerora ikerketek kolokan jarri dute hori, askotan arriskuak gutxieteko edo puzteko joera dugu eta. Hartzen dugun jarreraren arabera, pasibotasuna edo alarmismoa etor daitezke eta, ikuspuntu razional

Egia-ostearen gakoetako bat zera da: egia parez pare dugunean ere, hari kasurik ez egitea. Arrazoietako bat, agian oinarrizkoena, gure irrazionaltasunari lotzen zaio

batetik, ez bata ez bestea ez dira ongietorriak (Sunstein eta Zeckhauser 2011: 436).

Nagusiki, arriskuaren pertzepzioari dagokionean, irrazionaltasuna probabilitatearekin jarduteko dugun zailtasunetik dator. Oro har, 1. sistema ez da batere iaioa probabilitatearen estimazioak eta probabilitatearen bidezko kalkuluak egiten (Kahneman 2012 [2011]: 148). Hasteko, jendeak ziurgabetasun egoeretan erabakiak hartzean probabilitateari ematen dion pisua eta ondorioen dimentsioari emandakoa ez dira proportzionalak (Loewenstein eta Lerner 2003: 624). Bigarrenik, egoera horietan erabakiak hartzeko orduan izan ohi dugun jokabidea azaltzeko, EUTak esandakoaren aurka, aproposagoak dira probabilitatearen pisua neurtzeko funtzio ez-linealak (Edwards 1953, 1954; Kahneman 2012 [2011]; Quiggin 1982). Izan ere, ikusi zen beharrezkoa zela isuri kognitiboen eskutik datozen hainbat joera kontuan hartzea, besteak beste, emozioek hor duten papera. Askotan, probabilitateak baino, zirrarak gidatzen gaitu.

Horren erakusle da probabilitateari kasurik ez egiteko joera (*probability neglect* fenomeno ingelesez). Arrisku bat gertatzeko probabilitateak baino, ondorioek publikoarengan eragiten dituzten emozioek² dute erabakiak hartzeko orduan pisu gehien (Sunstein eta Zeckhauser 2011: 339). Emozioek gora egin ahala, kalkulu razionala lanbrotu egiten da (Loewenstein eta Lerner 2003: 636). Emozio horiek zenbat eta gogorragoak, biziagoak edo zirrargarriagoak izan, orduan eta handiagoa izaten da ekiteko joeraren bultzada, eta alarmismoaren arriskua etor daiteke³ (Sunstein eta Zeckhauser 2011: 440).

Kahnemanek ondorioztatzen du itxura guztien arabera gizakiok laguntzaren bat behar dugula erabaki onak hartzeko. Ziurgabetasun egoeretan, zeresanik ez. Haren aburuz, instituzio eta politika publikoetatik horretarako proiektuak bultzatzea irtenbide aproposa izan daiteke (Kahneman 2012 [2011]: 535). Alabaina, 'erabakiaren arkitekturan'⁴ eragingo duten neurriak hartzearen proposamena polemikoa da oso, baina hemen ez dut bide hori jorratuko. Hala ere, egia-ostek

badu zerikusia kontu horrekin. Erabakiaren arkitekturak erakusten baitu badaudela moduak isuri horiek areagotzeko edo gutxitzeko. Bide horretatik, egia-ostera nola heldu garen azaltzeko, hainbat autorek zera bilatu dute: isuri horiek areagotzeko faktore esanguratsurik ba ote dagoen gure garaian.

Isuri mediatikoak

XXI. mendeko erabakiaren arkitektura modu bizkorrean aldatu da azken urteetan. Horrek informazioarekin, adituekin eta *egiarekin* berarekin harremanetan egoteko modua aldatu du. Badirudi gure isuriak areagotzen dituen erabakiaren arkitektura dela egungoa.

Lehen aldaketa esanguratsua 'nahierako interakzioak' deritzenak areagotu ahala etorri da. Ikusi dugu sarritan gustuko informazioa bilatzeko joera dugula. Azken hamarkadetan informazio eskaintza eta eskaera modu nabarmenean areagotu dira. Horrela, gero eta handiagoa da *gustuko duguna* entzuteko aukera (McIntyre 2018: 90).

Halaber, informazioa aurkezteko formatuan ere aldaketa esanguratsuak egon dira. Horietako bat tertulia formatuaren gorakadarekin etorri da. 80ko hamarkadan sekulako arrakasta irabazi zuen Rush Limbaughen programa jotzen da formatu horren aitzindaritzat. Limbaughena ez zen albiste normal bat; oster, tertulia moduko bat zen. Eztabaida kritikoa sustatzea baino, programaren helburua komunitate sentimendu bat lotzea zen. Alegia, ados zegoen jendearen arteko talde sentimendu bat sustatzeak zuen garrantzia (Nichols 2017: 146). Horrela, nahierako interakzioak izateko aukerak gora egin zuen nabarmen. Menua zabala baitzen, bakoitzak aukera zezakeen zer zuen nahiago: informazioaren kaleidoskopia zabaldu zen (Foster Wallace 2005). Horrek ahalmen analgesikoa zuen disonantzia kognitiboa baretzeko eta, oro har, gainerako isuriak elikatzeko. Halaber, formatu berri horietan, albisteen eta iritzien arteko, informazioaren eta usteen arteko muga dagoeneko oso lausoa zen. Ondikoz,

objektibotasuna eta gisako balio epistemikoak itxuraldatzeko joerak azaldu ziren.

Egia-ostean objektibotasunaren ideia desitxuratu bat zabaldu da, eta paradoxikoa da ideia hori eztabaida publikoan txertatu arte gertatu den bilakaera. Tertulia programen izaera

Egia-ostean objektibotasunaren ideia desitxuratu bat zabaldu da, eta paradoxikoa da ideia hori eztabaida publikoan txertatu arte gertatu den bilakaera

partidista agerian geratu ahal, 'aurkako' bidearen ekimena bere gain hartu zuten hedabideak etorri ziren. 'Aurkako' diot, komatxo artean, horien estrategia objektibotasunaren izenean edozein eztabaidatan egon zitezkeen ikuspuntu kontrajarriei denbora tarte bertsuak eskaintzea izan zelako (McIntyre 2018: 97). Email-

tzak, informazio zorrotza baino, «baliokidetasun faltsuak» sorrarazi zituen, baita benetan kontrobertsia sinesgarririk ez zegoen kasuetan ere (*ibid.*: 101). «Baliokidetasun» horrek errealitatea desitxuratzeko aukera eman zien askori. Adibidez, 50eko hamarkadatik ia mende amaieraraino iraun zuen tabakoaren estrategia ospetsuak –zientziatik zetozen eta tabakoaren eta minbiziaren arteko harremana agerian uzten zuten ahotsak deslegitimatzen– balantza orekatuaren bidea hartu zuen (Oreskes eta Conway 2018 [2010]: 36-41).⁵

Azkenik, hedabideen bilakaeran aipatzeko moduko mugarri garrantzitsu bat Internet eta sare sozialen sorrera da. Horien eskutik, aldaketak ez dira 'bozgorailu' formatuan soilik etorri. Hau da, afera ez da, besterik gabe, informazioa azkarragoa eta handi-zabalagoa izatea. Aldiz, aldaketa informazio antolaketari dagokio. Azpimarragarriena zera da: identitateek gero eta pisu gehiago irabazi izana eta egitura bertikaleko egituratik egitura horizontalera pasa izana (Törnberg 2018: 2).

Badirudi, lehenengo begiratu batean, sare sozialei so eginik betetzen direla isuri kognitiboak erakusten dituen joerak. Hor eragin nabarmena dute sareetako algoritmoek. Horiexek

izugarri ondo detektatzen dituzte gure gustu pertsonalak; al-diz, itsu dira edukiaren egia-balioari dagokionez (D’Ancona 2019 [2017]: 72). Horrela, «banaketa homofilikoa» deritzona gertatzen da, hots, gure pentsaeraren parekoa duten horiekin elkartzeko joera (*ibid.*: 68).

Banaketa homofilikoan sakondu ahala, sarean oso ohikoa den fenomeno bat ikus daiteke: ‘erresonantzia kutxa’ fenomeno (echo chambers, ingelesez). Erresonantzia kutxak antzeko iritzia duten erabiltzaileen multzoak osaturiko habiak dira, eta bi ezaugarri dituzte: kontaktuaren polarizazioa (*network polarization*, ingelesez) eta iritziaren polarizazioa (*opinion polarization*, ingelesez). Alegia, kideek iritzi bertsua partekatu ohi dute eta beste taldeekiko kontaktua urria da (Törnberg 2018: 3).⁶

Badirudi, sareko desinformazioaren hedapena azaltzeko, informazio edukia bera baino, erresonantzia kutxen ezaugarri biok direla erantzule nagusiak. Alegia, informazioaren edukiak baino, informazioa antolatzen den moduaren arabera zabaldu ohi dira berriak. Horregatik esaten da biraltasuna eta sinesgarritasuna propietate emergenteak direla eta ezin direla informazioaren edukira erreduzitu. Are, esanguratsua da oso nola ez den beharrezkoa erresonantzia kutxako indibiduoak zabaltzen ari diren narratibak sinestea (Törnberg 2018: 6). Edukiak eta edukiaren egia-balioak baino, identitateak, lagunen arteko loturek, taldearen dimentsioak eta bes-telako faktoreek dute pisua. Sareko antolakuntzaren eskutik eskuratzen du berri batek hedapen gaitasuna.

Eta informazioa sarean erresonantzia kutxetan antolatzen da. Erresonantzia eta talde horien dimentsioak baldintzatzen du gai batzuen biraltasuna. Hori horrela, erresonantzia kutxa txikienak edo sendotasun gutxiago duten talde identitateak bazterrean gelditzeko arriskua dago. Informazio habiak dira, non gustuko dugun informazioa gustuko dugun horien eskutik lortzeko aukera izaten dugun. Horrek desatsegin zaizkigun egia ugari bazterrean uztea ekar dezake (McIntyre 2020: 27).

Isuri mediatikoei dagokienez ere, ziurgabetasun egoeretan horien eragina ere areagotu egin ohi da. Horren erakusle da, esate baterako, hedabideek eskuragarritasunaren eta afektua-ren heuristikan duten eragina (Slovic *et al.* 1981: 498-502). Heuristika biok presente daude jendeak gai ezberdinen arriskuak ebaluatzen dituen unean. Biak elkarrekin lotuta daude: arrisku baten adibide gehiago etorri burura eta adibide horiekiko lotura emozionala handiagoa bada, gogorragoak irudituko zaizkigu (Kahneman 2012 [2011]: 186).

Ikusi dugu, ziurgabetasun egoeretan, arriskuak ebaluatzeko moduak eragina duela gure jokabidean. Pertzepzioaren eta ekintzaren arteko lotura kontuan izanik, Kuran eta Sunsteinek (2007 [1999]: 711) isuri horrek politikan eta esparru publikoan eragiten duen modua izendatzeko termino bat asmatu zuten: «eskuragarritasunaren ur-jauzia». Eskuragarritasunaren ur-jauziak komunikabideek iritzi publikoa moldekatzean egiten duten lanaren ondorioetako bat adierazten du: auzi baten arriskuen kontzientzia distortsionatu egin daiteke komunikabideek eskaintzen dioten estalduraren arabera (Kahneman 2012 [2011]: 191).

Hori horrela, eskuragarritasunaren ur-jauziak definitzen ditu sarritan agendako lehentasunak, sarean eta hedabideetan duten estalduraren arabera. Etikoki eta politikoki garrantzi handia duten hainbat gai, beraz, heuristika horren eskuetan distortsionaturik gera daitezke. Ur-jauzi horiek, gainera, ez dira beti kasualitatez sortzen. Duten boterea ikusita, gerta daiteke «eskuragarritasunaren merkatua» sortzea eta gizarte-ko indar eta aktore ezberdinek merkatu horretan lehiatzeko joera izatea (Kuran eta Sunstein 2007 [1999]: 713).

Egiarekiko interesik eza eta hitzontzikeria

Isuri kognitibo eta mediatikoen eskutik, egia-ostera heltzeko pista batzuk lor daitezke. Uler dezakegu zergatik gelditzen diren egia batzuk bazterrean. Hala ere, kontuan izan behar dugu hori ez dela gertatzen soilik gezur eta desinformazioa

dela medio. Egia-ostean posible da gezur eta ezjakintasunetik harago zerbait esatea, eta esango dut. Egia-ostearen muinean egiarekiko interesik eza, hots, axolagabetasuna dago, eta ez dirudi hori ezjakin eta gezurtiaren ezaugarri nagusizat jo daitekeenik. Aitzitik, axolagabetasuna irudikatzen du aproposa den figura bat baldin badago, hori *hitzontzia* da.

Hitzontzikeria nozioa Harry J. Frankfurtek (2005) ekarri zuen eztabaida filosofikoaren erdigunera. Geroztik, orain ere gori-gori dagoen eztabaida piztu da hitzontziaren figuraren inguruan, ez baitago argi zein den hitzontzia definitzeko biderik egokiena (Meibauer 2016: 61).⁷ Dena den, Frankfurtek hasieratik onartu zuen ez zegoela eskura hain ohikoa zen fenomeno horren definiziorik, eta are gutxiago teoriarik (Frankfurt 2005: 1). Hala ere, ahalegindu zen nozioa argitzen, eta, haren aburuz, hitzontzikeriaren ezaugarri nagusia egiarekiko interesik eza da. Hitzontziari bost axola esaten duena egiazkoa edo faltsua den. Egiarekiko eta gauzen izaerarekiko indiferentzia hori da haren ezaugarri bereizgarria (*ibid.*: 33).

Hain zuzen ere, egiarekiko axolagabetasun hori da hitzontziaren eta gezurtiaren arteko desberdintasun nagusia, baita hitzontziaren eta ezjakinaren artekoa ere. Frankfurtek egiazalea eta gezurtia partida berean jokatzen ari direla iradokitzen du, eta egiaren kontzeptua eta balio epistemikoak dira partida horretako joko erregelak markatzen dituztenak. Biek ezagutu eta onartu behar dituzte joko erregela horiek. Gezurtiak arau batzuk hausten ditu, baina, gezur fin bat eraiki nahi badu, ezinbestekoa du aurretik egiazalearen jokoan jokatzea, ondoren iruzurra eraikitzeko. Ezjakinari dagokionez, hori ere partida berean dago, baina jokalaria trakets bat litzateke, egiazaleen taldean egon nahi baina lortzen ez duena (*ibid.*: 51-52). Hitzontziak, ordea, partida horretako arauetatik kanpo jokatzen du.

Hitzontziaren beste ezaugarri bat zera da: toleranteagoak izan ohi gara hitzontziekin gezurtiekin baino (*ibid.*: 62). Hain zuzen, hori izan daiteke, kasu batzuetan, gezurrarena baino, hitzontzikeriaren bidea aukeratzeko arrazoi bat. Frankfurtek sumatu zuen hitzontziak zerbaitez libratu nahi

duela (*ibid.*: 33).⁸ Ez da harritzekoa, beraz, testuinguru jakin batean egia izkin egiteko, gezurraren estrategia baino, hitzontziaren aldeko hautua egiteko tentaldia.

Egia-ostearen arriskuak politikan

Arendten gogoetak

Gezurtia bezain arriskutsua da hitzontzia, nahiz eta ez dirudien hasiera batean horren oldarkorra. Hori hala bada, egia-ostean manipulaziorako estrategia berri batekin egingo genuke topo. Egia kasu gutxi egitea engainurako gakoa izan daiteke kasu horretan.

Intuzio horrek egin zion ziztada urte batzuk atzera Hannah Arendti, eta egiaren eta boterearen arteko harremanaren inguruko gogoeta interesgarri batzuk aurkeztu zituen. Arendtek politikaren eta egiaren arteko harremana tentsiozko harremana dela esan zuen (Arendt 2017 [1967]: 37). Politikariari (batez ere bere boterea inposatu nahi duenean) bere aldeko errealitate bat hobetsiko duen gizarte bat komeni zaio. Helburu horri begira, egiak beti jarriko dio oztoporen bat. Horregatik, ohikoa da deseroso zaion egia hori ezkutatzeko tentaldia (*ibid.*: 72). Horregatik jo ohi da gezurra politikari iaio baten abilezia preziatutzat.

Alabaina, gezurraren premiarik gabe, egia kasurik egitea ere izan daiteke horri izkin egiteko bide eraginkorra. Modernitatean politikako iruzurrak bide horretatik doazela dio Arendtek. Estrategia berria egiak iritzien erresumara ekartzean datza (*ibid.*: 33). Egiaren eta iritzien erresumak ezberdinak dira, baina bien arteko muga gero eta lausoagoa da, eta hori arazo bat da. Bigarrenak askoz askatasun gehiago eskaintzen du. Iruzurtiak, bere gezurra inposatzeko botererik ez duenean, askoz errazago egiten du aurrera bere judizioa, egia gisa baino, iritzi moduan salduz gero; are, aukera balu, hori egiteko eskubidea duela jar lezake aitzakia gisa (*ibid.*: 55). Izan ere, iritzien erresuman, egiaren izaera despotikotik ihes egin daiteke. Hori badago nolabaiteko sintonian Frankfurten hitzontziarekin.

Finean, Arendtek erakusten digu egiaren eta politikaren arteko gudu klasikoak maila bat gora egin duela: dagoeneko ez dira gezur puntualak esaten, eta iruzurra ez datza egitateak ezkutatzeko trikimailu sekretuetan (*ibid.*: 62), baizik eta iritzien eta ezagutzaren arteko marra lausotzean. Gainera, gezur politiko modernoek sekulako dimentsioak hartzen dituzte eta manipulazio masibo baterako tresneria ikaragarria egon daiteke martxan: instituzio politikoak, administrazioa, komunikabideak edo historiaren manipulazioa (Arendt 1967 [2017]: 62) eta, egungo gizartean, Interneteko mundua eta sare sozialak.

Terminoak bera aipatu gabe, egia-ostearen argazki bikaina. Horren aurrean, badugu zertaz kezkatu. Batez ere, gorago aipatu krisialdian. Krisialdi horietako egia deseroso askori izkin egiteko estrategiak ikusten dira egia-ostean eta, kasu askotan, ziurgabetasuna izan ohi da horiei ezikusiarrena egiteko aitzakia.

Latourren kezka

Kezkatuta agertu den ahots bat Bruno Latourrena (2018 [2017]) da. Latour kezkatzen da aldaketa klimatikoaz mintzo denean, bereziki horren aurrean ikusten duen erantzunarekin. Aldaketa klimatikoaren mehatxua, dakartzan arrisku eta erronkak errealak dira, badago ebidentzia eskerga hori erakusten duena. Ondikoz, Latourren arabera «planetak hitz egin du» eta agerian utzi orain artean ortzimugan izan dugun etorkizuna ez dela jasagarria (*ibid.*: 12). Planeta mintzatu da, egia ate-joka dugu eta oso deserosoa da. Erantzuna, ordea, egia hori eta autoritate horiek gutxiestea da (*ibid.*: 27).

Gakoa, hor, ez da soilik zientziazatik datozen ahots horiek

Gezurtia bezain arriskutsua da hitzontzia, nahiz eta ez dirudien hasiera batean horren oldarkorra. Hori hala bada, egia-ostean manipulaziorako estrategia berri batekin egingo genuke topo

deslegitimatzen dituztela. Aldiz, estrategia harago doa: egia-
ren izenean hitz egiteko aukera bera uxatzen dute sarri, edo
aukera hori politikaren esparrutik kanporatzen dute behintzat.
Horrek Frankfurten hitzontziaren zein Arendten estrategia
berriaren oihartzuna du. Egiazko enuntziatuen eta enuntziatu
faltsuen artean bereizketak egiteko aukera gutxiesten dugu-
nean, Frankfurtek bi aukera ditugula dio: lehena, egiazko ezer
edo faltsua den ezer esateko aukerari uko egitea, hots, isilik
gelditzea; bigarrena, hitz egiten jarraitzea, baina hitz-jario ho-
ri hitzontzikeria izatea (Frankfurt 2005: 72). Ez dirudi «elite
ilunek» isiltasunaren aldeko hautua egin dutenik. Hitz-jario
hori hitzontzikeria besterik ezin da izan, beraz.

Egia deserosoak eta ziurgabetasuna ekuazio berean

Egia deserosoen inguruan ohar interesgarriak egin dituen
autore bat Ulrich Beck (1998 [1986]) da. Beckek dio moder-
nitate berantiarreko arriskuek, aldaketa klimatikoaren kasu,
historian zehar izan diren gainerako arriskuen aldean badu-
tela berezitasun bat: ez datoz kanpotik, aberastasuna pro-
duzitzen duten sistema horiexek produzitzen dituzte (*ibid.*:
25). Gainera, arrisku globalak dira, ez pertsonalak. Halaber,
arrisku horiexek kasu gehienetan ez dute atzera-bueltarik
izaten eta kalte sistematikoak eragiten dituzte. Horrez gain,
arrisku horien aitortzak kontraesanak sortzen ditu produkzio
sistemen defentsan: ez dira beti bateragarri izaten arrisku ho-
rien existentzia mahai gainean jartzea eta produkzio sistema
horien aberastasun eta interesen defentsa (*ibid.*: 29).

«Lurrak hitz egin ahala» agerian gelditzen diren arriskuak
sistemak ondo funtzionatzen duen neurrian produzitzen di-
ren arriskuak dira, eta, beraz, sistemak 'normal' funtzionatu
bitartean jarraituko dute edo areagotuko dira. Neurri gogor
eta deserosoak behar dira horiei aurre egiteko. Konfinamen-
du bat planteatzen dugunean edota produkzio eta ustiaketa
sistemak aldatzeko beharra azpimarratzen denean, halako
neurriez ari gara. Halaber, egia horiek deseroso suertatzen

dira baita jende xumearentzat (eta ez hain xumearentzat) ere. Hiritarren oniritzia eta konplizitatea dute askotan neurri gogor horiek atzeratzen dituztenek edota egia deseroso horiei entzungor egin nahi dietenek.

Horixe ikusten du Latourrek: neurriak hartu ordez, ezer pasako ez balitz bezala egin ohi dugu, arazorik egotekotan bere kabuz konponduko balitz bezala (Latour 2018 [2017]: 14). Finean, desarautzea eta neurriak hartzea atzeratzea. Inor ez dago prest sistema geldiarazteko. Latourrek Titanic itsasontziko eszena ekartzen du gogora: itsasontzia hondoratzen ari da, baina musikariek jotzen jarraitzen dute (*ibid.*: 29).

Koktel arriskutsu horretan, ziurgabetasunaren osagaia ere sartzen da. Hitzontzi horien diskurtsoetan ohikoa izaten da ziurgabetasunari erreferentzia egitea, egia horien eta horiek mahaigaineratzen dituen zientziaren autoritatea gutxieteko. Anthony Giddensek (2002 [1999]) ere arrisku moten inguruko ohar interesgarriak egiten ditu. Horietako bat *kanpoko arriskuen* eta *arrisku manufakturatuen* bereizketa⁹ da (*ibid.*: 26). Bigarren horiek oso gertu daude Becken arrisku noziotik.

Giddensen arabera, horiexek sarri ziurgabetasunari loturik aurkeztu ohi zaizkigu (*ibid.*: 29). Ziurgabetasunaren faktorea txertatzen dugunean, arrisku horien kudeaketa politikoa alarmismoaren eta ezer ez egitearen balantzan gelditzen da (*ibid.*: 31). Batetik, politikatik arrisku horiek serio hartuko balira, horrek neurriak hartzea eta neurri horiek publikoki justifikatzera bultzatuko gintuzke. Ordea, azken buruan arrisku horiek ez balira uste bezain gogorak, neurri horiek hartu dituen politikaria alarmistatzat joko litzateke. Bestetik, ziurtasun osoz determinatu ezin diren arrisku horien kasuan, politikariek, alarmismotik ihesi, neurri gogorak hartzea saihestu lezakete.¹⁰ Era berean, jarrera hori Latourrek deskribaturiko jarrera axolagabearen parekotzat joko litzateke arriskua azkenean uste baino larriagoa suertatuz gero (Giddens 2002 [1999]: 31).

Krisi baten kudeaketan ekuazioan ziurgabetasuna sartzen denean, balantza delikatu horrekin egiten dugu topo.

Balantza saihestezina da, baina terreno aproposa da alde jakin batean pisua jarri nahi duenarentzat. Uste dut hori dela egia-osteko aktore batzuen kasua. Izan ere, nahiz eta ziurgabetasuna zientziaren parte izan, aspektu horri begira jarrita ez da zaila zientzia bera gutxieste¹¹. Ziurgabetasuna egia mespretxatzeko aitzakia eraginkorra izan daiteke.

Ondorioak

Egia-ostearen aroa aztertu ahala, ondoriozta daiteke egia-ostea egia krisian dagoen garai bat dela. Esan bezala, ez bereziki egia ezkutatzen delako edo egiaren bilaketa jardun zaila delako. Haatik, parez pare dugunean ere kasurik egiten ez diogulako. Horrek baditu inplikazio ugari.

Nahiz eta *egia* kontzeptu ilun eta misteriozua iruditu da-kigukeen, definitzen eta zedarritzen zaila, filosofian ez ezik

Egia-ostea egia krisian dagoen garai bat da.

Ez bereziki egia ezkutatzen delako edo egiaren bilaketa jardun zaila delako. Haatik, parez pare dugunean ere kasurik egiten ez diogulako

gure egunerokotasunean kontzeptu zentrala da, beharrezkoa. Krisialdi horietan ikusi dugu egiarekin elkarrizketa bat egiteko beharra. Besteak beste, egoera horietan egia deseroso ugarirekin topo egin dugulako. Musukoa janzte, etxean konfinatu beharra, birziklatzea bera edota mugatuak diren aberastasun eta lehengaiak banatzea, denak dira eginbehar deserosoak. Egiak atea jo ahala, hainbat arriskuz ohartaraz-

ten gaitu eta horrek ataka estuan jarri ohi gaitu. Gainera, ziurgabetasunaren faktoreaz bustirik etortzen da maiz.

Ziurgabetasunaren faktoreak krisialdi horiek busti ahala, egiaren premia areagotzen da, baina baita harekiko harremana zaildu ere. Horregatik, ziurgabetasunaz blaitutako krisi horiei aurre egiteko, egia-ostearen inguruko azterketa

beharrezkoa dela ondorioztatzen dut. Egiarekiko axolagabetasuna dela medio, egiaren ahalmena galdu dugu, besteak beste duen ahalmen salatzailea. Galera handia da hori.

Azkenik, iruditzen zait, nahiz eta testu honetan zientziaren presentzia pisuzkoa izan den, hemen idatzitakotik ateratzen diren ondorio batzuk zientziatik harago dauden esparruetara eramán daitezkeela.

Auzi sozial ugáritan daude deserosoak diren egiak. Pertsonalki, feminismoak erakutsi izan dit niri egia deseroso ugari nola mespretxatzen diren, hainbat aurpegi dituen biolentzia erabiliz. Aitortu behar dut: neska, gazte eta filosofoon buruhauste ohikoa da gure ahots goxoa *serio* hartzeko aldarria. Orobat, borroka sozial gehienak egia deserosoz blai daude. Gizonezkoentzat deserosoak dira feminismoaren zenbait aldarri, zuriontzat borroka arrazialarenak, europarrontzat Mediterraneotik datozen etorkinen errealitatea... Orobat, goikoarentzat beti dira deseroso azpitik datozen aldarriak, eta errealitate horiek ziurgabetasunaren eskutik mespretxatzea estrategia eraginkorra izan ohi da.¹²

Serio hartzen ez dena nekez bilakatzen da aldaketa sozialerako motor. Egia-ostean, non egiarekiko interesik eza orokorra den, gero eta zailagoa izango da orain artean txikitzat hartu diren ahots eta errealitate horiek serio har daitezen. 🌱

Oharrak

1. Hemen 'arrisku' terminoa ingelesezko 'risk' terminoaren itzulpen gisa erabili dut.
2. Komeni da argitzea emozioek arrazoiketan eta erabakiak hartzeko prozesuetan duten eragina hemen aurkezten dudana baino zabalagoa eta konplexuagoa dela. Ziurgabetasun egoeretan baliatu ohi ditugun mekanismo kognitiboetan luze ikertu da emozioek duten eragina. Ikerketa horien bidetik, teoria razionalistenek, EUTak adibidez, gero eta pisu gehiago galdu eta emozioen papera azpimarratzen duten teoriak areagotu dira (Debarati *et al.* 2013: 37). Ikusi da emozioek modu askotan eragin dezaketela gure erabakiak hartzeko prozesuetan, eta hori ez dela beti modu negatibo batean. Hala ere, esku artean dudan auzia aztertzeke ez dut gai horretan sakonduko, nahiz eta irakurleak bibliografia atalean izango duen informazioa eskuratzeko iturrien berri.
3. Sunstein eta Zeckhauserren lanak oso ongi erakusten du alarmismoaren atzean egon daitekeena. Ordea, alarmismoa ez da ziurgabetasun egoeretan dagoen faktore arriskutsu bakarra. Batez ere, ziurgabetasun egoeren kudeaketa politikoa eta horrek egia-ostearekin duen harremana aztertzen denean, kontrako jarrera, alegia, pasibotasuna edo ezer ez egitearen joera ere arriskutsua dela erakutsiko dut.
4. 'Erabakiaren arkitektura' deritzo erabaki bat hartzen dugunean edo judizio bat egiten dugunean informazioa aurkezten duen formatuari. Antza, informazioa aurkezten duen formatuak eragina du gure isuriak areagotzen edo gutxitzen (Sunstein eta Thaler 2008).
5. Nire Gradu Amaierako Lanean (Zubia 2019), 'tabakoaren estrategia' deritzona aurkeztu nuen (Oreskes eta Conway 2018 [2010]). Zalantza-merkantilizazioa eta tabakoaren industriak eraman zuen estrategia oso adibide aproposak dira hori ulertzeko. Ez dut hemen sartu, baina irakurleari gomendatzeko moduko testua da Oreskes eta Conwayrena.
6. Erresonantzia kutxen fenomenoak eta, orobat, talde identitateak eta horren dimentsioak informazioaren hedapenean eta usteen eraketan duen (edo 'duten') eraginak berretsi egiten du psikologia kognitibotik askotan aztertu den fenomenoak: talde presioaren eragina gure usteak konfiguratzerakoan. Solomon Aschek (1955: 31-35) ondo azaltzen du hori.
7. Esaterako, autore ugari zalantza jarri dute Frankfurt hitzontziaren ezaugarri nagusia, hots, egiarekiko interesik eza (Cohen 2002, Kimbrough 2006, Carson 2010, Stokke eta Fallis 2017, Fallis 2015).
8. 'Zerbaitez libratu' hori zertan datzan erakusteko, *Dirty Story* (1967) eleberriko Abdel Simpson pertsonaiaren aitak semeari ematen dion aholkua ekartzen du gogora: «ez ezazu gezurrik esan hitzontzikeria-ekin aurrera aise egiteko aukera izanez gero» (Ambler 1967: 25).

9. Kanpoko arriskuak kanpotik datozenak dira, itxuraz saihestezinak eta giza jarduerarekiko independentea den iturri bat dutenak, adibidez, lurrikara bat. Aldiz, bigarrenak ekoiztako arriskuak dira, besteak beste, industrializazioaren, garapen eta ekoizpen teknologikoaren eta naturaren ustiaketaren ondorio direnak.
10. Alarmismoaren eta ez ekitearen balantza bat dator arrisku eta ziurgabetasun egoeretan aurkeztu ohi ditugun mekanismo kognitiboekin. Ikusi dugun moduan, arriskuak ebaluatzen ditugun moduaren arabera, gure jokabidea ekitera edo ez ekitera bideratuko dugu. Horrek politikan duen eragina ere seinalatu zuten, Giddensekin sintonian (Sunstein eta Zeckhauser 2011: 436).
11. Heather Douglasek gisa honetara funtzionatzen duten negazionismoak aztertu zituen. Horieta batzuen eragiketa zera da: aldaketa klimatikoaren inguruko ziurtasun nahikorik ez dugunez, ez dago hori defendatzen dutenei kasu egiteko aparteko arrazoirik. Esanguratsuen da Douglasen ustez (2006: 215-216) diskurtso horiek hitzontzikeria kasuak direla.
12. Bide horretatik, Miranda Frickerren (2017 [2007]) injustizia epistemikoen nozioa egia-ostearen talaiatik aztertzea interesgarria izango litzateke; baita nire kide den Unai Bayonek (2019) horren inguruan egin duen lana ere. Bayonek injustizia epistemikoak pobrezia ikuspuntutik aztertu zituen, eta modu agerikoan azaldu zituen horien atzean zeuden egitura sozialen dinamikak. Halaber, horiei aurre egiteko neurriek ere egitura aldaketak ekarri behar dituztela azalera-tu zuen esplizituki, eta horrek guztiak modu agerikoagoan uzten du zein deseroso suertatzen diren testigantza horiek.

Bibliografia

- Ambler, Eric (1967): *Dirty Story*, Londres, The Bodley Head.
- Arendt, Hannah (2017 [1967]): 'Verdad y política', in *Verdad y mentira en la política*, Bartzelona, Pàgina Indómita, 11-80.
- (2017 [1972]): 'La mentira en política', in *Verdad y mentira en la política*, Bartzelona, Pàgina Indómita, 81-142.
- Asch, Solomon (1955): 'Opinions and Social Pressure', *Scientific American* 193(5): 31-35.
- Bayon, Unai (2019): 'Pobrezia, giza ahalmenak eta injustizia epistemikoak? Filosofiako Gradu Amaierako Lana. UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
- Beck, Ulrich (1998 [1986]): *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*, Bartzelona, Paidós.

- Carson, Thomas L. (2010): *Lying and Deception*, Oxford, Oxford University Press.
- Cohen, Gerald A. (2002): 'Deeper into Bullshit', in S. Buss eta L. Overton (argk.): *The Contours of Agency. Essays on Themes from Harry Frankfurt*, Cambridge, MIT Press, 321-339.
- D'Ancona, Mathew (2019 [2017]): *Posverdad, la nueva guerra contra la verdad y cómo combatirla*, Madril, Alianza.
- Debarati, Bandyopadhyay; Chandrasekhar, Pammi; Narayanan, Srinivasan (2013): 'Role of Affect in Decision Making', *Progress in Brain Research* 202, 37-53.
- Douglas, Heather (2006): 'Bullshit at the Interface of Science and Policy: Global Warming, Toxic Substances, and Other Pesky Problems', in Hardscastle eta Reisch 2006, 99-113.
- Edwards, Ward (1953): 'Experiments on Economic Decision Making in Gambling Situations', *Econometrica* 21, 349-350.
- (1954): 'The Theory of Decision Making', *Psychological Bulletin* 51(4), 380-417.
- Fallis, Don (2015): 'Frankfurt Was't Bullshitting!', *Southwest Philosophical Studies* (<https://ssrn.com/abstract=2462769>).
- Festinger, Leon (1957): *A Theory of Cognitive Dissonance*, Stanford, Stanford University Press.
- Foster Wallace, David (2005): 'Host: Deep into the Mercenary World of Take-No-Prisoners Political Talk Radio', *The Atlantic*, 2005eko apirila (www.theatlantic.com/magazine/archive/2005/04/host/303812; eskuratze eguna: 2020-08-13).
- Frankfurt, Harry J. (2005): *On Bullshit*, New Jersey, Princeton University Press.
- Ghasemiesfeh, G.; Ebrahimi, R.; Gao, J. (2013): 'Complex Contagion and the Weakness of Long Ties in Social Networks: Revisited', in Association for Computing Machinery: *Proceedings of the Fourteenth ACM Conference on Electronic Commerce*, Association for Computing Machinery, 507-524.
- Fricker, Miranda (2017 [2007]): *Injusticia epistémica*, Bartzelona, Herder.
- Giddens, Anthony (2002 [1999]): 'Risk', in *Runaway World. How Globalisation is Reshaping Our Lives*, New York, Routledge.
- Hardscastle, Gary L.; Reisch, George (argk.) (2006): *Bullshit and Philosophy. Guaranteed to Get Perfect Results Every Time*, Chicago, Open Court Publishing.
- Kahneman, Daniel (2012 [2011]): *Pensar rápido, pensar despacio*, Bartzelona, Debate.
- Kimbrough, Scott (2006): 'On Letting It Slide', in Hardscastle eta Reisch 2006, 3-18.

- Kuran, Timur; Sunstein, Cass R. (2007 [1999]): 'Availability Cascades and Risk Regulation', *Stanford Law Review* 51(4), 683-768.
- Latour, Bruno (2018 [2017]): *Dónde aterrizar. Cómo orientarse en política*, Madril, Taurus.
- Loewenstein, George; Lerner, Jennifer S. (2003): 'The Role of Affect in Decision Making', in R. Davidson, H. Goldsmith eta K. Scherer (argk.): *Handbook of Affective Science*, Oxford, Oxford University Press, 619-642.
- McIntyre, Lee (2015): *Respecting Truth. Willful Ignorance on the Internet Age*, New York, Routledge.
- (2018): *Posverdad*, Madril, Cátedra.
- (2020): *La actitud científica. Una defensa de la ciencia frente a la negación, el fraude y la pseudociencia*, Madril, Cátedra.
- Meibauer, Jörg (2016): 'Aspects of a Theory of Bullshit', *Pragmatics & Cognition* 23(1), 68-91.
- Nichols, Tom (2017): *The Death of Expertise. The Campaign against Established Knowledge and Why It Matters*, Oxford, Oxford University Press.
- Oreskes, Naomi; Conway, Erik (2018 [2010]): *Mercaderes de la duda. Cómo un puñado de científicos ocultaron la verdad acerca del cambio climático*, Madril, Capitán Swing.
- Quiggin, John (1982): 'A Theory of Anticipated Utility», *Journal of Economic Behaviour and Organization* 3(4), 323-343.
- Schoemaker, Paul (1982): 'The Expected Utility Model: Its Variants, Purposes, Evidence and Limitations', *Journal of Economic Literature* 20, 529-563.
- Slovic, Paul; Fischhoff, Baruch; Lichtenstein, Sarah (1981): 'Perceived Risk: Psychological Factors and Social Implications', *The Royal Society* 376(1764): 17-34.
- Stokke, Andreas (2019): 'Bullshitting', in J. Meibauer (arg.): *The Oxford Handbook of Lying*, Oxford, Oxford University Press, 264-276.
- Stokke, Andreas; Fallis, Don (2017): 'Bullshitting, Lying and Indifference toward Truth', *Ergo* 4(10), 277-309.
- Sunstein, Cass R.; Thaler, Richard (2008): *Nudge. Improving Decisions About Health, Wealth, and Happiness*, Londres, Yale University Press.
- Sunstein, Cass R.; Zeckhauser, Richard (2011): 'Overreaction to Fearful Risks', *Environmental and Resource Economics* 48, 435-449.
- Törnberg, P. (2018): 'Echo chambers and viral misinformation: Modeling fake news as complex contagion', *PLoS ONE* 13(9).
- Zubia, Irati (2019): 'Egia-ostea eta honen arriskuak'. Filosofiko Gradu Amaierako Lana. UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.

Pandemiaren arrazoiak: konspirazioaren, paranoiaren eta negazionismoaren defentsan

Joseba Gabilondo

*Michigan Estatuako Unibertsitateko literatura eta kultura
iberiarretan irakaslea*

Konspiranoinegazionismoa oinarrizko politika bezala

Europako ezker ilustratu eta arrazoizaleak COVID-19 birusaren eta horren kudeaketaren inguruan hedatu diren diskurtso konspiratzaile, paranoiko eta negazionisten irrazionaltasunari (konspiranoinegazionismoari) erantzun kartesiar bat kontrajartzea erabaki du, irrazionaltasun hori eskuinak sustatu duela argudiatuz. Alabaina, azken mende osoan gertatu den bezala, kontrajartze eta kondena razionalista ezkertiar horrek azkenean gutxiengo ilustratu eta arranditsu baten erantzun efektugabe eta indargabea izaten amaitu du, berriro ere ezkerarren politika talde gutxituen dinamikara murriztuz eta jende gehiengoaren babesa galduz.

Ironikoki, koronabirusaren 'egia' aldarrikatzea jende edo herri (populu) gehiengoaren aurka («Datuak dira garrantzitsu! Datuetan dago egia! Zientziari eutsi behar diogu!»), 1968tik ezkerrek egin duen hutsegite orokorrago baten azken errepikapena baino ez da. Alegia, razionalismo ezkertiar hori «ezkerrek ez du oraindik alternatiba konbentzigarririk»

onarpen antzuaren beste episodio edo pasarte bat baino ez da. Eta ezker kartesiar horrek oraindik galdetuko du: ez al ditugu bada zientzia, egia eta datuak aldarrikatu behar eskuinaren demagogia populista irrazional konspiratzaile-paranoiko-negazionistaren kontra? Azken batean, ez al dugu bada lurra laua ez dela aldarrikatu behar? Eta erantzun bakarra zera da, hori arazo *politiko* erratua dela, kinka *politikoa* beste nonbait dagoela.

Txiste ezagun batek argitu dezake ‘arazo politiko erratuaren’ auzi hori: zoro batek, zoroetxetik gauez ihes egin nahian, kanpoko ateko giltzak lortzen ditu, baina, bat-batean, erori egiten zaizkio leku ilun batean. Alabaina, bertan giltzak bilatzen hasi beharrean, harantzago dagoen farola baten argipean hasten da arakutzen. Lagun batek galdetzen dio leihotik zergatik ari den farolapean giltzak bilatzen, eta ez erori diren leku ilunean. Eta zoroaren erantzuna erabat razionala, ilustratua, kartesiarra eta faktuala da: «Bai, baina farolapean argia dago!». Egun, pandemiaren garaian, ezkerak farolapean segitzen du arazo politiko hori bilatu, topatu eta konpondu nahian, erraturik.

Beraz, berriro ere giltzak galdu diren lekune ilun eta argigabera itzuliz, defendatu nahi dut artikulu honetan konspirazionismoa, paranoia eta negazionismoa (konspiranoinegazionismoa) era edo forma politiko emankor, aktibo eta populistak direla eta, beraz, beren ‘politikotasun’ konplexuan ulertu eta analizatu behar direla, ilustrazio arrazoidunaren farolapean berriro tronpatuta amaitu nahi ez badugu, zoroetxetik irten ezinik. Hots, konspiranoinegazionismoa 2011-2019 urteen artean jazo diren errebolta eta protesten sareko hedapen digitala da, eta ‘arrazoi’ populista baten diskurtso politikoa, halaber. Are, edozein jardunen abiapuntu zinez politikoa konspirazioa, paranoia eta negazionismoa direla defendatuko dut, eta, aldiz, egia razional eta egitatezkoaren defentsa ilustratu ez-politikoak beti estatu neoliberalaren aldean, berorren arrazoiaren defentsan, amaitzen duela. Hots, egun ezker kartesiarrek arrazoi neoliberalaren defentsan amaitu du, aspaldidanik feminismoak (Haraway 1988)

neoliberalismoari kontrajarritako *ezagutza sendo eta lekutu* baten alde egindako deiak ignoratuz.

Agian, gogoratu behar da, orain Jürgen Habermas eta Slavoj Žižek zahartuta edo saihestuta suertatu diren honetan, Europako filosofo sonatuenak, Giorgio Agambenek (2020), martxoan pandemia Italian hedatzen hasi ahala, paranoiara eta negazionismora jo zuela, birusaren garrantzia ukatu eta atzean estatuaren interbentzio forma berri bat zetorrela salatuz. Hots, egun arrakastatsua suertatu den hitza erabiltzeko, Agambenengan filosofo arrazoidunaren eta ‘magufo’ arrazoi-gabearen irudiak bateratu ziren, pandemiaren garaian ‘Europako arrazoiaren desarrazoia’ nagusi eta lege zela errebelatuz.

Estatuaren beste errepresio fase bat bazetorrela baiestean Agambeni arrazoirik falta ez zitzaioela onartuta ere, birusa ukatzeak, beste gripe bat baino ez zela aldarrikatuz, populazio saldoen heriotzari atea zabaltzea suposatzen zuen, eta, beraz, desarrazoi hutsa egiazat aldarrikatzea. Desarrazoi hori ez da Agambenena bakarrik, Žizেকেk berak ere konpultsi-boki eta azkarregi atera berri duen pandemiaren liburuan, *IZUrriA!* (2020), komunismo-rako aukerak sekula baino argiagoak eta posibleagoak direla baiesten amaitu du, errealitatea ignoratuz –neoliberalismoaren gogorkeria hazkorra ignoratuz–; beraz, bere diskurtso filosofiko eta arrazoitua desarrazoian oinarritzen dela frogatu du. Bestela esanda, Agamben edo Žizeken diskurtsoetan ere, konspiranoinegazionismoa da nagusi. Hots, arrazoi filosofiko europarraren erroan ere konspirazioa, paranoia eta negazionismo irrazionala ikusta ditzakegu. Gilles Deleuze eta Félix Guattarik ere, *Kapitalismoa eta eskizofrenia* (2004 [1972-1980]) liburuki bikoitzean,

Konspirazionismoa, paranoia eta negazionismoa era edo forma politiko emankor, aktibo eta populistak dira eta, beraz, beren ‘politikotasun’ konplexuan ulertu eta analizatu behar dira

kapitalismoaren bi egitura nagusiak eskizofrenia eta paranoia zirela argudiatu bazuten, azkena faxismoarekin eta totalizazio erreakzionarioarekin lotuz, bada garaia lotura hori era emankorragoan birpentsatzeko.

Hemendik aurrera, dena den, konspirazio-paranoia-negazionismoaz mintzatzeko, 'paranoia' hitz orokorra erabiliko dut, laburtasunaren eta ulergarritasunaren kariaz, nahiz eta formazio edo eratze hirukoitz hori bere hirukoiztasunean azaltzeko baliatuko dugun. Hala, bi paranoia bereiz ditzakegu. Alde batetik, arestian aipatutako ezkerreko arrazoi europarraren desarrazoia, hots, arrazoi ilustratu eta filosofikoaren erdian errotu eta hazi den paranoia, Agamben eta Zizek lekuko. Bestetik, herri mailan hedatuagoa den paranoia populista eta/edo kontserbatzailea dukegu –nahiz eta ezkerreko bertsio bat ere egon–. Bi paranoia horien artean hedatzen den erlazio eta egitura ustegabea ulertzeko, beti ere analisi historikora (historiara) jo behar dugu, birusak eta pandemiak ezarri duten egoera 'aurrekaririk gabe' eta 'errotik berriaren' erroan datzan jarraitutasun historiko konplexua hobe ikusatzeko. Historia hori hiru modu desberdinetan banatu eta aztertu daiteke gutxienez, hiru era kateatu baina berezitan, hiru kontraesan sintomatikoren adierazle bezala. Hiru era horiek, era berean, artikulu amaieran azalduko dudan hipotesi orokorrago eta bateratu baterako abiapuntu lirateke.

Adituak eta grafikoen ezjakintasuna

Egungo egoera historikoki ulertzeko lehen moduak adituen (*expert*) ugalketarekin du zerikusia. Birusa Txinatik Mendebaldera hedatu zenetik, demagun 2020ko lehen bi hilabetee-tan (lehenago hedatu bazitekeen ere), diskurtso eta subjektu berri bat sortu da Ipar Globalean: zenbakien eta grafikoen *adituarena*. Alegia, denok azaldu dugu orain artean inoiz izan ez dugun interesa zenbakietan: hildakoak eta kutsatutakoak. Baina zenbaki jatorriz oso simple horiek ezusteko interesa sortu dute espazioarekin eta denborarekin loturik.

Denok ikusi ditugu espazioarekin edo geografiarekin lotu-tako grafikoak, estatuka, kontinenteka, elkargoka, probintziaka, herrika eta eskualdeka banaturik. Geografia horiek erkatzen dituzten are grafiko konplexuagoek ere (EAE eta Nafarroa erkatuz, EAE munduko beste estatuekin konparatuz) arrakasta handia izan dute. Grafiko horiek oraindik are konplexuago bilakatu dira denborarekin lotu direnean; izan ere, eguneko, asteko, hilabeteko eta urteko heriotzak eta kutsadurak konparatuz eta erkatuz, gure grafiko eta estatistikako zaletasunak mukurdu egin du. Are, kutsadura ratioak ere zer diren ikasi dugu.

Eta, hain zuzen, datu, grafiko eta erkaketa ugaritu eta amaiezinen ondorio bikoitza ezustekoa izan da. Alde batetik, denok bihurtu gara zientzialari eta aditu datuen ikerketa eta analisisien zentzekien eta estatistikaren populismo kognitibo bat sortu da. Denok bihurtu behar izan dugu 'epidemia aditu'. Baina, bestetik, orain artean ezkerrek deitoratu duen pertsonaia politikoa bat, neoliberalismoaren ideologiaren ardatz den subjektu bat, berriro ere arrakastatsu eta popular (populista) bilakatu da: aditua (gobernuaren aditua). AEBetan Anthony Fauci (National Institute of Allergy and Infectious Diseases-en zuzendaria eta Trump administrazioko White House Coronavirus Task Force-ren burua) edo Espainian Fernando Simón (Osasun Ministerioko bozeramailea) aditu klase horren adierazgarri ditugu. Ironikoki, EAEn, Iparraldean edo Nafarroan adituek ez dute antzeko arrakastarik izan, eta, aitzitik, Arantxa Tapia (ingeniaritza industrialean doktorea eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua) bezalako aditu-politikariek jasan dituzte kritika latzak herriari leporatzeagatik birusaren kudeatze porrotatuaren errua. Bere esaldi sonatuak sarean izan dituen kritikak eta isekak aipagarriak dira zentzu horretan. Tapiaren arabera, normaltasun zaharrera itzultzeko antsiek «nos han llevado como sociedad a no comportarnos como requería la situación» (Vallejo 2020).

Arantxa Tapiarena bezalako jarrerak esplikatzen dute egoeraren historiaren jarraitutasun inondik ere ez 'aurrekaririk

Kapitalismo neoliberalak
aditua edo espertoa,
eta ez ordezkari
demokratikoki aukeratua,
jarri badu ekonomiaren
eta bizitzaren
kudeaketaren gunean,
pandemiak areagotu egin
du subjektu neoliberal
adituaren zentraltasuna

gabea' eta, jarraitutasun historiko horretan, dena den, sortu diren kontraesan berriak. Kapitalismo neoliberalak aditua edo espertoa, eta ez ordezkari demokratikoki aukeratua, jarri badu ekonomiaren eta bizitzaren kudeaketaren gunean, subjektu ardatz bezala, pandemiak areagotu egin du subjektu neo-

liberal adituaren zentraltasuna (non azkenean zenbakiak, grafikoak eta algoritmoak diren subjektu aditu neoliberalaren tresna nagusi). Horretan Michel Foucaulten (2014) edo Ivan Illichen (2000) lanak nahikoa dira biopolitikak eta gobernamentalitateak neoliberalismoa nola eratzten duten ulertzeko. Baina, ironikoki, pandemiak era berean adituaren krisia ekarri du, zientziak eta jakintzak beti ere boterearekin izan duten erlazio mina oraingoan are gardenago azal-

du baita, zeinaren ondorioz batzuetan zientzialariak zentsuratuak izan diren eta beste batzuetan boterearen alde hartu duten datuak bihurrituz. Hain zuzen horregatik, adituaren garairik oparo eta zentralenean, pandemiaren garaian, subjektu neoliberal gune horrek bere sinesgarritasuna galdu du. Baina, adituaren figura edo subjektu paradigma bera ez da kolokan jarri, baizik eta 'populartu' edo demokratizatu egin da: denok bihurtu gara aditu eta zientzialari. Euskal Herriko kutsadura eta heriotza datu garrantzitsu eta fidagarrienak denbora luzean ez dituzte gobernuek eman (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu...), baizik eta hiritar pribatuek, zeinak, zientzia background bat izanda ere (biologia, estatistika...), ez diren immunologian adituak, eta, gobernuek argitaratzen dituzten datuak arakaturik eta analizaturik, Twitter bezalako plataformetan argitaratzen dituzten. Hala nola Galder Gonzalez

(@theklaneh). Beraz, paranoia, konspirazio eta negazionismoaren logika eta diskurtsoa ulertzeko, lehenik eta behin historia jarraitu baina kontraesankor hori esplikatu behar dugu: aditu neoliberalaren krisia eta era berean adituaren paradigmaren hedatze edo 'populartze' demokratikoa, non denok amaitu dugun aditu izaten.

Izan ere, Thomas Frankek, oraintsu argitaratu duen *The People, No. A Brief History of Anti-Populism* (2020) lanean, argi azaltzen du neoliberalismoaren subjektu aditu zentrala klase ertainek klase herrikoiagoen aurka 1950etik aurrera hedatutako urruntze eta herra sozialean oinarritzen dela eta horren fruitu dela. Egun, aitzitik, kontrako fenomenoak dugu: klase ertainak eta herrikoiagoak dira adituarengandik urruntzen direnak, adituaren lana eta paradigma bereganatuz, beren bizkar hartuz eta, ondorioz, 'jakintza herriko' bat sortuz: ez-adituen jakintza popularra eta demokratikoa. Jakintza horretan jada ez dago zientziaren eta datuen aldarrikatze ezkertiar razionalista eta ilustraturik: guztiok, ezker razionalistako gizabanako kartesiarrenak barne, gure usteak, iritziak eta teoriak ditugu, gure 'jakintza ez-aditu aditua', zer gertatu den eta gertatzen ari den esplikatzeko. Ez dago kasu argiagorik Euskal Biologoek Elkarteko zuzendariak idatzi zituen artikulu eta blog konspiranoinegazionistak baino, non, zientziaren izenean, zientzialari bezala, aditu ofizialen eta zientzialari kideen datu eta baieztapenak kontraesaten zituen, bere jakintza biologikoa diskurtso herrikoia eta subjektibo bihurtuz adituen kontra (alegia, bere buruaren eta bere diziplinaren eta instituzioaren kontra).

Paranoia ugalketa: lur laua, Iruña-Veleia, feminismo biologiazalea, nazioa, Asia

Egungo egoera historikoki ulertzeko bigarren moduak paranoiaren ugalketarekin du erlazioa. Ezkerraren tentazioa paranoia oro (= konspiranoinegazionismoa) eskuin autoritarioaren maniobra bezala salatzea bada ere –diskurtso eta talde

homogeneo bezala itxuratuz eta irudikatuz-, paranoiaren errealitatea heterogeneoagoa eta politikoki askotarikoagoa da, ezker-eskuin espektroan hedatzen delarik. Konspiranoinegazionismoa ez da talde edo subjektu bateratu, bakar edo antzeratsua. Berlinen, Madrilen, Erroman eta Londresen (Parisen antza ez) oraintsu gertatu diren manifestazio paranoikoak (negazionistak) oso dira askotarikoak, eta ezin zaie nortasun politiko argirik eman (Sauerbrey 2020). Aitzitik, elkarrekin komunean duten elementu bakarra ezkorra da: negazioarena, negazionismoarena, hots, 'egia' beste nonbait dagoen jakintza irmo baina ezkorrena. Talde horiei manifestu bat edo agenda bateratu bat (egia bat) bilakatzeko eskatuz gero, inoiz ere ez lirateke ados jarriko; izan ere, beren paranoia ezkorra da, errealitate ofiziala ezeztatzea ('negatzea') dute bakarrik komunean, ez egia bat. *The New York Times*-eko kazetari Anna Sauerbreyk dioen bezala, Simon Teune soziologoa aipatuz, gehienak klase ertainekoak edo ertain prekarizatukoak badira ere,

... «epe luzerako mugimendu politiko organizatu bat sortzeko falta zaiena helburu komun bat da». [...] hiritar arrunten, konspirazio-teorizatzaileen eta eskuineko estremisten koalizio arraro horren atzean datzana egia ezkutu bat aurkitu duten ustea da, zeina ignoratua izan den edo zitalki ezkutatua orain arte – mugimendu populistak munduan zehar indartzen dituen bultzada bera.

Hots, egungo pandemiaren aurkako manifestazio negazionistek beren ezezkotasuna edo ezkortasuna badute komunean soilik, negazionismo horren arrazoiak ulertu behar dira. Goian aipatutako aditu neoliberalen krisia eta, aldi berean, adituaren paradigmaren hedatze popular-herrikoia badugu, ezeztatze hori zoru politikora eramatea, manifestatzea, ulergarria bezain koherentea da. Manifestazio horiek 'adituen' protesta herrikoiak dira, adituen krisiak zabalduetako espazioa berreskuratzeko asmoz: denek dakite zein den estatu neoliberalak ezkutatu duen 'egia' hori, nahiz eta, jakina, bakoitzak bere interpretazio propio eta heterogeneo-bateraezina eman egia ezkutu horri. Zentzu horretan, 2011-2019 garaian hedatu

ziren beste manifestazio populisten jarraipen dira 2020koak; izan ere, denek partekatzen dutena beren ezkortasuna da: ez dugu nahi egungo ordena eta sistema, gure egia komuna ezagutzen ez badugu ere (edo ados jartzen uzten ez diguten interpretazio askotarikoak baditugu ere).

Alabaina, lehen momentu batean, pandemiaren neurrien aurkako manifestazio negazionisten aniztasuna eta heterogeneotasuna azpimarratzea garrantzitsua bada ere, bigarren momentu batean, kondizio hori mapaztatu (mapeatu) eta historizatu egin behar da: pandemiarena egungo sintoma bada ere, negazionismo historikoki zabalago eta hedatuago baten azken adierazle bezala ikustatu behar da. Beti egon dira negazionismo mugimenduak historia gertuan zehar. Azken batean, hippyek eta New Age zaleek ere negazionismo antzeratsuan errotzen zuten beren kultura. Are, begetarianismoa, naturismoa edo yoga egun hedatu eta normalizatu-onartu badira ere, beren egunean antzeko fenomeno negazionista eta paranoiko bezala aditzen ziren. Are gehiago, azken batean, 68ko Maiatzeko iraultza ere negazionismo paranoiko batean oinarritu zen, ez baitzituen emaitza baikorrak (konkretuak, errealitatean beteak) izan, baizik eta ezkorrak, hots, erresistentzia, negazioa eta borroka, zeinek egun arte irauten duten.

Alabaina, gaur egun, arestian aipatutako adituen inguruan hedatu den kontraesanaren antzeko beste bat dugu, paranoia-aren ezkortasun heterogeneoari norma edo eredu politiko estatua ematen diona. Izan ere, egun, negazionismoaren 'okerrak' eta 'paranoia' salatzeke tresna gero eta gehiago baditugu ere, eta, beraz, sekula baino errazagoa bada ere negazionismoa bera ukatzea (meta-negatzea), negazionismoa ugalduz doa era heterogeneoan, ez bakarrik pandemiaren arazoan, baizik eta erabat onartuta zeudela sinesten genuen eremu eta taldeetan, beroriek ukatuz. Lur lauaren negazionismoa ezaguna da, baina, ironikoki, lur lauaren teoriak popular-arrakastatsu bihurtu dira sateliteen garaian, non lur biribilaren irudi ukaezinak sekula baino hedatuago dauden (hortik ilargian amerikarrak lurreratzea ere ukatzen duen beste paranoia antzeko bat).

Gurean, Iruña-Veleiako ostraken faltsifikazioaren inguruan egin diren analisi eta azterketak sekula baino pisutsuagoak dira, baina, hala ere, Iruña-Veleiaren ostraken egitasuna sinesten duten taldeen egoskorkeria era berean pisutsua da eta, herri mailan, indar handia hartu du, adituen iritzien aurka. Feminismoan ere, subjektu transak ez direla 'egiazko emakume' defendatzen dutenen diskurtso paranoikoa (TERF) hedatu egin da (J. K. Rowling izanik ukatzaile ezagunena), nahiz eta gaiaren gaineko azterketa, analisi eta teorizazioek datu eta egitate ukaezin askotarikoak ekoiztu (Butler 2020); TERF paranoian, emakume transak patriarkiaren biktima dira eta, hain zuzen horregatik, patriarkiaren zaldi troiarra. Txertoen aurkako mugimendua bere garaian txikia eta garrantzigabea bazen ere, egun, AEBetan, adibidez, hiritarren %62ek ez lukete koronabirusaren aurkako txertorik onartuko oraingoan, ez baitute gobernu eta enpresa farmazeutikoen koalizioan sinesten, horien helburua batez ere ekonomikoa dela baiteritzote.

Eta negazionismoaren taldeek estatu maila ere lortu dute. Izan ere, *brexite*-aren alde botoa eman zutenek datu eta egitaterik gabeko uste paranoiko edo negazionista batean oinarrituta erabaki zuten Europako Batasuna uztea: EBk beren subiranotasuna eta nortasuna kentzen zien (etorkinei sarrera emanez, eta abar). Hori ere negazionismoa zen. Are, ezkerreko euskal koalizio handiena ere bi paranoiaren artean harrapatu dago: batzuentzat sasi edo kriptoterrorista izaten segitzen du (ardi larruz zomorrotutako otsoa), eta beste batzuentzat, aitzitik, estatu espainiarrari eta bere ordena neoliberalari amore eman dion alderdi zentzugabea da (otso izateari utzi dion ardi esanekoa). Are gehiago, Trump, Bolsonaro eta enparauk hedatutako politika autoritario eta erreakzionarioek ere negazioa dute oinarri: globalizazioaren ukatze aktiboa, zeinak, dena den, neoliberalismo globala indartzen (ez ahultzen) duen. Paranoia eskalarik kontinental eta globalenera eraman duen filosofo arrakastatsua Byung-Chul Han (2020) dugu. Izugarritzko zirkulazioa

izan duen artikulu batean dio Txinaren estatu eta gobernu eredu autoritario digitala Mendebaldera etorriko dela (etor daitekeela), eta hori izan daitekeela Mendebaldearen geroa:

Txinak arrakasta-eredu bezala saldu ahal izango du orain bere polizia-estatu digitala pandemiaren kontra. Txinak oraindik ere harrotasun gehiagorekin erakutsiko du bere sistemaren nagusitasuna. Eta kapitalismoak, pandemiaren ondoren, oraindik indar gehiagorekin jarraituko du. [...] Are, posiblea da estilo txinatarreko polizia-estatu digitala Mendebaldera gugana iristea.

Hots, paranoian oinarritzen diren taldeak, oro har, oraindik ere kasu gehienetan txikiak badira ere, negazionismo paranoikoa bera, bere heterogeneotasunean, egungo logika politiko-diskurtsiborik garrantzitsuenetakoa bihurtu da,

hain zuzen ere aditu eta egitate-informazio gehien dugun garaiotan, era kontraesankor eta oraindik argitugabe batean. Negazionismoa ere egungo politikaren sintoma eta paradigma giltzarri da, eta, estatua-
ren eta instituzio modernoan
egiaren eta informazioaren

Negazionismo
paranoikoa, bere
heterogeneotasunean,
egungo logika
politiko-diskurtsiborik
garrantzitsuenetakoa
bihurtu da

baieztapenek ez bezala, bere alde beste elementu ez razional bat du: afektuak. Egun pasio politikoa negazionismoaren eremuan datza, ez baieztapen razional eta zientifikoarenean. Izan ere, paranoia ezkorrek egiazki 'egia' ezkutu bat adierazten du, aditu neoliberalak eta zientzia ofizialak azaltzen ez duten beste egia paradoxiko bat: zer den ez dakigun eta, beraz, erantzun heterogeneo anitz eta kontraesankorrak sortarazten dituen egia bati buruz ari gara, zeinak, dena den, egia ofizial-gobernamentalak baino sinesgarritasun eta 'egiatasun' handiagoa duen.

Izan ere, beste egia ezkutu, sakon eta jakinezin horrek sintomaren logikari erantzuten dio: sintoma beti da egia traumatiko baten adierazle, baina sintomak berak ez du inoiz

egia horretarako sarbide argirik, razionalik ematen. Dakigun bezala, su artifizialen soinuak jende asko aztoratzen du eta lehenaldiko trauma bortitz baten sintoma bihur daiteke, demagun gerrako bonba baten eztandarena soldadu traumatizatu batentzat. Alabaina, su artifiziala ez da berez gertaera traumatikoaren egia. Su artifiziala 'gezurra' genuke, ez baitu gerrako bonba batekin zerikusi kausalik; baina, hain zuzen, bere 'gezurkeria razionalean' soldaduaren trauma bortitzaren adierazle egiatiena da. Paranoia ere, egia traumatiko baten adierazle 'gezurrezko eta irrazionala' da, baina, bere kondizio sintomatikoan, 'egia razional eta ofizial' asko baino egiagoa dukegu. Ikuspegi razional ilustratu eta kartesiar batetik bakarrik da paranoia gezur. Izan ere, egia bortitz eta traumatikoen, egia ezkutatuak, zeharkako adierazle irrazionalak bakarrik ametitzen dituzte. Zentzu horretan, egun, 'egiazko egia' traumatikoak ulertzeko adi-bide edo baliabide bakarra paranoia dugu, bera da egungo paradigma kognitibo pribilegiatua. Paranoia global eta hedatuenetako bat aipatzearen, jakina da Bill Gatesek ez duela txertoetan txipik jarriko mundu guztiko giza garunak kontrolatzeko (antza, Elon Muskek bai; bere neurolink proiektuarekin horrelako ekimen bat hedatzeko aukera gehiago ditu). Baina konpainia digital (Google, Apple, Facebook...) eta farmazeutiko handienek gizabanakoen jardun digitala kontrolatu nahi dutela argi dago, eta, pandemiaren kasuan, guztion jardun biologikoa ere beren eskuetan geratuko dela ez dago eztabaidatzerik (alegia, nork eta zenbatean txertoa lehenik jasoko duen eztabaida). Aldi horretatik, paranoia erabat oker eta ezin erratuago batek, sintomatikoki, zeharka eta irrazionalki, beste diskurtso razional askok baino argiago azaltzen du egungo kapitalismo biopolitiko garatuenaren helburua zein den: kontrol biopolitiko eta digital bateratua. Ezin imajinatu irudi indartsuago eta adierazgarriagorik, afektiborik, txerto baten bidez sartzan den txip batena baino; zentzu horretan, txiparen 'paranoia' gobernu-konpainia askoren diskurtso razionala baino 'egiatia' da.

Azkenik, paranoiak, zenbait jakitunek adierazi dutenaren aurka, ez da indibidualizatzailea eta isolatzailea. Paranoiak, hain zuzen, ‘egiazko egia’ partekatzeko eta besteak ‘konbertitzeko’ joera erdi kultista, erdi erlijiosoa du. Alegia, paranoikoa misiolaria da. Goian aipatu ditudan manifestazio negazionistak ere 2020ko manifestazio handienetakoak bihurtu dira, era kontraesankorrean, beren heterogeneotasunean, jendea era ezkor batean batuz, komunitate ezegonkor baina askotarikoak sortuz. Paranoiak, zentzu horretan ere, komunitate politiko berriak sortarazteko ekimen ezkorrak ditugu.

Batman eta gure imajinazio kulturalaren erdigune paranoikoa

Egungo egoera historikoki ulertzeko hirugarren moduak ikus-entzunezko kultura global eta paranoikoarekin du erlazioa. Egun, kapitalismo amerikarrak, bere produktu kultural garesti eta globalena saltzeko prozesuan, erabaki du komiki- eta bideo-jokoen mundura jotzea, superheroien sagak gero film bezala saltzeko, 100 milioitik gora kostatzen diren produkzio garestietan (ez dago produktu digital garestiagoko eta espektakularragorik munduan). Ezker razional eta ilustratuak superheroien zinema denbora-pasa burugabe eta garrantzīgabetzat jo badezake ere, kultura demokratikoki ulertzen badugu, eta, beraz, mundu globaleko ikusleek gehiagoker ikusten duten eta ikustea maite duten erabakitzerakoan, superheroien film *blockbusterrak* ekidinezinak dira. Alde batetik, horrorearen mundura zabaltzen dute ate zinematikoa (*Blade*, *Twilight*, *Underworld*...), eta, bestetik, mitologia ez-kristauak eta beraz historia global alternatiboak berreskuratzeko aukera ematen dute (*Marvel Cinematic Universe*, *The Lord of the Rings*, *The Avengers*, *DC Extended Universe*, *Harry Potter*... *Game of Thrones*).

Alabaina, kritikari gehienek azpimarratu ez dutena film mota horren, *blockbusterraren*, izaera paranoiko aristokratikoa da. Zonbiak eta, hein batean, mutanteak alde batera

Errealitatean bateraezinak
diren mezuak eta
ideologiak bateratzen
dituzte superheroien
filmek: aristokrazia
neoliberal elitezkoa eta
herriaren indibidualizazio
prozesu alienatzaile
eta ia biologikoa

utzita, film horiek guztiek komunean dutena hauxe da: Gaitzak Onaren aurka eta, beraz, munduko hiritar guztien aurka eraten dituen konspirazio sekretu eta ezkutuak, non beti ere munduaren geroa eta amaiera dagoen balantzan. Hots, eta hau da nire analisieren kezka nagusia, azken 20 edo 30 urteetan zinemagintza hedatuaren, globalenaren eta herrikoienaren egitura paranoikoa da. Eta, agian, ustekabean, paranoiaren zinemagintzan elikatu gara, gure imajinazio globala paranoikoa bihurtuz, non aristokrata pri-

ebilegiatu eta biologikoki diferenteek (superheroiak) konspirazio amaiezin eta agorreztinatik salbatzen gaituzten.

Hor, berriro ere, paranoiaren kontraesana beren eskala eta kopuruan dago. Hots, zinemagintzaren paranoia horiek, unibertso koherenteak sortzen saiatzen badira ere, azken batean paranoia global bateraezinak saltzen saiatzen dira, imajinazioaren inflazioa dei diezaiokegun kontraesan konponezinean: zein da egiazkoagoa bere izaera paranoiko globalean, Harry Potter edo Batman? Zer gertatuko litzateke bi pertsonaia horiek unibertso zinematiko berean bateratuko bagenu (dagoeneko gure garun eta oroimenean gertatzen den bezala)? Zein paranoia da errealagoa eta konbentzigarriagoa bere paranoian, *The Lord of the Rings* edo *Game of Thrones*? Izan ere, ez dira bateragarriak; baina, aldi berean, biak dira bizi garen mundu globalaren adierazpen alegoriko, eta biak ikusi ditugu gehienok.

Are, kontraesana areagotu egiten da superheroien natura aztartzean: ia gehienek botere supernaturalak dituzte, beste gizaki guztiongandik biologikoki bereizten dituztenak. Hala, mundua konspirazioetatik salbatzeko, beren biologia bihurtzen da giltzarri (eta Europa moderno zaharrea, beren 'odola'

esango genuke, hots pribilegio aristokratikoa). Kontraesan hori populismoaren lider karismatikoetatik harago doa; izan ere, odolaren eta arrazaren diferentzia biologikoa argudiatzen da demokraziaren eta populu orokorraren salbazio bide paranoiko bakar bezala. Hots, aristokrazia superheroiko bat azaltzen dute film horiek demokraziaren eta on komunaren salbabide bakartzat. Jakina, film horiek alegoria diren aldetik, eta ez errepresentazio objektibo edo errealak (hortik efektu espezialen garrantzia), kontraesan erreal bat alegorizatzen dute: egungo gizarteek sortzen duten indibidualismo edo gizabanakotasun muturrekoaren alegoria dira superheroiak (gu guztiok gara biologikoki naturaren friki ezin bereziago eta beraz aristokratikoak), eta, era berean, gizabanakotasun aristokratiko hori salbuespen bihurtzen dute, hots, superheroi aristokratiko izan behar izateko gehienok gaitasunik ez dugula bermatzen digute (beste norbaitek salbatuko du herria, liderrak, elite neoliberalak). Hots, azken batean, errealitatean bateraezinak diren mezuak edo ideologiak bateratzen dituzte film horiek: aristokrazia neoliberal elitezkoa eta herriaren indibidualizazio prozesu alienatzaile eta ia biologikoa (denok gara superheroi frikiak eta denok sentitzen dugu bereziak eta gehiago, aristokratikoak, garela, nahiz eta azkenean badakigun aristokrazia neoliberalaren parte inoiz ez garela bilakatu). Baina, hain zuzen, kontraesan hori, gure eguneroko bizitzan sentitzen dugun kontraesan ezin politikoago eta 'egiazkoago' hori, blockbusterren film kulturak paranoiaren bidez (beti dago konspirazio bat konpontzeaz) adierazten du; beraz, aspaldidanik gure zinemagintzaren imajinazioa paranoikoa izan da, eta horregatik gogoko izan ditugu film horiek.¹

Teoria orokor baterantz: sarea eta desarrazoi populista

Goian aipatu ditugun hiru modu historikoak kontuan hartuta, agian paranoiaren (konspiranoinegazionismoaren) teoria ezkertiar bat eratzeko tesia aurkeztu behar dugu orain. Baina,

horretarako, azken paranoia bat aztertu behar dugu. Zenbait analisisiren arabera, EAEk izango luke egungo kutsadura eta heriotza mailarik gorenetakoa munduan. Hots, EAJk hamarkadatan kudeatu duen 'oasiaren' erdian, pandemiak sarraski pentsaezin eta aurreikusezinak sortu ditu. 'Oasi kutsatuaren' aurrean EAJk ere hartu duen jarrera paranoia negazionistarena da: euskal oasia ondo doa, pandemiaren kudeaketa jeltzalea orain artekoa bezalakoa da, Europako onenetakoa. Hots, paranoiaren adierazpen nagusiak egun eskuinak erabiltzen ditu giza egoera kritikoak estali eta ezkutatzeko. Jakina, bat-batean kalean EAJ paranoikoa dela esanez gero, inork ez luke ulertuko, baina goian azaldutako zentzu teknikoago batean, EAJ da euskal subjektu paranoikoa *par excellence*: paranoiaren subjektu pribilegiatu eta ardatza (Nafarroak eta Iparraldeak analisi desberdinak eskatzen dituzte).

Goiko adibidea laburbildurik eman dut, ondorioak etorri beharko luketen azken atal honetan, hain zuzen artikulua hasieran eman dudana ezkerren dilema birdefinitzeko eta ezkerrean ezaguna den termino batekin lotzeko: *ideologia*. Paranoia, egun, ideologia zaharrak eta berriak eratzeko bide bat, eta arriskatuko nintzateke esatera, biderik pribilegiatua da. Sareak edo Internetak pandemian izan duen gorakadaren ondorioz, gure egoera digital-birtualak areagotu du paranoiaren diskurtsoarekiko gure atxikimendu gurarizkoa eta/edo behartua. Zentzu horretan, paranoia ideologia artikulatzeko forma malgu eta emankorra bihurtu dira, non eta azkenean utopia ezkorrak artikulatzeko bide ere bihurtu diren (utopia pertsonal ezin zoroagoetatik utopia hedatu eta nazio-estatu mailakoetara): ez dakigu gure utopia zer den, utopia horren egia zer den, baina gure paranoia atzematzen dituen konspirazioak ukatuz, negazionismoaren bidez, utopia horiek ezkerri aditu edo atzeman ditzakegu. Ez da apokalipsia beste ezer, utopia ezkorrenaren adierazpen paranoikoa baizik (mundua akabatuko da, baina guretaoek aurrera egingo dute).

Bestela esanda, paranoia (konspiranoinegazionismoaren) populismoak hartu duen bira edo jite digital pandemiko

berria da. Izan ere, populismoarena kontraesan historiko azken baina dena den historikoa dugu: populismoak 2008az gero hartu duen indar hegemonikoak (Gabilondo 2017), pandemiaren garaian, bira digital eta paranoiko bat hartu du, 2008az geroztik hedatu duen ideologiari leial izateko eta borroka populista politikoarekin aurrera segitzeko.

Irakurleren batek oraindik egotziko dit populismoa eta paranoia, dena den, eskuineko fenomenoak direla gehienbat. Erantzuna, eta honekin artikuluaeren hasierako puntura itzultzen gara, zera da: eskuinak bakarrik ulertu duela populismoaren indarra eta zentraltasuna. Ezkerrak populismoari, eta batez ere bere jira digital-paranoikoari, muzin egin dio eta, arrazoi ilustratuaren izenean, gaitzetsi ere egin du. 1920tik 1968ra ezkerrak eraturako mugimendu eta ekintza politiko arrakastatsuenak populistak izan dira, eta, beraz, ezkerrak populismo horretara itzuli behar du. 2020tik aurrera, eta oraingoz bederen, ezkerrak paranoiaren potentzial politikoa ulertu eta erabili behar du, txisteko zoroaren antzera farolapeko argitan deiadarka egiteari utzita: arrazoa, zientzia, egitateak, informazioa, ilustrazioa! Arazo politikoa ez dago hor. Arazo politikoa 'egia' era paranoiko populista batean, ideologikoki, artikulatzean datza. 🌸

Oharrak

1. Imajinario global eta aristokratiko horren beste muturrean arazo feminista bat dugu. Nancy Fraserrek azaldu duen bezala, pandemiak emakume langilearen birdomestikazioa ekarri du, etxea eta espazio pribatua (ez heroien espazio publiko zabala) giza jardun ororen gune berri bihurtuz, lanleku ere bilakatu delarik. Espazio horretan emakume (heterosexual haurduna) bihurtu da gizabanakotasuna eta indibidualitatea galdu duen lehen subjektua; izan ere, bere orain arteko lanak gizonarenak baino ugariagoak baziren, orain lanok esponenzialki hedatu dira eta, era berean, bortizkeriarako arriskuak ere handitu zaizkio, espazio publikoko bere presentzia are gehiago murriztuz.

Bibliografia

- Agamben, Giorgio (2020): 'La invención de una epidemia,' *Ficción de la razón*, 2020-02-27 (www.ficcionalarazon.org; kontsulta: 2020-03-19).
- Butler, Judith (2020): 'Judith Butler sobre las guerras culturales, JK Rowling y vivir en tiempos anti-intelectuales,' *Calderón 094*, 2020-09-23 (www.calderon094.wordpress.com; kontsulta: 2020-09-24).
- Byung-Chul Han (2020): 'La emergencia viral y el mundo de mañana,' *El País*, 2020-03-21 (www.elpais.com; kontsulta: 2020-09-22).
- Deleuze, Gilles; Guattari, Félix (2004): *Capitalism and Schizophrenia*, New York, Continuum.
- Foucault, Michel (2014): *On the Government of the Living. Lectures at the Collège de France, 1979-1980*, New York, Palgrave Macmillan.
- Frank, Thomas (2020): *The People, No. A Brief History of Anti-Populism*, New York, Metropolitan Books.
- Fraser, Nancy (2020): 'Las contradicciones del capital y de los cuidados,' *Contexto*, 2020-08-01 (www.ctxt.es; kontsulta: 2020-09-22).
- Gabilondo, Joseba (2017): *Populismoaz*, Tafalla, Txalaparta.
- Haraway, Donna (1988): 'Situated Knowledges: The Science Question in Feminism and the Privilege of Partial Perspective,' *Feminist Studies* 14, 575-599.
- Illich, Ivan (2000): *Limits to Medicine. Medical Nemesis: The Expropriation of Health*, New York, Marion Boyars Publishers Ltd.
- Sauerbrey, Anna (2020): 'Meet Germany's Bizarre Anti-Lockdown Protesters,' *The New York Times*, 2020-08-31 (www.nytimes.com; kontsulta: 2020-09-22).
- Vallejo, Estrella (2020): 'Arantxa Tapia achaca a la sociedad vasca no haberse comportado «como requería la situación»,' *El Diario Vasco*, 2020-08-17.
- Zizek, Slavoj (2020): *IZUrriA!*, Tafalla, Txalaparta. Itzultzailea: Danele Sarriugarte.

Harkaitz Cano

Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)

Gaitzaren kontrako txertoa eta albo kalteak. Azken sei hilabeteotan munduan izan diren lau milioi hildakoek garbi utzi duten moduan, COVID-23aren kontrako txertoak ez du COVID-25aren aurkako eraginkortasunik. Hori esanik ere, ez dago guztiz frogatuta Pensacolako (Florida, AEB) familia batean gertatu ziren lau heriotzak zuzenean txertoaren aurrean izandako erreakzio txar bati egotzerik dagoenik, sendagaia epe mugak ahalik eta gehien laburtuz baimendu izanak sortu dituen susmoak gorabehera. Ikerketa zabalik dago eta eraginkortasun estatistikoa guztiz bermatuta: ez ditu beste edozein txertok baino erreakzio kaltegarriagoak eragiten –demagun, gripe arrunta–, munta txikiko sukarraldi iragankorrak, asko jota. Heriotzen arrazoiak argitze aldera, Pensacolako hildakoen aurrekari genetikoetan jartzen ari da bereziki arreta. Uhinsareetan besterik zabaldu den arren, ez da egia *in vitro* sortutako haurren kasuan erreakzio gogorren tasa handiagoa denik, Pensacolako bikiak *in vitro* ernaldutako gurasoen seme-alaba era berean *in vitro* ernalduak izatea bereziki azpimarratu bada ere. Odol taldeei dagokienez, A motakoek darraite zaurgarrienak izaten eta %25 hazi da odol talde batetik besterako transferentzia eskatu duten biztanleen kopurua EAEn. 0 negatibo odol taldea

izan da migrazio eskaera gehien jaso duena, hirugarren urtez jarraian. Idoia Mendia lehendakariak uko egin dio datu honen irakurketa antropologikoa edo politikoa egiteari («0 negatibo odolaren prestigioa globala da, ez gure ñabardura bat», Radio Treuskadi, 2024-IX-22).

Kalera ateratzeko protokoloak. EHU-Banco Santander Unibertsitateak egindako ikerketen arabera, guztiz normalizatu da alarma egoeran gizonetzkoak egun bakoitietan eta emakumezkoak egun bikoitietan kalera ateratzeko araua. Euren burua ez gizonetzko eta ez emakumezkozat ez dutenen kasuan, Hautazko Irtete Erroldan derrigorrezko izen ematea ezarri izana positibo suertatu da, halaber, hasierako erresistentzien ondoren. Lan giroetan emakumezkoek zein gizonetzkoek elkarrekin jarduteak nahikoa eta sobera bermatzen du sexuen arteko bizikidetzan. Horretaz gain, Familien Aktak eredu tradizionalen sendotzea ekarri du, egitatezko bikoteen inskripzioa %31 hazi denez eta egitatezko trikoteena %12.

Maskaren erabilera. Musukoen erabilera orokortu izanak modaren arloan zabaldu duen ildo alba batera utzita, maskarak anonimotasuna errazteak identifikaziorako sortzen dituen zailtasunak kezka iturri dira oraindik. 2021ean Milango Unicrediten sukurtsalean maskara kirurgikoekin mozorrotuta egindako lapurreta sonatuaren ondotik, musuko gardenen ekoizpena %70 ugaritu zen eta hainbat estatutan bere erabilera derrigorrezko bihurtu da urteen poderioz (Txina, Polonia, Brasil, AEB, Errusia). Komunikazio aldeetik, txalogarri deritzogu Euskadi-Kantabria-Errioxa hispanohirian entzumena urriturik dutenen elkarteekin egindako elkarlanari, haiek ezpainak irakurri ahal izatea errazten duelako maskara gardenak; biztanlegoak bere prezio altuarekiko zuen erreparoa arindu da horri esker. Nabarmena da irisaren irakurketaren bidezko identifikazioa sustatzen jarraitzeko premia. Era berean, Mondragon Korporazioaren bikini eta estalki polarren lerroak bere garaian maskaren alde egindako

errekonbertsioa mikrofibra berrietara are irmoago bidera dezan da gure gomendioa.

Osasun langileei dagokienez, gogo onez onartu dute maskararen erabilera sistematikoa ospitaleko sail guztietan. Modu pedagogiko batean adierazi zaie premia hau; esate baterako, hiesa agertu ostean izan ziren sektoreko kutsatzeen ondoren erizainak zenbait praktikatan eskularruak erabiltzen hasi izanaren mesedea hizpidera ekarriz (gaurdaino arazorik gabe mantentzen den segurtasun eta higiene araua). Atsedendietan maskara erantzteak eraginkortasuna gutxitzen duenez, jan-edanak ziri esterilizatuena bidez kontsumitzea errazten duten musuko berrien erabilera hobesten da, *Made in RE* (Remaining Europe) zigilua dutenak, esan gabe doa, plastikoko arrastorik gabeak.

Fluxu ekonomikoen berrantolaketa. Biztanlegoaren gehien-goak ongi ikusi ditu kultura, hezkuntza eta hizkuntza arloko murrizketa guztiak, ospitaleen hornikuntza eta erizainen soldataren igoerarekin justifikatu direlako. Ildo beretik jarraitzea gomendatzen da, beti ere, murrizketaren zati bat hispanohiriaren zorraren kitapenera bideratzekotan.

Tentsio nominalak. Errioxako autonomia erkidegoko Voxeko presidentek hispanohiriaren izendapenari urtero hurrenkera aldatzeko errotazio proposamenari (Errioxa-Kantabria-Euskadi edo Kantabria-Errioxa-Euskadi, eta ez beti Euskadi-Kantabria-Errioxa) ezezkoa emango diotela adierazi dute Kantabriako eta EAeko agintariek («Eskuin muturrak beti jokutzen du berdin: txikikeriak ekarri nahi dituzte eztabaida publikora, kontu garrantzitsuez hitz egin ez dezagun»).

Hiri barruko mugikortasuna eta aisialdia. Orain badakigu espazio publikoaren okupazioaren %100era berme guztiak itzul zitekeela goizegi iragarri zela. Erabat ezustean harrapatu gaitu, hala ere, hiritarrek aldentze fisikoak derrigortzen zuten arnas-burbuila espazio konkistatutzat jo eta lehengo

distantzia murrizteta itzuli nahi ez izanak. Gune komertzial, kirol instalazio eta antzoki erdi hutsetan toki gehiago izatera ohitu ondoren, elkarrekintza fisikorako azturen erabateko iraultzea eman da. Laburbilduz: biztanlegoak uko egiten dio orain lehengo jende pilaketetara itzultzeari. Estandar zaharretara bueltatzea espazio pribatuaren –eta are intimitatearen– aurkako erasotzat hartuko zela pentsatzea aurreikusezina zen, inork espero ez zuen zerbait. Urruntzearen onespena eta ohitura berrien asimilazio borondatea gure gizartearen «eskandinaviartze» bati egotzi izan zaio (ikus Denis Itxaso Barne sailburuaren adierazpenak *Berrria* uhin-karian, 2024-VIII-15), geure erantzukizunaren onarpenean eta diskrezio liberalaren alderdi baikorrean ipini baita azpimarra («bizi eta utzi distantzia bat besteak bizi daitezen»). Hirugarren olde honen ondoren, ‘jendetza’ kontzeptua bera desterratu eta iraganeko kontu bilakatu dela onartzen hasi beharko dugu. Aldentze sozialak gure azturetan izan duen txertatzea ez dela, alegia, iragankorra, geratzeko etorri den zerbait baizik.

Elikadura iruzurra. Populazioaren gehiengoak bere egin duen bizi-osa osasuntsuaren eta bertako produktuen aldeko hautuak ase ezin daitekeen Kilometro Zero produktuen eskaria ekarri du, bai eta (ustez) Bio edo ekologikoak diren hurbi-leko produktuen garestitze ikaragarria ere. Zortzi izan dira 2023an inportatutako barazkiei Treusko Label zigilua jarriz iruzurra egiteagatik itxiarazitako enpresak.

Ohe ziurrak. Ogasunaren arloan, harrera ezin hobea izan du OZAP (Ohe Ziurraren Aurreikuspen Plana) plan pribatuak urteroko zerga aitortzearen kenkari bezala funtzionatzeak. Euskal erkidegoan pandemia kasuetan zaintza berezietan ohea ziurtatuko lukeen pentsio-plus planaren fidagarritasunari 7 bat eman dio Lit eskalan Standard & Poor’s-ek, kolapso kasuetan ohea ziurtatzea zalantzazkoagoa litzatekeen hispanohiriko batez besteko 5aren oso gainetik eta ia Frantziako estatuaren pare.

Biztanlegoaren monitorizazioa. Virginet konpainiaren uhin-sareekin egindako *tracking* lana funtsezkoa izan da pandemia kontrolatzeko. Geolokalizazioa sistematikoki osasunarekin lotzen jarraitzea gomendatzen da, mesfidantza saiheste aldera: jarraipen sistema eta analisi klinikoa aplikazio bakarrean modu banaezinean saldu izanak primeran funtzionatu du. Arrakasta erabatekoa izan da: biztanlegoaren %91k deskar-gatu du Klin-hik aplikazioa uhintxipetan (Klin-hik-en «Hau uhin-uhin tratu bat da!» leloa eguneroko hizkeraren parte bilakatu dela aitortu behar da, gainera). Emaitzak denbora errealean berme osoz ematen dituen listu eta odol analisi unean unekoak egiten dituen aplikazio honi esker, sintomarik ttipienaren pean kutsatutako biztanleen isolamendua aurreko oldeetan baino askoz ere errazagoa suertatu da, gaixotasunaren kutsatze fokuak azkar identifikatu eta kontrolatu. Osasun datuen eta mugikortasunaren aztarna digitalaren pribatutasunak salbuespenak dituela barneratzen ari da biztanlegoa. Informazio arrakala noiz zabalduko zain dauden aseguru-etxe pribatuak finantzaketa iturri ederra izan daitezke datozen urteotako azpiegitura planetarako. Maila oraingoz anekdotikoan, uhingailua erabiltzeari uko egin eta «telefono kabina» (sic) publikoak eskatzen dituen mugimendu retroseparatistak ez du ludita zaharkituen nostalgiaz haragoko aipamenik merezi, dagokion jarraipena egitea komeni den arren. 📍

EGUNEN GURPILEAN

121 Kultura

Adabakiez harago
Alfonbraren azpian
Itziar Ugarte Irizar

126 Soziolinguistika

Correfoc
Hizkuntza-politiken fantasia
Hizkuntza-ideologiaren jauzia
Hizkuntza-merkatua eta bide-markatua
Jaime Altuna Ramirez

131 Glocalia

Pandemia eta distopia
Bat: apokalipsia eta distopia ez dira
gauza bera
Bi: distopia gaurkotasunaren kritika da,
baina gaur ez da distopia
Bi puntu bat: kritikak ez du iraultza
esan nahi, derrigorrean
Hiru: distopia eta utopia dirudiena
baino gertuago daude
Eta zer?
Alba Garmendia Castaños

Adabakiez harago

Berragertu, berretsi, berraldatu, berridatzi. Iraila izaten da *ber-*aren garaia. Bai garaietako bat. Asmoak, ardurak. Plazerak, lanak. Iraila da berriz. Baina dena dago ohi baino nahasiago orain, eta ariketa zaila bilakatu da non utzi genuen eta nora eraman nahi dugun pentsatzea, batez ere ahal izango dugun pentsatzea. Dena gelditu zela zirudien momentu batean. Eta polita da nola ustezko geldiuene horretan eguzkia gorde, ilargia atera, luzatuz joan zen eguna orain moztuz datorrela, eta horrek ere tira egiten duela aurrera. Galdera ikur batek helduta gauzka, baina tira egiten du aurrera.

Uda joan da, eta faltan hartu direnen artean hartu da kultur eskaintza biziago bat, benetakoago bat. Eutsi zaie zenbait konturi, baina pandemiak dakartzan zera guztiek giroa oro har hoztu dutela esango nuke. Disimulurik gabe aitortu zuen Marta Agirrezabala Lankuko koordinatzaileak, esaterako, bertsoarentzat «desastre samar» joan dela uda; aurreko urteetako bertso saioen %25 egin ahal izan dituztela aurtengo uztail eta abuztuan. Horrek dakarren lan galerarekin bertsoarentzat. Eta ez bakarrik: aipatzekoa da zuzeneko ekitaldietako teknikariek darabilten protesta: lehorreak apenas lan gabe utzi ditu asko, eta diru laguntzetatik kanpo ere geratu dira.

Museoek ere eman dituzte datuak, bisitari kopuruaren puska onak galdu dituztela erakutsiz. Bilboko Guggenheim museoak, esaterako, 98.673 bisitari zenbatu ditu aurtengo; 413.316 izan ziren iaz. Antzeratsu ibili dira inguruko beste museoek eman dituzten datuak ere, baina, hala ere, denak agertu dira baikor, pandemiagatik aurreikusitakoa baino harrera beroagoa izan dutelakoan. Luzatu egin dira udaberrian amaitzekoak

ziren zenbait erakusketa, baina hasi dira berriak ere zabaltzen, eta badoa gurpila, ez zulorik gabe, baina aurrera. Kontua hori da, ordea: nola jarri zuloetan begia, unean uneko adabakiez harago, orain nola hala aurrera segitzea bilatzetik harago.

Hor sartzen da, esaterako, erroak sakon botatzen joan den kultur eredu bat berriz eztabaidara ekartzea. Atzerritik saldoka heldutako bisitari kopuru distiratsuak falta izan badira aurten –eta antzeratsu joango direnez datozen hilabeteak–, abagune ona izan daiteke kulturaren jirako mugimendua nola neurtzen den pentsatzeko.

Ez da debaldekoa Guggenheimen aipamena, eredu baten, kultur politika baten sinbolo bihurtu den heinean. Duela hilabete batzuk, hogeitazero atzera kulturgintzako fokuak non zeuden aztertu zuen *Berria*-k, eta argi geratzen zen museoa eta berak zekarrena eztabaidagai zela mende hasieran. Horren erakusgarri, *Guggenheim efektua* izenpeko mahai-inguruak egin ziren Bilbon, Euskal Soziologia Elkarteak antolatuta. Hona erreportajeko mozketak bat:

«Guggenheim tren baten azken bagoia zen», azaldu zuen Javier Salazarrek, Arkitektoen Elkargoko dekanok. Haren esanetan, bi beharrek eraman zuten museoa Bilbora: Guggenheim fundazio-ko frankiziaren egoera ekonomikoak eta Bilboko krisi egoerak. Tren hori hartzeak, baina, bestelako aldaketak ere ekarri zituen hirira. «Bilboren berreskuratzea barne egitura mediatiko batean dago eraikita», defendatu zuen Zaida Muxi arkitektoak. Eta erantsi: «Bilboren rol berria kontsumora zuzendutako hiri izatea den jakin beharko dugu; dela arte kontsumoa, dela ondasunen kontsumoa. Baina betiere beste toki batzuetan ekoizitakoaren kontsumitzaile. Ekoizletik kontsumitzaile izatera igarotzea hiri nortasun arazoa izan ohi da beti». [...].

Joseba Zulaikak eman zuen lerrobua biharamunean: «Artea zokoratzeak ekarri du Guggenheim museoaren arrakasta». Ramon Zallo EHUko katedradunak «bisitari kopuruan, harrotasunean eta ekonomian» museoak izandako arrakasta onartu zuen, baina kritikoa azaldu zen proiektuarekin. Titaniozko eraikinak batez ere marka bat saltzen zuela esplikatu zuen: «Merkatuak irentsi du kultura. Ez da arterik saltzen: hiria eta eraikina saltzen dira. Ikuskizunari lotutako arte mota ekarri dute». Bere ustez

egin beharrekoa ere aipatu zuen: «Museoaren jabe egin eta Euskal Kulturaren Kontseiluaren barruan sartu beharko litzateke. Edukia eman beharko litzaioke dagoeneko badagoen edukiontzitari, kalitatea eman, Europako fondoekin erosketak orekatu, Krensen [Guggenheim frankiziako arduraduna] kortako lagunek bakarrik ez dezaten izan tokia; euskal artea nazioartekotu eta hezkuntza sistemaren barruan sartu beharko litzateke». Zulaikak kasino batekin erkatu zuen: «Krensek egin zuen apustua, baina euskaldunen diruarekin». Oraindik ere museoa «izugarrikeria» iruditzen zitzaiola esan zuen, baina arrakasta ukatu gabe. Oso bestelako jarrera defendatu zuen Joseba Arregik, Kultura sailburu ohi eta proiektuaren bultzatzaile izan zenak. Harentzat, museoak ez zuen ekarri askok iragarritako «basamortu kulturalik»: «Guggenheim ez da kultura: ekimen kultural bat gehiago da».

Ixiar Rozasi entzun nion azkena aldian behin gogora ekarzteza ondo etortzen den hori: nola krisi garaian kritika inoiz baino beharrezkoagoa den, nola ez duten alferrik *kritikak* eta *krisiak* sustrai etimologiko berbera. UEUK Eibarren antolatutako *Euskal kultur sorkuntza kultur kritika feministaren begiradapean* ikastaroan aritu zen hizlari, eta arrakastari eta kulturari funtzio berriak topatzeari lotu dakioken hau ere esan zuen: «Ez da gehiago idaztea, idazten denarekin beste denborazkotasun bat bilatzea baizik». Eta jar dezakegu *idatzi* dioen lekuan beste edozein aditz.

Bitartean, mezu arraroak hasi dira zabaltzen: *Frogatu da kultura segurua dela* bezalako adierazpenak. Bekokia zimurtzen da nahigabe, mesfidantza moduko batez. Eta edonola ere. Ospatzekoa da kultur agenda berriz izenez, lanez betetzen ikustea. Hala moduz, baina publikoaren eta *sortzaileen* zuzeneko hartu-emanen berriz topatzea. Tartean, udaberrian bertan behera utzi behar izan zirenetako zenbait udazkenean egin ahal izan dira: Sarako Biltzarra, Literaturia, Loraldia.

Kultur egutegiaren ohiko ordena apurto duen beste elementu bat izan da liburu aurkezpenena; ohituak gaude bi kolpetan jasotzen urteko uzta: udaberrian lehena eta udazkenean gero, Durangoren ateetan. Baina ez aurrera ez atzera utzi zituen hainbat argitalpen pandemiak, eta udak eman ditu azkenean

(poesia lanak dezente). Tarte horretan eman zuen mahai gainean kolpea euskarazko liburuaren sektoreak. Egoera larrian daudela salatu zuten, eta kultura erdigunean jarri eta liburuaren kate osoari eragingo dioten neurriak eskatu zituzten: zerga murrizketak, laguntza irmoagoak. Euskal Idazleen Elkarteak, EIZIEk, Editargik, Euskal Editoreen Elkarteak eta Galtzagorri Elkarteak sinatu zuten dokumentua, instituzioengana bideratzekoa. Itura jo zuten: «Ez da nahikoa nola hala eustearekin. Asimilazio prozesu batean ez erortzeko modu bakarra gurea balioestea, sustatzea eta funtzional bihurtzea da».

Alfonbraren azpian


Paradoxikoa da zaharrak berri esatea egoera honetan, baina gauza batzuk ez dira hain erraz aldatzen. Donostiako 68. Zinemaldia hasi berri den egunetan bukatzen ari naiz artikulua, eta, giro arraro bat dabilen arren, kosta ahala kosta, aurrera egin nahi duen indar bat sumatzen da.

Erakutsi aurretik harrotu ditu hautsak *Patria*-k. Lehen nobela zen, orain kartela izan da, eta lerrook publikatzen direnerako telesailen ikus-entzundakoak izango dira. Ordubeteko zortzi atal ekoitzi ditu HBO erraldoiak, eta ETA-ren sortze urteetatik 2011. urtera artekoak lantzeko promesa egin dute ekoizleek. Gorka Bereziartuak iradoki zuen bere blogean, pentsatzekoa zela Zinemaldiak alfonbra gorria jarriko ziola euskal gatazkari buruzko narratiba jakin bati, Espainiako Estatuak –eta ez soilik– finkatu nahi duen kontakizun ofizialari. Konpentsazio moduko bat atzeman daitekeela zioen, ordea, hainbat izan baitira aurten gatazkari begira jarri diren euskal zinemagileak: Mikel Zabalzaren erailketa ekarri dute gogora Amaia Merino eta Miguel Angel Llamasek (*Non dago Mikel?*), Alfonso Etxegarai deportatuaren itzuleraz aritu dira Josu Martinez eta Txaber Larreategi (*Caminho Longe*), identitate nazionalaren eraikuntza aztertu du Aitziber Olaskoagak (*Jo ta ke*) eta espertxeko bizimodua

zinemara eramateko moduz gogoeta egin nahi duen lana aurkeztu du Arantza Santestebanek (*918 gau*), oraingoz industriako artean. Suma liteke, bada, Fernando Aramburuk hasitako artefaktuari erresistentzia egin nahi bat, bestelako ikuspegiak eta kontaerak ekarri nahi bat.

Aipatuez gain, euskarazko ekoizpenek ere osatu dute sortatxo aurtan. Lara Izagirrereren *Nora*, Imanol Rayoren *Hil kanpaiak*, Telmo Esnalen *Urtzen*, David Perez Sañudoren *Ane*, eta beste. Perez Sañudok ETB1en ere estreinatuko du *Alardea* datozen hiletan, eta Koldo Almandozek *Hondar ahoak*. Azken bolada luzean irmo eskatu den zerbait izan da hori, euskal telebistan euskarazko fikzioa berrartzearena –garrantzitsua da hemen *ber* hori, atzera egin den erakusle baita–. Eta zerbait bada ere –nola ospatzen dugun apurra–, Juan Luis Zabalak ekarri du akordura, bejondeiela bai, baina, euskaraz sortutakoekin batera, bikoizketa ere behar dela. Literaturarekin konparatu zuen:

Hiru hamarkada daramagu entzuten literatur itzulpengintzan sekulako lana egiten ari dela, asko aurreratu dela, eta lan horrek bideak ireki dizkiola euskaraz sortutako literaturari, azken batean euskarara itzulitako literatura ere euskal literaturaren parte baita. [...]. Ikus-entzunezko fikzioari dagokionez, aldiz, euskararako itzulpengintza erabat abandonatuta dago, azpidatzitakoa ikusleentzat neketsuegia eta bikoiztutakoa ekoizleentzat garestiegia dela argudiatuta. Ez dira argudio hutsalak, baina gaur eta hemen fikzioaren errealitatea oso gordina da euskararentzat, eta azpidatzitako edo bikoiztutako fikziorik ezean euskaraz kontsumitutako fikzioak uharte nimiñoa izaten jarraituko du erdarazkoaren kontinente mugagabearen ondoan.

Ramon Agirrek esana du euskal zinemarena loraldia ez, esnaldia dela beretzat. Eta erraz zabaldu da aurtan ere, agian beste urte batzuetan bezain ozen ez bada ere, euskal zinemagintza abantean dagoela, munduan kokatzen gaituen kultur forma potenteetakoa dugula. Autokonplazentzia igartzen dut nik ere hor, eta ez dugu gainetik astinduko, alfonbra gorriaren azpian begiratzen jarri ezean. 



Soziolinguistika

Jaime Altuna Ramirez

Correfoc

Festa iluntzean lehertu da kale luze eta zabal osoan zehar. Hiriko erdigunea topagune bihurtu da hiriko auzoak ordezkatzeko dituzten taldeentzat, baita, horiekin batera, festa egitera etorri diren hiritar eta bisitariarentzat. Ehunka perkusionistak jaiaren erritmoa markatzen dute. Deabruz mozarrotutako beste hainbeste lagun korrika ari da jendearen artean petardo eta bengalak dituzten makilak piztuta dituela. Jendea deabruen artean dabil txanoekin, zapiekin, betaurrekoekin eta azal-zatirik agerian ez uzteko bestelako babes jantziekin ondo babestuta. Batzuetan, deabruen aurrean jartzen dira eta pasatzeko tokirik ez uzten saiatzen dira. Beste batzuetan, horien ondoan salto egiten dute bizkarretik elkarri helduta. Turista askok telefono mugikorra askatu gabe parte hartzen dute. Zorua erretako piroteknia-kartutxoak bete da. Giro burrunbatsuak bolbora eta ke usaina du.

Hori guztia ez da aurten gertatutakoa, noski, duela bi urte irail amaieran Bartzelonan bizitakoa baizik: La Mercé jaietako *Correfoc*-a. Bertako beste hiru ikertzaileekin batera (Alba Combo, Marina Massaguer eta Esther Oliver-Grasiot) behaketa etnografiko bat egiteko hurbildu nintzen Kataluniarra. Muda linguistikoak ikertzeko egitasmo baten parte zen behaketa: deabruen jaiak antolatzen dituzten kultur taldeek (*Colles de Diables*) nolako eragina duten hiztun berrien hizkuntzaren erabileran. Behaketa horrez gain, ikertzaile kataluniarrek elkarrizketak egin zituzten taldetako partaideekin eta oso kontu interesgarriak ondorioztatu zituzten. Besteak beste, deabru talde horiek muda linguistikoak egiteko gune proposak direla topatu zuten:

Mudak hizkuntza horretako hiztunekin etengabe harremanetan egoteko aukera dagoenean gertatzen dira, hiztun legitimotzat hartzen dituzten edo hizkuntza hori ikasteko eta erabiltzeko zilegitasuna duten ingurune seguruetan.

Colla horietako batean katalana praktikatzeko aukera topatu zuen Bartzelonara bizitzera joandako gazte britainiar batekin hitz egiteko aukera izan nuen. Kataluniara iritsi eta berehala, *Correfoc*-a ikusi zuen eta liluratuta sentitu zen. «Nik horren parte izan nahi dut» pentsatu zuen, eta handik gutxira deabru talde batean parte hartzen hasi zen. Hizkuntza ez zen izan bertan parte hartzeko arrazoia, baina deabru talde hartan katalan hiztun ugari egoteak eta komunikazio formaletan zein ez formaletan katalana erabiltzeak lagundu zioten hizkuntza entzuten eta, pixkanaka, erabiltzeko behar zuen jauzia ematen. Urtebete geroago han zebilen jauzika, suaren eta zalapartaren erdian deabruz jantzita, anabasa bihurtutako erdiguneko kaleetan Bartzelonako jai nagusian erabat murgilduta.

Aurten ez da *Correfoc* jairik egon. Azken hilabeteetan, festak gozatzeko aukera txikia utzi digun bestelako nahaspila izan dugu. Baina, hala ere, hizkuntzaz pentsatzen jarraitzeko hausnarketa interesgarriak iritsi zaizkigu Kataluniatik.

Hizkuntza-politiken fantasia

Marina Massaguer soziolinguistak Bartzelonako lan etnografiko hartan parte hartu zuen. Massaguerrek, besteak beste, katalan hiztunak ez diren pertsonen dinamika linguistikoak ikertu ditu, eta aurtengo udan hainbat hedabidetan agertu da oso hausnarketa interesgarriak egiten. *Núvol* kultur egunkari digitalean uztailan argitaratutako elkarrizketa batean, Kataluniako hizkuntza-politiken balorazio zorrotza egin zuen. Katalan hizkuntzari dagokionez, normalizazio politikek oinarritzeko arazo bat eduki dutela dio Massaguerrek, fantasia batean oinarritu direla:

Generalitateak estatu baten mekanismo hertsatzaileak balitu bezala jokatzeko du, nahiz eta, berez, estatu bat ez izateaz gain, homogeneizaziorako joera duen Espainiako nazio-estatuaren parte den. Arazo asko hortik datoz: politikak oinarritzea praktikan ez duzun botere batean.

Fantasia horren ondorioz, eta globalizazioarekin lotutako beste hainbat aldagai sozio-ekonomikorengatik ere, Kataluniako hizkuntza-politikek ez dute aurreikusten zen arrakasta osoa lortu. Gazte gehienak elebidunak izatea da politika horien arrakasta nagusia, baina, Massaguerrek ikusi ahal izan duenez, hizkuntza bat ala bestea erabiltzea praktika markatu gisa hartzen dute gazte horietako gehienek:

Tesia egin ondoren, ikusi ahal izan dut Katalunian jaio eta eskolatutako 25 eta 40 urte bitarteko jende askok ez duela katalanez hitz egiten egoerak hala eskatzen duenean, praktika markatuz hartzen dela. Zer esan nahi du praktika markatu batek? Bada, zenbait aurreiritzi ideologiko egozten zaizkizula, joera politiko jakin batean sailkatzen zaituztela, edo profil ez oso akademikoa izan duzula suposatzen da eta horregatik ez duzula katalanez hitz egiten. Alegia, gazte bati katalanez hitz egiten bazaio eta pertsona horrek hizkuntza berean erantzuten ez badu, hari buruzko informazioa ematen arituko da. Horixe da elkarrizketatu ditudan pertsona batzuek duten pertzepzioa, ez dut esan nahi nahitaez hala denik.

Hitz horiek hizkuntza-praktikei lotutako ideiei, hau da, hizkuntza-ideologiei erreparatzeko beharra iradokitzen digute. Gurean, baina, hizkuntza-ideologia deserosotasuna sortzen duen kontzeptua da. Ideologia definizioz oso nozio xaloa izan arren (zerbaiti buruz dugun ideien multzoa), hitza entzun eta zenbaitzuk azkura nabaritzen hasten dira. Eta gauza bera gertatzen da hizkuntza-ideologiarekin, nahiz eta hizkuntza guztiek eta horien praktika sozialek, nahi ala ez, beti dakarten dimentsio ideologikoa. Norbaitek uste al du azken hamarkadetakoa euskararen indarberritze prozesua gertatuko zela hizkuntza berreskuratzearen aldeko ideologiarik gabe? Eta, bestalde, Katalunian bezala Euskal Herrian ere, estatuek ezartzen duten gaztelania eta frantsesaren aldeko hizkuntza-ideologia boteretsurik gabe ez al ginateke egoera hobean egongo?

Hizkuntza-ideologiaren jauzia

Soziolinguistika Hiztegiak hala jasotzen du zer den hizkuntza-ideologia: «pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da». Kontzeptuak, beraz, hizkuntzek duten dimentsio subjektiboa azalarazten laguntzen du. Hizkuntzek, dimentsio komunikatiboaz gain, bestelako dimentsio batzuk dituztela aditzera ematen du: ideiak, usteak, sinesmenak...

Kathryn Woolard antropologoak Mendebaldeko gizarteetan hizkuntzen inguruko bi konplexu ideologiko bereizi ditu: benetakotasuna (*authenticity*) eta anonimotasuna (*anonymity*). Benetakotasuna azpimarratzen duen ideologia hizkuntzaren balioa identitate jakin bat adierazteko gaitasunarekin lotuta dago. Anonimotasunaren ideologia, ordea, funtzionaltasunean eta neutraltasunean oinarritzen da: hizkuntza denon eskura dago. Marko horren arabera, ohikoa da gutxitutako hizkuntzak benetakotasunaren ideiarekin lotuta agertzea eta estatu-hizkuntzak anonimotasunarekin lotzea. Baina, Woolarden proposamen horri jarraituz, Massaguerrek dio Katalunian elebiduna izateak zenbait alderditan anonimotasuna ematen dizula:

[Woolardek] dioenez, batzuetan, estatu-hizkuntza anonimotzat hartzen da: ezagutza unibertsala duzu, eta oharkabean pasatzen uzten dizu. Hizkuntza gutxituek, aldiz, askoz ere benetakotasun edo identitate-karga handiagoa dute. Katalanaren kasuan, normalizazio-politikei esker, alderdi askotan anonimotasunera hurbiltzen ari gara.

Ez zait iruditzen gurean euskaraz mintzatzeak anonimotasun ezaugarriarik ematen digunik. Anonimotasunera hurbiltzeko egin beharreko jauzia egin gabe dugu oraindik: euskaraz hitz egiteak, euskarazko literatura irakurtzeak, euskarazko musika entzuteak edo komunikazioa euskaraz egiten duten hedabideak kontsumitzeak praktika markatu samar izaten jarraitzen baitute.

Hizkuntza-merkatua eta bide-markatua

Euskara aurreiritzi ideologiko eta joera politiko jakinekin lotzen den bezala, gaztelaniak eta frantsesak neutro itxura hartzen dute erabilgarritasunarekin lotuta ageri zaizkigulako. Horiek omen dira praktikotasunaren bide zuzena. Euskara, aldiz, bide hori bihurgunez betetzen duena. Itzularazi egiten gaituena ibilbidea motelaraziz. Baina, ingelesaren mundu mailako hedapenaren ondorioz, estatu-hizkuntza handietan ere zalantzak eta kezkek agertzen hasi dira. Kike Amonarrizek, *Euskararen bidegurutzetik* liburuan, honela dio:

Ezin da ahaztu ingelesaren hedapen-prozesua euskal komunitatearen elebiduntze prozesu historikoaren oinarri bertsuetan ari dela eraikitzen: merkatuaren arauak, 'beharraren' diskurtsoa, ingelesaren balio ekonomiko eta profesionalaren nabarmentzea eta norabide bakarreko elebiduntzea (ingeles hiztunak ez dira elebiduntzen), besteak beste. Bitxia da, hala ere, gaztelaniaren eta frantsesaren aldeko hainbat diskurtsotan euskararen alde erabili izan diren argudio bertsuak irakurtzea.

Argi dago ingelesaren inguruan eraikitako diskurtsoak, estatu-hizkuntzei ez ezik, gurea bezalako hizkuntza gutxituei ere eragiten diela. Merkatuak areagotu ditu 'markatuak' diruditen hizkuntzak ikastearen aurkako diskurtsoak: «Hobe da ingelesa ikastea euskara baino, aukera askoz gehiago zabaltzen baititu». Horregatik dira hain garrantzitsuak hizkuntzen inguruan eraikitzen ditugun ideiak. Eta horregatik da hain funtsezkoa hizkuntza-ideologiei buruz behingoz argi eta garbi hitz egiten hastea. Alor horretan ikerketek eta teoriak erakusten digutena jaso behar dugu, jendarte-maila guztietan euskararen inguruko eraikuntza diskurtsibo indartsua zabaltzeko. Lainotutako egunetan ibilbidea erraztuko duten harri-multzoak. Bidegurutzetan ez galtzeko markak. 🌿



Pandemia eta distopia

Urtearen lehen herena pasatzerako, sumatzen genuen 2020ko hitzik esanguratsuenen artean egongo zela 'distopia'. Zer den esateko eskatuz gero, lanak izango genituzke definitzen, baina loturaren bat ikusi genien pandemiari –edo, hobe: haren kudeaketari– eta distopiari.

Zenbaki honetara ekarri den udako Jakin Jardunaldiak, hain zuzen ere, *Pandemiak, distopiak eta mundu berriak* zioen. Eta, egia esan, faltan bota nituen azkenak. Pandemiak eta distopiek, berriz, presenteago ziruditen. Urtearen azken herenean sartu berritan ere nonahi ikusten ditut oraindik: albistegietan, telesailetan eta pelikuletan, lagunarteko elkarriketetan... –albisteak fikzioarekin nahasteko tentazioari eutsi ezin diogunetan, bereziki–. Horregatixe ekarri ditut, oraingo honetan, distopiaren kontzeptua argitzeko eta pandemiatik bereizteko hiru ohar.

Bat: apokalipsia eta distopia ez dira gauza bera

Bereizketa sinple bat, hasteko: distopia ez da apokalipsia, munduaren amaiera edo azken judizio sekularizatua.

Apirilaren azkenetan azpimarratu zituen desberdintasunok Francisco Martorellek *elDiario.es*-en ('¿Estamos viviendo realmente una distopía?'): apokalipsiaren generoak egungo zibilizazioa desegiten duen zerbait kontatzen du (hondamendi ekologikoak edo nuklearrak, birus hilgarriak, estralurtarren erasoak, zombienak, asteroideak, roboten matxinadak...); postapokalipsiari buruzko kontakizunek, berriz,

apokalipsiaren ostean bizirik iraun ahal izateko egin beharreko gerra basatiaz dihardute.

Pandemia-egoera honi irakurketa apokaliptikoa eginez gero, esan beharko genuke gure gizartearen amaiera ekarriko duela birusak. Hau da, zibilizazio egiten gaituzten ezaugarriak galduko ditugu, dela gizakia desagertuko delako, dela bizirik irauten dutenek bizitzeko modu berriak asmatuko dituztelako. Ontzat emanda ditugun gizarte-antolaketa, kultura, mundu-ikuskerak, sinesmenak, lege... guztiak borrotatu dira. Berriak sor litezke, demagun, txertoa asmatu osteko munduan. Gizarte postapokaliptikoa izango litzateke hori: bizirik atera direnek, hala iraun dezaten, egin beharreko borroka luzearen mundua. Edo mundua desegin zitekeen gutxi, eta ez litzateke gizarte postapokaliptikorik izango orduan.

Distopia beste gauza da, ordea. Distopiak gaur egungo baino okerragoa den gizarte bat irudikatzen du, ez munduaren azkena. Lyman T. Sargentek definizioak dio zehaztasun handi samarrez deskribatutako gizartea dela distopia, ez dela existitzen eta irakurlea bizi den gizartea baino okerragoa den bat irudikatu nahi izaten duela idazleak ("The Three Faces of Utopianism Revisited"). Hau da, gaurkoa baino okerragoa den eta existitzen ez den gizarte baten deskribapena da distopia.

Hasteko, beraz, ez da oso erraza 2020a distopia dela arrazoitzea. Zientzia fikzioak bereak ditu arrazoimenari ihes egiten diotela diruditen itzulipurdiak, denboraren eta espazioaren legeak antzaldatzen dituztenak; baina esango nuke gehitxo esatea dela gaurkoa baino okerragoa den eta existitzen ez den gizartea dela gurea.

Hala eta guztiz ere, azken hilabeteetako egoerari distopiarik klasikoenen antza hartu diogu. Orwell, Huxley eta Bradbury hirukote ezaguna hartuz gero, esate baterako, itxialdi-hasiera hura eleberririk distopikoetako ispiluan ikus genezakeen: gizarte hiperordenatuak, estatu-kontrol sinesgaitza, pentsamendu propiorik gabeko esaneko masak, diziiplina eta araua akritikotasunez onartzen zituzten biztanleak... Nonbaitetik atera ziren pandemia-egoeraren eta distopiaren konparazioak.

Boteprontoan etorritako ideia da, baina, agian, bat-bateko aldaketa erradikalek eman diote kutsu distopikoa errealitateari. Gauetik egunera ezezaguna zen gizarte batean aurkitu genituen gure buruak, ohiz kanpoko arauak zituena eta portaera berriak eskatzen zizkiguna. Esango nuke aldaketa leunagoa izan balitz ez genukeela distopiak eskatzen duen distantziatik irakurriko errealitatea; eguneroko mespretxu txiki-handiek ondutako harremanean, kolpeak, indarkeria baino, maitasuna esan nahi duen moduan. Amesgaizto errealegi batean bezala ikusi ginelako irudituko zitzaigun, agian, distopia deituta irreal izaten jarraituko zuela edo...

Distopiaren eta errealitatearen arteko loturan murgildu aurretik, ordea, argi gera dadila lehen ideia: distopia ez da apokalipsia. Ezagutzen duguna baino okerragoa den munduak (distopia) ez du haren amaiera (apokalipsia) esan nahi.

Bi: distopia gaurkotasunaren kritika da, baina gaur ez da distopia

Ñabardura bat, jarraian, esan berri denari: distopia idazleak «irakurlea bizi den gizarte baina okerragoa den bat irudikatu nahi izaten du»; hau da, ez du unean uneko gizarte bera deskribatzen, haren hausnarketaren batetik abiatuz hura baino okerragoa den bat baizik. Distopiak, beraz, 'gaurko' gizarteari idazten dio, gaur ez izateak ahalbidetzen dion distantziatik.

Horrexegatik, hain zuzen ere –gaur ez delako eta existitzen ez delako–, irudimenak ahalbidetu besteko askatasunez aritu daiteke distopia gaurkotasunaz. Izan ere, beste denbora edota espazio batean kokatu ohi dira kontakizunok, eta irudimenezko gizarte arrarotuak eta ez-desiragarriak deskribatzen dituzte.

Asmamenaren mugen bilaketa ez ezik, ordea, distopia egileak bere gizartearen analisisa egiten duela onartu ohi da; hura izatera irits litekeena eman nahi duela aditzera-edo, abisu moduko bat balitz bezala. Distopiaren funtzioetako bat izaten da kritika.

Gauzak horrela, distopiak gaurkoa eta hemengoa izan zitekeen gizarte bitxi bat erakusten du, hain justu, gaurkoa eta hemengoa kritikatzeko. Egia da distopietan desiragarriak ez diren gizarte arraroak deskribatzen zaizkigula –ezagutu ote dugu aurtengoa baino amesgaizto estrainioagorik...?!–. Baina, gaurkotasunari idatzita ere, existitzen ez diren gizarteak dira distopikoak. Distopiak, beraz, errealitateari buruz hausnartzeko tresna bat dira, oraina distantziatik irakurtzeko modu bat, eta ez oraina bera.

Bi puntu bat: kritikak ez du iraultza esan nahi, derrigorrean

Kritika eta alternatiba ez dira gauza bera, noski. Beste modu batean esanda, gaurko munduaren kritikak ez du beste mundu baten alternatiba proposatzen. Askotan esaten da, esan ere, distopiek immobilismoa dakartela: aldaketak okerrera egitea esan nahi badu, konforma gaitezen gaurko mundu inperfektu baina ez-hain-distopikoarekin. Ez gaitezen gehiegi urrundu normaltasun berritik, 0 fase zaharberritu bat izango bada ondorioa.

Baina distopia batzuek erakusten dute handik ateratzeko bidea. Tom Moylanek (*Scraps of the Untainted Sky*) «distopia kritiko» deitutako horietan, adibidez, idazleak, gizarte distopikoa erakustez gain, iheserako zirrikitua uzten dio protagonistari. 1980ko eta 90eko distopia batzuen kasuan, dio, hamarkada kontserbadorearen kritika ez ezik alternatiba feminista, antikapitalista, sozialista eta ekologikoak ere erakusten ziren. Utopia izatera iritsi gabe ere, distopia kritikoak distopiatik harago mundu berriak eraiki daitezkeela erakusten du. «Enklabe utopikoak» zituen distopia zela esan zuen Sargentek (lehen aipatutako artikulua berean).

Itxialdi betean ere sortu ziren askotariko zaintza-sareak, esperantza bizirik mantentzeko oxigeno burbuilatxoak balira bezala. Bakarrik bizi ziren adinekoen osasuna zaintzeko

telefono- eta bideo-deiak, zaugarrienei erosketak etxera eramateko boluntarioak, inguruko baserritarren produktuak nola edo hala saltzeko taldeak, komunitate-izaera guztiz gal ez zedin auzoetan egindako kultur ekitaldi inprobisatuak... Egoera distopiko itxurakotik ihes egiteko enklabe utopikoen antza izan zezaketen.

Ohar bat, hala ere: distopia kritikoetan enklabeak egonagatik, distopikoak izaten jarraitzen dute gizarte horiek. Zaintza-sareak gorabehera, ez dirudi martxotik hona gure politika ere gehiegi aldatu denik...

Beste modu batean esateko: distopiaren kritikak oraina betikotu dezake, beldurrak geldiarazita, immobilismora bagaramatza; eta ekintzara ere eramán gaitzake, distopiaren ispiluan ikusitakoa onartezin begitantzen bazaigu.

Hiru: distopia eta utopia dirudiena baino gertuago daude

Sasiparadoxa bat, oharrekin bukatzeko: distopia eta utopia elkarrekin joan ohi dira.

Tomas Morok generoari izena eman zionetik gero, 'utopia' hitz-joko bat da. Existitzen ez zen aurrizki bat sortu zuen Morok ('u'), grezierazko 'eu' (on) eta 'ou' (ez) aurrizkiak bezala ahoskatzen zena. 'Topos' (leku) hitzari josita, utopia leku ona eta ez-lekua bihurtu zen, biak batean. Hitz-joko bat, alegia, leku onaren existentzia dudán jartzen zuena.

Hala, esku-eskutik doaz hasieratik utopiaren desiragarritasuna (leku ona) eta ezintasuna (ez-lekua). Tentsio horren ondorioz iritsi ziren distopiak gero: ustez desiragarri den horrek izugarrikeriarik handienak ekar ditzakeela salatzetik.

Baina distopia askoren atzean utopia ezkutu bat egoten da. XX. mendeko distopia askok, adibidez, landa-giroko utopiak gordetzen zituzten (in)kontzientean. Huxleyren *Bai mundu berria* distopiak, kasurako, hasiera batean zoriontsua dirudien mundua erakusten du: erreprodukzio artifizialaren

bidez jaiotzen dira bertako biztanleak eta, gizartean dagoen zereginaren arabera, klase sozial batean edo bestean egotea egokitzen zaie. Genetikoki horretara determinatuta daudenez gero, ordea, kontent da bakoitza gizarte mailakatuan duen lekuarekin. Ezin hobeki ordenatutako gizarte desiragarria dirudi.

Istoria korapilatzen hasten da protagonistak erreserba naturala bisitatu eta bertan bizi den basatia ezagutzen duenean. Dudan jartzen hasten da, orduan, gizarte utopiko razionalizatu, teknologikoki aurreratu, ordenatu, hiritartu eta ustez zoriontsua hala ote den.

Distopiaren atzeko utopia horretan, naturazko egoera idilikoren batera itzuli nahia gorde daiteke. Edo, zoriontsu izateko estatu-manipulazioa behar duen gizartearen orde, gizakiaren askatasuna eta onberatasuna lehenesten dituen mundu idealaren desira azpimarra dezake. Aurrerapen teknologikoen utopia posible egiten dutela sinetsi beharrean, mundurik zoriontsuena naturaren legeen arabera dela pentsatzera eraman dezake bat.


Finean, utopiak eta distopiak ez dute elkar ukatzen. Maltzur baten mutur banatan baleude bezala, elkarrengandik gerturatu eta urrundu egiten dira, irakurleak arreta non jartzen duen.

Eta zer?

Laburbilduz, distopia ez da munduaren amaiera, ezta mundua bera ere. Distopia gizarte kritikoki eta distantziatik irakurtzeko tresna bat da eta, utopiatik gertu egonik, gizarte alternatibo eta desiragarri baten zantzuak ere eman ditzake aditzera.

Distopia (edo pandemia-egoeraren irakurketarik distopikoena) apokalipsitik eta errealitatetik desberdintzearen garrantzia orainaren eta etorkizunaren arteko harremanean jarriko nuke. Distopia *balizko* gizarte bat da, ez gaurkoa

eta ezta, seguruenik, biharkoa ere. Hau da, distopiak ez du denbora geratzen, ez du mundua bukatzen, ez du etorkizuna determinatzen... Gaurko egoeratik abiatuz baina hartatik bereiziz gizarte ez-desiragarria erakusterakoan, hain zuzen ere, hor *egon gintezkeela* azpimarratzen du; hor gaudenik, ez. Distopiak, berriro diot, utopia gorde dezake. Baina, hain ezkutuan daukagu gurea, ezen irudimenak pandemia apokaliptikoak baino ez dizkigun erakusten. 🍀



 euskadi
irratia
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



JAKINKIDE TXARTELA

Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Kontuaren jabea



Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus



Jakin^{eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

